

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-11-11
EGUBAKOITZA
485. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

San Milixan feria etzi Gatzagan

14 artisauk hartuko
dute parte | 11



Artisaua lanean. | GOIENA

Bergaran, Martoko auzoko eskola
ere Txiki-Txoko bihurtu dute | 16



'Gezurtiak' kanpaina abiarazi
du LAB sindikatuak | 4



Jokin Zaitegi beka eskuratzeko
deialdia zabalik dago | 33



ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK 2011



ELKARRIZKETA MAHAIRA!

PSE-EE, PP, Amaiur eta
EAJko kideek mahai-ingurua
egin dute Goienan | 2



Eneko Andueza, Juana
Bengoetxea, Maite
Aristegi eta Arantza
Tapia hautagaiak.

MONIKA BELASTEGI

Oñatin jarriko dute atez atekoa hurrena, baina ez bi urte eta erdi baino lehen

Sistema ezartzen jarraitu aurre-
tik Epelen, Bergarako lurretan,
konpostaje planta eraiki beharko
da. Martxan bi urte eta erdi barru
egongo dela uste dute eta horren
ondoren hasiko dira sistema ezar-
tzen, era progresioan, Oñatirekin
hasita. | 4

SINADURAK

	ESTEPAN PLAZAOLA 6
	6 MAIDER ARREGI
	HORACIO ARGARATE 12
	23 NURIA F. DE ARRIOLA
	40 AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Neguko aterpetxea Arrasaten, etxerik ez dutenentzat

Martxoaren 31ra arte
egongo da zabalik
eta 16 ohe ditu | 13

Argazkilaritza, dantza eta poesia batu dituzte zenbait bergararrek

'Udazkena oinetan'
ikuskizuna egingo
dute bihar | 31

Bailarako lasterkariak ere Behobiara begira daude | 29



"Gaur egungo Gipuzkoaren iritzi ofiziala errauskailuaren aurkakoa da"



Larraitz Ugarte |
Gipuzkoako Foru
Aldundiko bozeramailea | 8



Ezkerretik eskumara, Arantza Taopa, Eneko Anduetza, Goiatz Arana (moderatzaila), Maite Aristegi eta Juana Bengoetxea, Goiena telebistan. | MONIKA BELASTEGI

Elkarrizketaren eta botoen momentua

- Mahai-inguru bizia egin zuten Amaiur, EAJ, PSE-EE eta PPk Goienan
- Madrilen herritarron interesak defenditu nahi dituzte, nork bere erara
- Ekonomia krisia, gizarte ongizatea, bakegintza... izan zituzten hizpide

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hilaren 20ko hauteskundeetan, gipuzkoarrek 10 alderdiren artean aukeratu ahal izango dute, eta Kongresurako sei kide eta Senatutarako hiru aukeratuko dituzte. Joan den martitzenean, 10 alderdi horietatik lau nagusiak egon ziren ordezkatuta Goiena telebistatik eman zuen mahai inguruan: Maite Aristegi (Amaiur), Arantza Tapia (EAJ), Eneko Anduetza (PSE-EE) eta Juana Bengoetxea (PP). Mahai-inguru bizia, dinamikoa eta, une batzuetan, sutsua izan zen lauron artekoa.

Zer da euskal ordezkari batek Madrilen egin beharrekoa?

Eneko Anduetza: Gure papera da gertuen daukagun jendearen interesak defendatzea.

Maite Aristegi: Madril ez da gure erreferentzia gunea. Baina eszenatoki berri baten atarian gaude, eta aukera hau benetan baliatu behar dugu bake eta normalizazioaren alde egiteko eta Euskal Herriari dagokion erabakitzeko eskubidea behingoz gauzatzeko.

Juana Bengoetxea: Herritar ia guztiek diote hauek direla euren

kezkak: ekonomia, enplegua, etorkizuna. Bestalde, gure autonomiari esker hemen, Euskadin, dugu gure dirua, gure politika, gure erabakia. Madrilen oinarritzko legeak, lege organikoak egiten ditugu, ez besterik.

Arantza Tapia: Guk defendatu ditugu interes horiek. Transferentziak lortu ditugu Madrilen lan egin dugulako, ez handik bere kabuz ezer etorri delako. Gaur egun, Gernikako Estatutua bukatzeaz dago eta lau erronka jarri ditugu legealdi honetarako: krisia eta enplegua; PSOE eta PPren

birzentralizazio mehatxuaren aurrean, Euskadiren interesen defentsa; politika sozialak eta ongizate estatua mantendu; eta bakea finkatu eta normalizazio politikoa-ri ekin erabakitzeko eskubidea bertan, Euskadin izanda.

Langabezia hazten doa, eta ekonomia aurreikuspenak ere ez dira onak. Zer diozue?

M.A.: Krisiarekin lotuta, badauzkagu ideiak hemen beste gizarte eredu bat egiteko, baina horrek subiranotasuna eskatzen du. Hemen murrizketak etorri dira, langileen eskubideak zapaldu

egin dira, pentsioak murriztu egin dira... eta krisia langileek ordaintzen dute, eta aberatsendako gobernatzen da. Euskal Herrian badago dirua, baina gaizki banatuta dago; urtean 5.000 gazte doaz kanpora; zerga programa aberatsendako egiten da. Guk hori aldatu nahi dugu, baina euskal esparrua behar dugu. Hemengo eragileek ez dute tresnarik. Dagokiguna bakarrik gabiltza eskatzen.

J.B.: Politika sozialak hemen daude. Gipuzkoako Aldundiak ia nahi duen guztia egin dezake politika horien gainean: dirua Aldundiak jasotzen du eta Aldundiak erabakitzen du zelan inbertitu.

A.T.: Kontzertu ekonomikoa daukagu. Zer gertatu da zuek [PP] gobernatu duzuen hainbat komunitatetan? Gure kontra egin dute, eta zuek inoiz ez duzue defenditu Euskal Herriaren kontzertu ekonomikoa.

M.A.: Juana, herri honek ez du merkaturaren moduan ibili nahi. Oinarritzko demokrazia nahi dugu: herriari galdetzea, "zer nahi duzue?" Aukera guztiak libreak izan daitezela eta gero irteten dena errespetatzen dadila. Hortik aurrera ezarriko ditugu nahi dugun harremanak Espainiarekin eta beste estatuekin.

E.A.: Euskadin daukagun autogobernua ona eta sendoa da, Europan ereduagarria. Horrek ez du esan nahi gure autogobernua hemen gelditu behar dela. Azken legealdi honetan, alderdi jeltzalearekin gauzak adostu ditugu eta kompetentzia batzuk ekarri ditugu.

J.B.: Arzalluzek esan zuen PPrekin hiru hilean eskumen gehiago lortu zirela, PSOErekin 14 urtean baino.

A.T.: Eskumen horiek hemen behar zuten orain dela urte asko. 35 urte geroago, ezker abertzaleak erabaki du Madrilera lan egitera joatea.

M.A.: Sendotasun horrekin ez gaude ondo. Madrilgo barkuak zuloak ditu. Teknologian atzera goaz, nekazaritzan hondoratuta dago dena... ez gaude ondo; baina aukerak dauzkagu.

A.T.: Ez nago ados: iritsi gara iritsi garen lekura estatutua dagoelako. Lanean aritu gara batzuk; beste batzuek, zuek jakingo duzue zertan aritu zareten.

M.A.: Urte asko galdu ditugu. EAJ, bere botoarekin, murrizketen eta aberatsen aldeko politika egiten ibili da.



Bai Euskarari

urrats biziak




ziurtagiriarenelkartea
baieuskarari.org

Laguntzailea: **goiena**
KOMUNIKAZIO TALDEA



Mahaikideak, begirada baten

MAITE ARISTEGI AMAIUR

Bergararra da, baserritarra eta abokatua. EHNE nekazarien sindikatuko idazkari orokorra izan zen urteetan. Amaiurren zerrendaburua da Gipuzkoan.

ARANTZA TAPIA EAJ

Astigarragan jaio zen, baina Zumaian bizi da luzaroan. Ezkonduta dago eta bi alabaren ama da. Industria Ingeniaritzan doktorea da, eta lanbidez irakaslea eta ikerlaria.

ENEKO ANDUETZA PSE-EE

32 urte ditu eta ezkonduta dago. Politika Zientziak ikasi zituen. Bere herrian, Eibarren, zinegotzia eta Gipuzkoako batzarkidea da, eta PSE-EEren zerrendetan gazteena da.

JUANA BENGOTXEA PP

Bilbon jaioa da eta 57 urte ditu. Ameriketako Estatu Batuetan Historia ikasketak egin zituen. Seme bat eta alaba bat ditu. Irunen zinegotzia da.

balio izan digu. Orain urte batzuk Ibarretzek estatutu berria planteatu zuenean, ezker abertzaleak esan zuen hura ez zela momentua. Zuek [Maite Aristegiri] ez zenu-ten borondaterik erakutsi. Orain da momentua? Zuek erabaki duzue orain ibilbide demokratikoa egitea; oso ondo, baina ez etorri inori leziorik ematera.

M.A.: Ekonomian aukera izugarriak daude, baina tresnak hemen behar ditugu.

ETak bere jarduera armatua behin betiko utzi eta gero, zein da hurrengo urratsa?

E.A.: Bai ETak eta bai politikariek pausoak eman behar dira. Alde batetik, ETA guztiz desagertu behar da: desarmatu, barkamena eskatu, eta agian estatuak ere barkamena eskatu beharko du; eta denon arteko bake kultura bat sortu.

J.B.: Barkamena oso gauza pertsonala da, eta barkamen soziala ez dut neuk ondo ikusten. Justizia da egin behar dena. Gero, hemen arazo izugarria dugu: gorrotoa. Bestea, eta Espainia, etsai bihurtu ditugu.

A.T.: ETak ibilbide luzea hasi du, eta jarraitu egin beharko du. Estatuak presoak eragin ditu. Bi aldeko biktimei erreparazioa eman beharko zaie, eta bizikidetzatza landu; baina, horrekin lotuta ere, normalizazio politikoa. ETak komunikatua egin duelako ez da bukatu arazo politikoa. ETaren aitzakiarik erabili gabe zintzo jardun beharko dugu orain. Herri hau existitzen dela onartu behar da, eta hitza eman, bere eskubideak onartu eta berak erabaki dezala zer izan nahi duen.

M.A.: Batzuek bukaera dena, ETak armak uztea, beste batzuek abiapuntua da. Orain, alde batetik estatuaren biolentzia bukatu behar da: ilegalizazioa, batetik; eta pausoak ematen hasi behar da presoak gerturatzeko, gaixo daudenak ateratzeko, epaiketa zain daudenak, lan politikoagatik kartzelan daudenak ateratzeko... Bestetik, biktima guztiak onartu, denen sufrimendua onartu. Baina ez nago ados gorrotoa dagoenik. Aurrez aurre daukagu estatu antidemokratiko bat. Ez dut uste gizarte hau haustuta dagoenik.

E.A.: Maite, zorionez zuk ez duzu gorroto hori jasango. Madrilerako joaten zarenean, lasai-lasai ibili ahal izango zara. Baina hemen, etxetik bizkartzainaren autora joan behar gara autora. Niri 24 urterekin eskolta jarri zidaten.

ESANAK



"Transferentziak lortu ditugu 35 urtean Madrilen lan egin dugulako"

ARANTZA TAPIA | EAJ



"Dirua gaizki banatua dago. Hori aldatzeko, subiranotasuna behar dugu"

MAITE ARISTEGI | AMAIUR



"Ikerkuntza eta garapenerako dirutza etorri da Madrildik azken legealdian"

ENEKO ANDUETZA | PSE-EE



"Aldundiak nahi duen ia dena egin dezake; dirua berak batu eta kudeatzen du"

JUANA BENGOTXEA | PP

Orain arte, ETA zegoelako ez dugu aukerarik izan zintzo hitz egiteko.

E.A.: Euskal Herrian jasan duguna ez da Europan beste inon ikusi: herri txiki bateko zinegotziak bizkartzaina eramatea, adibidez. Eta ez da arazo politiko bat bakarrik izan; enpresaburuei ere mehatxu egiten zieten, poliziaei...

M.A.: Eta mila preso etxetik urruti...

Maite: ezker abertzalea ez da urteetan izan Madrilen, eta orain egongo da.

M.A.: Euskal Herriaren eskubideak bete daitezten jardungo dugu: justizia sozialean, parekidetasunean eta ama lurraren defentsan eraikitako gizartea egiten lagunduko dugu. Horren alde indarrak batu eta herri bezala aurkeztu behar dugu.

Arantza, EAJri leporatu izan diote Espainiako gobernua babestea.

A.T.: Nik galdera pare batekin erantzungo dut: zer izango litza-teke gaur Euskal Herria, gu Madrilerako ez bagina joan izan, eta ez bagenu Gernikako Estatu-tuaren alde egin izan? Ez bagenio ETari aurre egin izan, eta ez bagenien estatuak jarritako oztopo guztiei aurre egin izan? Ezker abertzaleak erabaki du orain dela momentua, eta guretako oso positiboa da, ongi etorri, baina ez dezagun deskubritu deskubrituta dagoena.

Eneko: ze eskain diezaike herritarrei azken urteotan agintean egon eta bost milioiko langabeziari aurre egin ez dionak?

E.A.: Lana; gogor lan egin behar dugu. Ez dugu esango bi urtean hiru milioi lanpostu sortuko ditugula. Guk krisitik irteteko lan egingo dugu: fiskaltasuna erreformatu, iruzurraren aurka joan, gehien dutenei gehiago eskatu eta, batez ere, berdintasunaren alde jokatu eta kontratazioa merkatu. Enpresa txikiei abantaila fiskalak eta segurtasun sozialean ere abantailak eman nahi dizkiegu.

Juana: Batzuen ustez, ongizate estatua dago jokoan. PPk irabazten badu, murriztu egingo dira prestazioak?

J.B.: Noski ezetz. 10 milioi pertsona ez dira hain leloak izango eta ez diote bozkatzeko ongizatea kendu behar duen alderdi bati. PSOEk zerbait esan behar du, izan ere, funtzionarioei txikitu egin diete soldata, jaioberri-txekea kendu egin dute, errenta aitorpena egiterakoan 400 euroko bonifikazioa kendu dute... ez dago ukitu ez duten eskubide sozialik.

Niri hori ez zait heroitasuna iruditzen, nire erabakia izan zelako, 17 urte nituenean, politikan sartzea; baina galdera bat egingo dizut: nik beti gaitzetsi izan dut kale biolentzia, Triple A-ren biolentzia, Batallón Vasco-Españolena eta, noski, ETaren biolentzia. Zuen ETarekiko gaitzespena, noizko?

M.A.: Biolentzia guztiak gaitzes-ten ditugu, Gernikako Akordioan argi jarrita dago hori. Orain etorkizun berri bati begira gaude.

J.B.: Nik 12 urte egin ditut bizkartzainarekin, eta bi ume txi-

kirekin, ez dakizu ze zaila izan den. Eta ezin izan naiz joan Gipuzkoako herri batzuetara.

M.A.: Gatazka politiko baten ondorioa izan da.

A.T.: Herri honek bi gauza oso garbi erabaki ditu: giza eskubide guztietan oinarritu behar dugula, eta elkarrizketa politika ezin bestekoa dela.

J.B.: Eta bata bestearen baldintza da.

A.T.: Niretako biak leku berean daude. Giza eskubide guztien bermea egin behar da, baina zergatik ez elkarrizketa politikoa?

Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SIMS

SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Oñatin jarriko dute atez atekoa hurrena, baina ez bi urte eta erdi baino lehen

- Bailara osora era progresiboan zabalduko dute, ez herri guztietan batera
- Ezeren aurretik Epelen konpostagailu planta eraiki beharko dute

AMAIA TXINTXURRETA /
ASIER ALKORTA | ARRASATE

2013rako ez da atez ateko hondakin bilketa sistema Debagoien osoko herrietan ezarriko, azken asteetan hainbat hedabidetan kontrakoa esan bada ere. Mankomunitateak jakin eragin duez, atez ateko zabor bilketa sistema progresiboki joango da ezartzen bailarako herrietan, baina 2013rako ez da herri guztietan ezarrita egongo.

Mankomunitatean Debagoien osoko herrietan sistema ezartze-ko erabakia hartu bazen ere, ez zen datarik zehaztu. "Pixkanaka-pixkanaka joango da ezartzen bailara osoan. Ez da herri guz-

tietan batera ipiniko", adierazi du Mankomunitateak.

Lehenik eta behin, Epelen, Bergarako lurretan, konpostaje gune bat egin behar dutela iragarri dute; horrek baldintzatuko du atez atekoa Debagoiengan. Izan ere, behin konpostaje gune berria eraiki eta martxan jartzen denean, 2013 eta 2014 bitartean, sistemaren ezarketa progresiboki egingo da bertoko herri guztietan.

Hasiera baten, Mankomunitateak Epeleko konpostagailua egiteko urte eta erdiko epea aurreikusten zuen, baina, lanak esleitze-ko Bergarako Egitasmo Orokorrean aldaketa batzuk egin behar direnez,

beharbada bi urte eta erdi beharko direla aurreratu dute.

Oñati, hurrengo "aproposena"

Behin Antzuolan atez ateko hondakin bilketa sistema ezarri eta

gero, hurrengo herririk aproposena Oñati dela dio Mankomunitateak.

Horren haritik, joan den egubakoitzean Oñatiko eta Arrasateko udal ordezkariak eta Urre-

txuko Zero Zabor taldeko kide bat Antzuolan izan ziren, sistema gertutik ezagutzeko.

Bada, Josu Pereda Arrasateko Ingurumen zinegotziak pausorik eman gabe egoteko bi urte eta erdiko epea gehiegi dela dio. "Agian, Epeleko konpostagailua ireki aurretik, Elgetan ezarriko da atez atekoa; aukera hori ez dugu baztertzen".

Dena dela, Peredak herritarrei lasaitasun mezua bidali die. "Ez dadila jendea gai honekin urduri jarri. Beste gai batzuen moduan konponduko da hori ere, eta urte batzuk barru normaltasun osoz ikusiko dugu".

Sozialistak, sistemaren kontra

Alderdi sozialistak, berriz, ez du zaborra batzeko atez ateko sistemarik nahi ibarrean, eta hala- xe adierazi du ordezkariak duen bailarako udaletan, atez atekoaren kontrako mozioak aurkeztuta.

Besteak beste, hondakinak biltzeko atez ateko sistema hone- la deskribatu dute sozialistek: "Garestia, osasunerako kaltegarria, deserosoa, onartezinezko gizarte kontrola dakarrena eta ostalari- tzarendako oso kaltegarria".

Krisiari aurre egiteko burujabetza politikoa eta ekonomikoa aldarrikatu ditu LABek

'Gezurtiak' kanpainak bestelako alternatiben alde egingo du



LABeko ordezkariak, kanpainaren aurkezpen egunean egindako agerraldian. | ASIER ALKORTA

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Krisi ekonomikoari aurre egiteko orain arte hartutako neurriak "gezurrak eta ezer berririk ekartzen ez dutenak" direla salatu du LAB sindikatuak. "Krisialdiaren aitzakiarekin langileak estutu eta zigortzen aritu dira". Horren aurrean, Euskal Herriak "bestelako alternatiba bat" behar duela esan du LABek. "Boterea berreskuratzeko burujabetza politikoa eta ekonomikoa behar dugu". Horregatik guztiatik, hilabete honetan *Gezurtiak* kanpaina jarri du abian LABek.

2008ko ekainean krisia heldu zenetik hona hartu diren erabakiek ezer onik ez dutela ekarri dio sindikatuak. "Langileei etengabeko murrizketak, langabezia eta lan baldintzak okertzea ekarri dizkiete erabaki horiek. Ezer

berririk ez digute ekarri eta langileon egoera ez da aldatu".

"Alternatiba bideragarriak"

Bide beretik, egoerari buelta emateko orain arte mahai gainean jarri diren alternatibak edota irtenbideak "gezur hutsak" izan direla dio LABek. "Eskubide laboralak zapaldu, gastu soziala murriztu, diru publikoa bankuei oparitu, hezkuntza, osasuna eta pentsioak pribatizatu... Sistemak sartu gaituen zulotik ateratzeko balio ez duten errezetak eskaini dizkigute". Irakurketa horren aurrean, sindikatuak "alternatiba bideragarrien" alde egin du. "Daukagun gaitasuna eta indarra erabakitze-ko ahalmena eskuratu, gauzatu eta errespetaraztera bideratu behar ditugu".

'The 24h of Innovation' sariketan MUkoak nagusi

France Trampoline enpresarentzat egindako produktu osagarrien diseinuagatik jaso dute saria

A. ALKORTA | ARRASATE

Aurten *The 24h of Innovation* sariketa Mondragon Unibertsitateko Diseinu Berrikuntza Zentroko ikasle talde batek irabazi du. France Trampoline enpresarentzat egindako joko eta produktu osagarriak diseinatuz eskuratu dute saria. Ikasleek hegazkin batetik erorketa librean salto egiteko saria eskuratu dute.

24 ordu izan zuten lanerako. Eta lorik egin ez bazuten

ere, esperientziarekin pozik bueltatu dira bertoko ikasleak: "Oso esperientzia aberasgarria izan da lehiaketan parte hartzea".

24 orduan jo eta ke lanean ibili eta gero, epaimahaiaren aurrean hiru minutuan aurkeztu behar zituzten ikasleek proiektuak. Guztira, 300 ikasle elkartu ziren Baionako Estia ingeniariaren eskolan. "Estutasun momentuak izan genituen lehiaketak iraun zuen ordu haietan. Baina, emai-



Diseinu Berrikuntza Zentroko ikasleek diseinatutako produktua. | MU

tza ikusita, merezi izan du", diote ikasleek.

Saria, "bikaina"

Sari nagusia hegazkin batetik, 4.000 metroko altueratik, jaus-

gailuarekin salto egitea da eta ikasleek pozarren hartu dute saria. "Sari bikaina da eta pozik gaude".

Nekatuta, saria eskuetan dutela bueltatu dira.

Saiolanek langabeentzako ikastaroa egingo du

A. ALKORTA | ARRASATE

Saiolanek, Arrasateko Enpresa Berrikuntza Zentroak, eskualdeko sustapen aktiboaren programa jarriko du martxan urte amaierarako. Langabezia- dauden eskualdeko hamar lagun sartuko dira programan, unibertsitate tituludunak, eta proiektu erreal bat garatzeko aukera izango dute.

Programa hilaren 18an aurkeztuko dute, Garaian, 10:00etan. Izena emateko, azaroaren 23a baino lehen Saiolanekin jarri behar da harremanetan, e-postaz edo posta arruntaz.

A-20

Zubia eraikitzen laguntzeko dei egin die Amaiurrek debagoiendarrei

Madrilera "etorkizuna, bakea, burujabetasuna, presoan amnistia eta herriaren askatasuna irabaztera" doazela azpimarratu dute

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Amaiur koalizioak hainbat agerraldi egin ditu asteon hauteskunde kanpainaren barruan.

Arrasaten, esaterako, koalizioko hainbat kide eta ordezkariak agerraldia egin zuten astelehenean Kulturaten, eta han, azaroaren 20aren gainean eta ordezkariak lortuz gero dituzten asmoen gainean jardun zuten.

Honela esan zuten: "Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa subjektu politiko bat osatzen dugu, eta, zentzu horretan, guri dago-kigu Espainiako Estatuarekin eta Europarekin izan behar ditugun harremanak zeintzuk diren erabakitzea". Gaineratu zuten, "hori defendatzera eta exijitzera" joango da Amaiur Madrilera; baita "bizi dugun une historiko honetan euskal herritarrok ditugun esku-bide indibidual eta kolektiboak defendatu eta aldarrikatzera ere". Zehaztu zuten, baina, euren erreferentzia ez dela Madril, Euskal Herria baizik.

Etorkizunari, askatasunari, erabakitzeko eskubideari eta justizia sozialari zubiak eraikitzearen asmoa azaldu zuten, eta euskal jendarteari eraikuntza horretan ekarpenak egiteko dei egin zioten, baita botoa Amaiurri emateko ere. Horrekin batera, Zapatuan Donostian egingo den ekitaldi nazionalera joateko dei ere egin zuten.



Arrasateko Amaiurko ordezkariak astelehenean prentsurrekoan. | T.M.

Oñatiko Amaiurrek, berriz, gaztaina eta sagardoarekin lagundutako ekitaldia egin zuen eguaztenean, baina ekitaldi nagusia hilaren 18an egingo dutela iragarri dute. 18:30ean izango da, Herriko Plazan.

Aretxabaletan eta Bergaran

Gaurko, egubakoitza, ekitaldi gehiago ere iragarri ditu Amaiurrek Debagoienera.

Aretxabaletari dagokionez, 18:30ean egingo dute ekitaldia, Herriko Plazan –euria bada, Iturrigori pilotalekuan–. Argazkia aterako dute zubia irudikatuz eta hizlariekin batera trikiti eta gaita doinuak egongo dira.

Bergaran ere gaur, egubakoitza, egingo dute kanpainako eki-

taldi nagusia. 20:00etan izango da, Munibe plazan. Musika, ikus-entzunezkoek, *performance*-ek... eta bestelakoek osatuko dute kanpainako ekitaldi nagusia Bergaran.

Bihar, zapatua, Antzuolan

Antzuolan, aldiz, biharko, zapatua, egin dute hitzordua. 12:30ean batuko dira Kalebarrengo zubian. Amaiurko ordezkariak emango dituzten azalpenekin batera, talde argazkia ere aterako dute. Gero, luncha egongo da Zurragi plazan.

Datorren asteari begira, Maitte Aristegi, Amaiurren Gipuzkoako zerrendaburua Kongresurako, Aretxabaletan egongo da. Eguenean izango da han, 11:30ean.

ikuspuntutik ingurunearen bizi kalitatean era positiboan indarra egitea dira gizartearekin arduratsuak diren enpresen ezaugarriak. Eta horren adibide dira lan-sozietateak.

Bada, marko horretan sinatu zuten hitzarmena, eguaztenean, Enpresagintza Fakultatean, Lander Beloki MUko Enpresagintza-ko dekanok eta Jose Maria Algora Confesaleko presidentek. ASLEko (Euskadiko Elkarte Laboralen Taldea) zuzendari Josetxo Hernandez eta MIKeko zuzendari Aitor Urtzelai ere izan ziren.

Indarrak batuta

Lankidetzak hitzarmen horrekin indarrak batu dituzte eta adostu dute ikerketaren lehentasunak izango direla langileen partaide-tza enpresan eta langileak partaide dituzten enpresak. Hala, bi aldeek adostu dute langileen artean parte-hartzea bultzatzea, nazio zein nazioarte mailan. Hitzarmenak izaera mugagabea du, eta, elkarrekin egingo dituzten ikerketa lanez gain, zabalpen artikulak, monografiak... elkarrekin egitea ere aurreikusten du.

enpresa-ereduak ikertzeko hitzarmena sinatu dute.

Enpresaren kudeaketan, emaitzetan eta kapitalean langileen parte-hartzea bultzatzea eta giza



Elkarlana izango da hitzarmenaren oinarria. | GOIENA

Langileen parte-hartzea bultzatuko dute MUk eta Confesalek

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak eta Confesalek (Espainiako Lan Sozietateen Enpresa Konfederazioa) gizartearekin arduratsuak diren

A-20

Herritarren "%30ek botoa erabakitzeke" dutela dio Roncalek azken inkestez galdetuta

M.B. | ARETXABALETA

Blanca Roncal, PSE-EEren Gipuzkoako zerrendako hiru-garrena Senaturako, Aretxabaletan izan zen astelehen goizean arrosak banatzen. Hark esan zuenez, Euskadin bi erronka nagusi daude: krisi ekonomikotik ateratzea eta ETak borroka armatua utzi izanaren osteko garaia kudeatzea.

CISeko datuen gainean ere egin zuen berba, eta, benetako inkesta hilaren 20koa dela esatearekin batera, "botoa erabakitzeke dutenen kopurua %30ean" dagoela gaineratu zuen.



Roncal, Aretxabaletan. | T.M.

Gaur ere gurean egongo da Roncal, Aritz Arrieta, Pako Garzia eta Jose Luis Cantero baitarako PSE-EEko ordezkariekin arrosak banatzen, Eskoriatzan (11:00) eta Arrasaten (12:00).

A-20

Jeltzaleek Madrilgo Gorteetan egindako jarduna erakusten duen autobusa gurean 14an eta 16an

Astelehenean gurean izango dira EAJko ordezkariak: Lorea Leanizbarrutia, Senaturako Gipuzkoako zerrendaburua; Arantxa Tapia, Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburua; eta Joseba Egibar, GBBko presidentea etorriko dira. 11:00etan Garaia gurean egongo dira eta gero propaganda banatuko dute Oñatin (10:00-12:00) eta Arrasaten (17:00-20:00). Eguaztenean ere propaganda banatuko dute Bergaran (16:00-20:00). Hitzordu horietako bakoitzean, jeltzaleek Madrilgo Gorteetan egindako jarduna argazki eta testigantzen bidez erakusten duen autobusa ere egongo da.

Foru Aldundiko aurrekontuak berbagai Arrasaten

M.B. | ARRASATE

Kontuak garbi, Gipuzkoa berri baterantz izenburupean, 2012ko aurrekontuak azaltzeko batzar irekia deitu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasaten. Hilaren 16an izango da, 19:00etan, Kulturaten, eta interesa duten herritar guztiendako irekia da. Martin Garitano diputatu nagusiarekin batera beste hainbat diputatu, zuzendari eta batzarkide ere egongo dira. Arrasatekoaz gain, Gipuzkoako beste bederatziherritan ere egingo dituzte batzarrok.

Eraikuntza eta Packaging bereiztu egin dira

M.B. | ARRASATE

Ulma Construcción eta Ulma Packaging bereiztu egin dira. Oñatiko kooperatibako Eraikuntzako eta Packagingeko bazkideek batzarra egin zuten martitzenean, Ulma Taldearen barruan negozio bereko parte izaten jarraitu edo bi negozio bereizitu bilakatu erabakitzeke, eta bigarren aukera horren alde egin dute, gehiengoz, bazkideek. Bazkideen %83k egin dute orain arte negozio bereko bi sekzio zirenak bereiztearen alde eta %17k, kontra.

M5

Mitarrak 5 | 2011ko Astelehena | Goiena
www.m5dena.com
Tel: 943.54.09.55

KALITATEA ETA HURBILTASUNA

%100 ADITUAK

Gure marka batzuk

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
<http://goiena.net/iritzia/>



Gaurko hitzak

Gaurko hitza izena du Ordiziako Jakintza ikastolako Batxilergoko ikasleek eta Maite Goñi euskara irakasleak sortutako blogak. Bertan egunero-egunero hitz bat sartzen dute, definizio, sinonimo, adibide, argazki eta bestelako iruzkinekin hornituta. Hiztegia aberasteko ekimena dela esaten dute aurkezpenean. Era horretako beste hainbat ekimen bultzatu ditu Maite Goñik sarean: hizkuntza jokoak, hizkuntza lantzeko ariketak... *Gaurko hitza*-k 3 urte bete ditu dagoeneko eta hori ospatzeko festa egin zuten joan zen astean Donostian, euskal kulturako jende mordo batekin batera. Nik ere oraingoan nire *gaurko hitzak* ekarri nahi izan ditut hona:

Parte-hartzea. Parte-hartze zinegotziak, parte-hartze prozesuak, aurrekontu parte-hartzaileak... Parte-hartze eta auzolan asmoz bete zaigu ingurua. Asmo pozgarriak. Ea emankorrak diren.

Ekilinguismoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendariak esan digu udaletako zinegotzi eta teknikariekin egindako bileran: "Ekilinguismoaren garaia amaitu da, hori zabaldu beharra dugu; ekilinguismoak ez ditu euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzen. Euskarari lehentasuna emateko garaia da". Orain arte entzun gabe nuen hitza. Antzeko mezua azaltzen da Eusko Jaurlaritzak orain 3-4 urte egindako Euskara XXI prozesuko txostenean ere: euskarak behar du bera nagusi izango den lurralde bat.

Pleitos. Bergaran bada baserri bat *Pleittos* izenez ezagutzen dena. Ez dakigu jabea abokatua zelako ala abokatuzalea zelako jarri zioten izengoiti hori. Izen *ofiziala* Santalde du.

Baina ez dakart Pleitos hitza horregatik. Athleticen entrenatzaileari hartu diot: "Me gustaron mucho los pleitos de gran contenido futbolístico que se dieron en el partido". Gero eta Bielsazale gehiago da Athleticen inguruan. Niri ere gero eta gehiago gustatzen zait... prentsaurrekoetako Bielsa, Bielsa *poeta*.

"Gero eta gehiago gustatzen zait Bielsa, Athleticen entrenatzailea"

USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | marregi@goiena.com


Barkamenaren gizartea

Nork bere saminean, ez aurrera, ez atzera, ez du ezer egiten. "Herriari galdetu beharko litzaioke zein sentitzen den biktima", entzun diot Atxagari. Eta ez zaio, ez, arrazoirik falta. Bakea eraiki egiten dela eta gizarteak eraiki behar duela behin eta berriro diote komunikabideek; barkamenaren kultura erakutsi behar dela, dugula.

Bi aldeetako biktimekiko elkartasuna ezinbestekoa da. Irlandako bake prozesuaren gakoa hemen ere nahitaezkoa eta egin beharrekoa da samin eta gorroto horretatik irteteko eta aurrera egiteko. Ni Gandhiren esaldi honekin geratzen naiz: "Eye for an eye will make the whole world blind".

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | <http://goiena.net/iritzia/>



HANDIK ETA HEMENDIK

Lainopean

Pello Urzelai

<http://www.berria.info/blogak/pello/>

Hauteskunde kanpainetan laino moduko bat sortzen da, paisaia politikoa ezkutatu arte iristen dena.

Mezu politikoak izugarri ugaritzen dira, alderdi guztiek batera hitz egiten dute, egunero, eta ohi baino altuago. Horrek sortzen duen zarata mediatikoak ez du uzten ongi entzuten zer esaten ari diren. Horri alderdien hauteskunde estrategia ezkutatuak gehitu behar zaizkio. Laino horren azpian, ezin da ikusi paisaia osorik. Urrutiko begirada bahituta bezala gelditzen da. Geroko benetako asmoak gorderik gelditzen dira. Horregatik, lainoa jasotzen duenean, hau da, hauteskunde gaua pasatzen denean, batzuetan ustekabeak gertatzen dira: kanpainan arerio gisa eta buruz buru ari zirenak itunkide bihurtzen dira. PSE-EE eta PPren arteko ituna ekar daiteke gogora. Hauteskunde hauetan lau subjektu nagusi ari dira lehiatzen Hego Euskal Herrian. PP eta PSOEren kasuan, lehia nagusia Espainiako Gobernu eskuratzeari lotua dago. Haien funtsezkoa da Espainiako gobernuburuaren

aukeraketa. Horregatik, egunotan sozialistak Rubalcaba eta Raxoi ez dira gauza bera leloa errepikatzen ari dira etengabe. Jauregik eta Lopezek nabarmendu dute "bakea sendotzeko" orduan Rubalcabak edo Raxoik gobernatzea ez dela berdina izango. PPK eta PSOE bigarren mailan utzi dute euskal eremuan jokoan daukatena. Gainera, aliatuak dira Eusko Jaurlaritzan, eta argi utzi dute apustu horrekin jarraitu nahi dutela.

EAJ eta Amaiur, berriz, Euskal Herriari begira ari dira lehiatzen. Besteak beste, herriaren gidaritzan nork hartu dago jokoan. Logikoak dira, beraz, bien arteko tirabirak. Baina garrantzitsuen hauteskunde ondozongo ildo politikoa da. PPK eta PSOE –berdin da nork irabazten duen Madrilen– nahiko argi daukate orain arteko aliantzari eutsi behar diotela. Eta EAJk eta Amaiurrek? Amaiurrek badaki proiektu independentista bat aurrera eramateko EAJrekin indarrak bildu beharko dituela, eta horrela onartu du. EAJk lainopean du bere asmoa: batetik, ezker abertzalea gogor kritikatzeko ari da, eta, bestetik, PPri konfiantza osoa ematen ari zaio bakearen gaiaren kudeaketan. Arrasto gutxi.

Distirarik ez

Anjel Lertxundi Esnal

<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Batek galdetu eta galdetu egiten zuen; bestea, sagarraren adarraren puntara joaten zitzaion. Txirla beltz bat baino aspertuago, laster galdu nuen zutaberako ideien bat topatzeko esperantza, eta *The Tarnished Angels* (Aingeru distira galduak) ikusten hasi nintzen. Istorioa Faulknerren ipuin batean oinarrituta badago ere, Douglas Sirk-ek zuzentzen du filma. Melodrama bat, beraz. Primerakoa, ikusi berri nuen debatearen apurra gogotik kentzeko.

Lehen mundu gerran sona handia izandako hegazkinlari bat aireko akrobaziak egitetik bizi da.

Patu gaiztoaz lantua jotzen duen heroi triste bat da, zerua zoru bihurtu zaion pertsonaia distirarik gabea.

Halako batean, emateak esaten dio pilotuari:

"Galdera idiota bat egiten baduzu, beti dago pailazo bat hurbil, erantzun idiota bat emateko prest".

Pelikularen haria galdu eta gogoia debatera joan zitzaidan.

Bat-batean, eskura neukan zutabearen giltza.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenatza), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketaria Inaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOTITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

'Atxabaltan
kanpaiek die'
joan da eta

Gorka Madinabeitia, Pedro Azkargorta, Julen Abasolo eta Beñat Abasolo
(Arientzako Kanpai Jole Eskola)
Aretxabaleta

Joan dira gure jardunaldiok; hilabete osoan eroso sentitu gara Arkupen. Lastima, ez genuen *Txalaparta*-rekin aretoa beteta ikusi, ikuskizunak merezi zuen eta.

Jardunaldi ederrak, oihartzun handikoak, ondo osatuak; erakusketa duina; zapatukoa, ikaragarria. Ez dira gure berbak, baina guk geuk ere hala-moduz bizi izan ditugu.

Eskerrik asko eta urte askotarako, Arkupe, guk eskura eduki dugun guztia aretxabaletarrok luzaroan eduki dezagun. Belar meta, kalean agertu gaituzuelako. Hirusta, gure erakusketa hartu-emaneko bihurtzeagatik.

Eskerrik asko, Iturralde, Goikoetxe, Basabe, Etxebarri, Muru eta Etxezuri, zeuen sagardo eta gazta onenei esker jardunaldion hasiera handia, goxoa eta jendetsua izan genuen eta.

Mila esker, Ibaigain, Uratzalde, Murualde, Urbaltz, San Cristobal, Eguzkialde eta Basotxo elkarteak, La Brasileña, Iosu harategia, Aretxabaleta okindegia, Kaiku eta Ederlan, lagundu egin diguzuelako.

Ricardori, egun batzuk gureztat izan dituzulako. Katalini, kartel berritzaile horregatik. Juleni, erlojua zaintzen dakizulako. Gurutzeri, oroigarri polit horiengatik. Aitorri eta Oierri, gurekin bat egin duzuelako.

Arrasateko irratizaleak, Aike_Acra, ezezagunak izatetik oinarrizko bilakatu zinetelako. Eskerrik asko, Urkulu bueltako auzotarrei, gu eramateagatik, eta oraingoan, batez ere, larrinoarrei: Martzelina, Anjel Mari, Sabino, Jesus Mari Moriko, Ana... zuenean atea jo baino ez dugulako izan. Senideoi, beti hor egon zaretelako. Eta, nola ez, guk proposatutako ekintzetan, egun baten ez bada bestean, parte hartu duzuen guztioi, gure egitaraua zuek bete duzue eta.

Zuek guztiok izan ez bazinate, gure jardunaldiok ez ziren hainbestekoak izango. Nahi gaituzuenerako.

Atez atekoa eta
erraustegia ez
dira lagunak

Andoni Goitia, Julen Romaratezabala, Imanol Biain eta Aitor Otamendi
(Oñati Zero Zabor)
Oñati

Urriaren 28ko *Goiena*-n azaldu zen atez atekoari buruzko erreportajearen nahasgarriak izan daitezkeen zenbait datu azaldu ziren.

Tituluak hitzez hitz hau zioen: *Erraustegia, atez atekoaren laguna*. Guztiz ukatu nahi dugu atez atekoa eta erraustegia "lagunak" diren kontu hori.

Bi filosofia guztiz desberdin daude erraustegiaren eta atez atekoaren atzean. Ez dira bateragarriak, ez Bizkaian (Zabalgarbi), ez Nafarroan (Olazti) ezta Gipuzkoan ere (Zubieta). Aurrez aurre jarritako bi eredu dira. Batak hondakinak erretzea du helburu eta behin

erraustegia eraikita hark "zer jana" behar du. Atez atekoarekin %80 birziklatzen bada, erraustegietako labe handiak errentagarri izateari uzten dio; beraz, atez atekoak bere hondamena dakar. Ondorioz, lagunetik gutxi dute.

Murrizketa
gehiago
euskarazko
hedabideendako

Oskar Zapata Solano
(Nafarroako Topagunearen arduraduna, Nafarroako euskarazko hedabideen eta Topagunearen izenean)
Iruñea

Nafarroako euskarazko hedabideek eta Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, salatu nahi dugu beste behin ere Euskarabideak murrizketak ezarri dizkigula. Irailaren 7an Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen aurtengo aurrekontuetan 327,25 milioi euroko gastu murrizketa egingen zuela. "Doikuntza" horien helburua aurrekontuaren egonkortasuna bermatzea dela azaldu zuten. Iragarpen horrek gizarteko arlo asko ukitu ditu: hezkuntza, osasuna eta beste.

Eskarmentuak erakutsi digu halakoetan euskarari zuzendutako diru-sailak ez direla onik ateratzen. Iragarpena jakinarazi zenetik zenbaitetan Euskarabideara informazio eske jo genuen. Ez ziguten ezer erantzun. Edo bai, esleitutako diru-laguntza kobratzeko dokumentazioa aurkezteko epea aurreratu zutela.

Aste honetan iritsi da murrizketaren jakinarazpena.

Maximino Gomez Serrano Euskarabideako zuzendari kudeatzaileak azaldu digunez, Nafarroako Gobernuak aurrekontuak "doitzeko" hartutako erabakiak "Euskararen gaineko programak komunikabideetan" kontu-sailari ere eragin dio. Euskarabideak jakinarazi duenez, urriaren 31ra arte justifikatutako gastuak ordaintzeko adina diru badu, baina urteko azken bi hilabeteetarako aurreikusia zuen dirurik ez dago.

Euskarabideak esleitutako diru-laguntzak bi epetan ordaintzen ditu: diru-laguntzaren erdia jakinarazpenarekin batera ematen du eta beste erdia, gastuak justifikatu ondoren. Bigarren ordainketa horretan egingen du murrizketa Euskarabideak. Honela:

Beleixe irratia: %34ko murrizketa; Esan-Erran irratia: %37ko murrizketa; *Guaixe* aldizkaria: %20ko murrizketa; *Mailope* aldizkaria: %34ko murrizketa; *Pulunpe* aldizkaria: %37ko murrizketa; *Ttipi-ttapa* aldizkaria: %34ko murrizketa; Xorroxin irratia: %33ko murrizketa.

Murrizketa horiek guztiek euskarazko hedabideok aurretik jasaten ari garen egoera ekonomiko larria areagotzen dute. Hedabideok esleitutako diru kopuruak kontuan izanik egin ditugu urte guztiko aurreikuspenak. Orain, bat-batean, zati bat kentzeak lehendik ahula den gure ekonomia-osasuna kolokan uzten du. Gauza aski jakina da hedabideok ezinbesteko elementu bat garela euskararen ekosistema mantentzeko, indartzeko eta biziberritzeko. Euskarabideari eta haren arduradun politikoei hori ahalbideratzeko, babesteko lan

egitea exijitzen diegu. Horregatik, esleitutako diru-laguntza bere osotasunean ematea exijitzen dugu. Aldi berean, sektoreko aktoreekin bildu, egoera aztertu eta etorkizunerako hitzarmen bat lantzea eskatzen dugu, Nafarroako Parlamentuak 2009an eskatu zuen moduan.

Arrasate-Loiu
autobus zerbitzua

Amagoia Madina
Oñati

Urrian, Arrasate eta Loiuko aireportua lotuko zituen autobus linea berria aurkeztu zuten hedabide guztietan. Bi orduan behin autobus bat izango omen genuen. Poztasunez hartu nuen berria, azkenean, inor kotxean eramateko molestatu gabe egin ahal izango nuelako bidaia.

Hala, azaroaren 4an probatzeko asmoa nuen. Nire hegaldia 15:45ean heldu zen Loiura eta 17:15eko autobusa hartu nahi nuen Arrasaterantz. Baina, nire harridurarako, ez zen autobusik etorri. Pesara deitu nuen eta esan zidaten Diputazioak azken unean zerbitzua erdira murriztea erabaki zuela. Hau da, bi orduan behin beharrean lau orduan behin izango genuela autobusa. Hau horrela, hurrengo autobusa 19:15ean zela konturatu nintzen! Hiru ordu zain egoteko denbora eta pazientziarik ez dudanez, familiarterko bati deitu behar izan nion bila etortzeko.

Zergatik zerbitzuaren %50eko murrizketa hau azken unean? Zergatik ez da hedabideetan aldaketa honen berri eman? Nola nahi dute herritarrok transporte publikoa erabiltzera motibatzea lau orduan behingo maiztasunekin?

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 0513

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek **konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea** eskaintzen dizkizute.

Larraitz Ugarte | Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea

"Gaur egungo Gipuzkoaren iritzi ofiziala Zubietako errauskailuaren aurkakoa da"

- Deskargan bidesaria jarriko dutela ziurtatu du Bide Azpiegituretako diputatuak
- Gipuzkoa Aurrerari buruz dio "gutxi batzuei laguntzak banatzearekin" ez daudela ados

ENEKO AZKARATE | OÑATI

Aurrekontuen, zaborren kudeaketaren, krisiaren, errepideen eta bidegorrien gainean dihardu Larraitz Ugarte, foru gobernuko bozeramaileak. Deskargan bidesaria jarriko dutela ziurtatu du.

Batzar irekiak egiten hasi zarete Foru Aldundiak datorren urterako prest duen aurrekontuaren berri emateko. Zein da helburua?

Kontuak garbi, Gipuzkoa berri baterantz da kanpainaren leloa. Orain arte barruko ariketa egin dugu aurrekontua lantzen. Krisi denboran aurrekontuak osatzea ariketa zaila da, eta are zailagoa jaso dugun herentziarekin. Ez dugu aukerarik izan aurrekontuak guk nahi besteko parte-hartzaileak izateko, epeak oso zorrotzak izan direlako. Baina behin aurrekontu proiektua eginda, eragileei eta herritarrei zuzenean aurkeztu nahi dizkiegu. Arrasaten hilaren 16an, eguaztenean, egongo gara, Kulturaten. Orain arte egin ditugun batzar irekiak oso arrakastatsuak izan dira.

Zenbatekoa izango da 2012ko aurrekontua?

Aurreko urtekoa baino murriztagoa. Aurreko foru gobernua bazuen diru hondar bat, 400 milioi euro, urte oparoengatik sortua, eta baita zorpetze bat, azken hori 200 bat milioi eurokoa. Gaur egun ez dago diru hondar hori eta Diputazioaren zorpetze maila ia 600 milioi euro da. Horrek esan nahi du gastatu direla 700 milioi euro gehiago gastatu behar zirenak baino. Egoera honetan, edo gehiago zorpetzen gara edo gerrikoa estutu eta austeritate politika ezartzen dugu. Azken hori aukeratu dugu, bestela Greziaren eredura gindoazen-eta. Kontuan izan behar da, gainera, diru sarrerak txikitu egin direla, nabarmen, krisiagatik. Arduratsu jokatzeko unea da. 740 milioi euro inguru izango da aurrekontua.

Zeri lehentasuna?

Politika sozialak indartuko ditugu, bereziki, krisi egoera honetan, eta dependentzia sozialaren legea dela-eta eskuduntza asko dituelako Diputazioak... Behar handiak ditugu arlo sozialean. Ehuneko-tan, politika sozialetan, igoera egon da; gainerako partidetan, murrizketa.

Gaur egungo krisi egoerari aurre egiteko ze neurri proposatzen duzue aurrekontuetan?

Gastuari eustea da aurrekontuak osatzeko irizpide nagusia, baina baita zerga politika aldatzea ere, sarrerak handitzeko. Progresiboki diru sarrerak handitu egin

behar dira, eta, horretarako, aldatu beharra dago zerga politika, errenta ahalmen handiena dutenek gehiago ordain dezaten. Gehiago daukanari, aberatsenari, gehiago eskatuko zaio. Esaterako, ondarearen gaineko zerga berrezarriko da.

Gipuzkoa Aurrera, aurreko foru gobernuaren apustu nagusietakoa, bukatu egingo da. Zergatik?

Uste dugu hori ez dela eredu: beti betikoei laguntzea, trukean ezer eskatu barik, ezelako kontrol barik, ikusi barik benetako emaitzak zeintzuk diren. Uste dugu beste politika batzuk bultzatu behar direla eta eragile guztiekin, enpresaburu, sindikatu... guztiekin adostu behar direla politika horiek. Gutxi batzuek laguntzak banatzearekin ez gaude ados.

Zeinekin adostu nahiko zenukete foru aurrekontua?

Unea da erantzukizunez jokatzeko. Une honetan ez daukagu ezkontiderik eta indar politiko guztiei aurkeztu dizkiegu aurrekontuak. Ea lortzen dugun kontsentsua. Hastapenetan gaude. Abenduaren 23ra arte dugu astia, orduan baita azkeneko osokoa. Esan behar dut guretako ez direla aurrekontu idealak, egoera ekonomikoa bestelakoa izango balitz osatuko genituzkeenak.

Zerga politika aldatzea da zuen apustuetako bat, eta horretan badi-rudi sozialistekin sintonia onean zaudetela, ezta?

Bai, adostasuna daukagu zergen gehikortasunaren inguruan. Gure aurreikuspena da zerga politikak aldatuta 55 milioi euro gehiago batuko ditugula.

Zaborren kudeaketarako beste eredu bat proposatzen du Bilduk. Zer egin nahi duzue?

Bildu da orain gehiengo Zaborren Partzuergoan eta hari dagokio zaborrak kudeatzea. Gu ez gaude bosgarren edukiontzia alde, guk atez atekoa bultzatu nahi dugu eta hor ditugu Antzuolako datuak, ikusgarriak, non 6 hilabetetan zaborraren %92 birziklatzea lortu den. Ahalik eta gehien birziklatu behar da eta hondakinak tratatzeko beste aukera batzuk aztertu; biometanizatzea, esaterako. Eta geratzen den hondar huskeriaren dako, beste aukera batzuk planteatu, ez errauskailua, hura erai-kiz gero jaten eman beharko geniokeelako eta birziklatzeko ahalagin gutxiago egingo genukeelako. Egungo iritzi ofiziala errauskailuaren aurkakoa da.

Ze proposatzen duzue birziklatzen ez den hondarrarendako?



Larraitz Ugarte, Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako diputatua. | ENEKO AZKARATE

"Gastuari eustea da aurrekontuak osatzeko irizpide nagusia"

"Etxegaraten bidesaria jartzeak 53 milioi euroko kostua izango luke"

"Bidegorriak lehentasunezkoak dira mugikortasun ikuspegitik"

Aukera ezberdinak daude: hondakindegia edo errauskailu planta txikiak, esaterako. Argi dagoena da zaborren kudeaketarako orain arte planteatzen zen zaborren kudeaketa ez dela gure lurraldeak behar duena eta beste interes batzuei erantzuten diela. Gainera, osasunaz ari gara. Zubietako errauskailua erabat toxikoa da.

Errauskailu txikiak irtenbidea?

Ikusi behar. Oraingoz, luzamendu edo atzerapen bat planteatzen dugu. Ahalik eta gehien birziklatzeko politikak bultzatu gura ditugu, eta, ostean, ikusi sortzen den hondar kopuruarendako sistemarik egokiena zein den.

Errepideei dagokienez, hainbat proiektu atzeratzea erabaki duzue. Zergatik?

Aurreko foru gobernuak hitz emanda zituen 750 milioi euroko obrak. Zorakeria, astakeria hutsa! Aurtengo aurrekontu osoa beste-koa. Uste dugu gaur egun ditugun

errepideekin garapena ziurtatuta dagoela. Esaterako, Zarauzko saihezbidea planteatzen zuen aurreko foru gobernuak. 40 milioi euro, autobidearen ondoan.

Atzeratuko direnen artean, Elgetako saihezbidea?

Bai, une honetan eta gauden egoeran, hori ez da lehentasuna guretako. 11 milioi euroko inbertsioa eskatzen du horrek.

Beasain-Durango ardatzeko Gipuzkoako zatia amaituko duzue?

Bai, lehentasunezkoa da. Hiru zati geratzen dira. Urretxurainokoa ia amaituta dago. Datorren urteko Aste Santurako amaitu nahi dugu. Bigarren tramua, Urretxutik Antzuolarainokoa, hasita dago eta 30 hilabete dituzte amaitzeko. Deskargako tunela dago tarte horretan. Bidegiren ardurakoak dira bi zati horiek. Gero, azkenekoa, Antzuolatik Bergararainokoa, Foru Aldundiak egin behar du eta urtebeteko atzerapena izango du. Edozelan ere, 2015erako Antzuolaraino helduko da errepidea.

Bergararaino?

2013an hasten bagara, espero dugu 2016rako Bergarara heltzea. 70 milioi euroko kostua izango du azkeneko tarte honek.

Eta Deskargan bidesaria?

Bai; finantza plan bat zehaztuta dauka Bidegik, aurreko agintalditik, eta, bankuekin hartutako konpromisoei erantzun behar diegunez, ezinbestean, ordaindu egin beharko da hemendik Beasainera autobideaz joatearren.

Etxegaraten?

Hor ez dugu bidesaririk jarriko. Etxegaraten bidesaria jartzeak 53 milioi euroko kostua dauka, pare bat bihurgune kentzeko eta ordainlekuarendako tokia egiteko. Bestetik, Etxegarate eta AP-1 autobideari alternatibarik bada- go: Andoaindik Nafarroarainokoa, N-121. Doakoa. Etxegaraten bidesaria ezartzeak ez liguke ziurtatuko zirkulazioa AP-8 eta AP-1era bideratzea.

Bultzada emango diozue bidegorri sareari ala krisiagatik geldialdia izango du?

Bidegorriak lehentasun dira mugikortasun ikuspegitik, eta gutxiago aisialdi gisa. Oraintsu onartu dugu Lurraldeko Plan Sektoriala eta Batzar Nagusietan aztertuko dugu aurki. Estrategikoa da eta diruaren arabera joango gara plana garatzen agintaldi honetan, nahiz eta osorik egitea ezinezkoa izango den.



Aveo berria: gidatzearen plazera eta efizientzia

Chevroleten modelo berriak segurtasunean behar den guztia du eta dotorezia ere bai | JULEN IRIONDO

Aveo 1.2 LS berria –lau atekoa– Chevrolet batengandik espero daitezkeen ezaugarri handi guztiekin dator: itxura dotorea, gidatze dinamikoa, segurtasunari dagokionez ekipamendu onena, erregai kontsumoan efizientzia eta bertsatiltatea. Bezeroak espero dezakeena baino askoz gehiago jasoko du, ezer falta ez duen sedan bat da-eta.

Nabarmentzekoak dira, bate-tik, Aveo berriaren estiloa eta dotoretasuna. Diseinu dotorea kanpoaldean, eta barruan kalitatezko materialak inteligentziaz erabilia eta harritzeko moduko ezaugarriak; dituen bost eserleku erosoak ahaztu barik.

Baina Aveo berriaren kasuan, dena ez da itxura. Bolantea hartu eta gidatzearen gozamina da. Xasis berria bere klasekoen artean zurrunenetakoa da eta gidatze dinamikoa eta malgua egiteko aukera ematen du. Sei abiadura-ko motorra eta transmisio gama berria gehituta, horixe da Aveo berria, eroso, bizia eta ekonomikoa.

ESTILO BEREZITUA

Atea ireki eta Aveo berrira sartzen dena berehala ohartuko da nola findu duten. Auto batek behar dituen ezaugarri denak ditu: estilo berezitu eta praktikoa; edozer eramateko aukera inteligentek; espazio handia; serieko ekipamenduan maila handia eta kalitate ikaragarriko akabera.

Bi guanterara ditu, gainera, Aveo berriak: behekoa, ohi bezala, bakoitzaren gauzak gordetzeko; goikoak, berriz, USB errepro-



Kanpotik estilo berezitua eta desberdina du Aveo berriak. | CHEVROLET

CREVROLET AVEO BERRIA

Prezioa: 11.300 €	Neurriak: 4,40 / 1,74 / 1,52 m.
Zilindrada: 1.229 cm ³	Bermea: 3 urte.
Potentzia: 86 ZP	Maletategiko edukiera: 502 l.
Kontsumoa: 7,1 / 4,6 / 5,5	Iragazkidun aire-girogailua: Aukeran.
Abiadura: 171 km/h	Altzairuzko hagonak: 15".
0-100 km/h: 13,4 segundo	Bozgorailuak: 4.
Airbagak: gidaria, kopilotua, albokoa eta gortina.	Irratia: USB eta MP3 sarrera.
Segurtasun gailuak: ABS/EBD/TCS/ESC.	Maldan irteteko laguntzailea: Bai.

duktorea ere badu eta, ondorioz, posible da MP3a maneiatzea bolanteko aginteak erabilia.

Kanpoaldetik ikusita, berriz, ziurrenik, bezeroei Aveo berrian asko gustatuko zaiena da duen estilo berezitua eta desberdina. Motozikletetan inspiratutako argiak dira adibide argia.

Bestetik, gidatze dinamikoa eta erregai kontsumoan efizientzia: zaila da auto batek bi ezaugarriok izatea, baina Aveo berriaren kasuan hala da; motor gama berria diseinatzeko orduan lehentasunetako bat zen gidatzeak dakarren plazeraren eta autoak ingurumenean duen eraginaren arteko oreka lortzea, eta egin dute.

Segurtasunari dagokionez, berriz, Aveo berriak seriean dakartza: sei airbag; balaztari eragitean blokeatzea eragozteko lau kanaleko sistema (ABS) eta Egonkortasunerako Kontrol Elektronikoa (ESC). Atzeko eserlekuetara lotzeko ISOFIX anklajeak seriean datoz bertsio guztietan, ISOFIX duten aulkiak erabiltzeko diseinatu. Bestetik, balizko istripu batean, Aveo berriaren sabaia autoak duen pisua 4,2 aldiz jasan dezake. Aveo berria egiteko azken belaunaldiko altzairua erabili dute, traxzioarekiko erresistentzia handiagoarekin eta autoaren barruan doazen pertsonak babesteko.

AVEO BERRIA
APROBETXA EZAZU AUKERA BAKOITZA.

AVEO BERRIA
8.940 € -TIK AURRERA



Munduko Txapelaldunen motorra, Chevrolet.

Aveo berriak dena dauka, gure selekzioak bezala. Ekipamendu osoa, originala, ezberdina, berria. Aire girotua · 6 airbag · Egonkortasuna kontrolatzeko sistema · Abiadura kontrolatzeko sistema · Bluetootha. Orain zuk duzu hura eskuratzeko aukera. Ez hutsik egin!



CHEVROLET

MAKE IT HAPPEN

www.chevrolet.es | Informazioa: 902 303 900 | www.facebook.com/chevrolet.es | @Chevroletespana

GIAUTO Elgoibar | Olaso Kalea, 25 | 943 744 012 | GIAUTO Olaberria | B° Yurre, Polígono Karobi, s/n | 943 885 150 · www.giauto.es

Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 5,1-6,8 CO₂, emisioa (g/km): 119-159. Gomendatutako prezioa penintsulan eta Balearuharteetan. Aveo 1.2 LS auto berriarentzat (BEZA, matrikulatze zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hilaiera arte.

DUELA 10 URTE

2001-11-09

Ruper Ordorikaren lan berria

Egunotan bere 16. diskoa plazaratu du Ruper Ordorikak: *Hodeien azpian*. Orain dela 10 urte, sasoi honetan, Goienka2a saileko azala eskaini genion Oñatiko musikariari. Hurrengo goizean diskoaren kaleratzea zela eta. "Moden gainetik, nire hariari jarraitzen diot; eta horrek lan handia ematen du" zioen Ordorikak. Lan berria, *Hurrengo goizean* izenburukoa, honela definitu zuen: "Nahiko alaia da, malenkonia printzak badituen".



Ruper Ordorikaren diskoa. | GOIENA

2001-11-16

Jose Antonio Villarri elkarrizketa

Jose Antonio Villar Goenkale telesailko protagonistetako bat genuen orain dela 10 urte. Balen pertsonaiaren rola jokatzeko garai hartan. Gaztetan musikari jardundakoa, Ez Dok Amairuko aitzindarietako bat izan zen Villar. Orain dela 10 urte zera adierazi zigun: "Ez nuen pentsatu ere egingo zenbaterainoko ospea eta oihartzuna duen Goenkale telesailak". 10 urte beranduago hor jarraitzen du ETBko telesailak.

DUELA 5 URTE

2006-11-10

'Seussen mundua'

Aurreko urtean Bilbon estreinaldia egin ondoren, Bergarako Orfeoia *Seussen mundua* ikuskizuna eskaini zuen Bergaran 2006ko azaroan. Amerikako Estatu Batuetan sortutakoa, euskaraz antzeztu zuten Orfeoiko kideek eta herritarren aldetik ere harre-beroa jaso zuten Udal Pilotalekuko emanaldietan.

BERGARA

Diego Valor 'Nolako egurra, halako ezpala', dio esaerak: aita ile-apaintzailea daukate eta hiru anai-arrebek eutsi diote ofizioari; anaia nagusiak, Diegok, 18 urte darama ile-apaintzaile. | EDU MENDIBIL

"Halako konplizitate moduko bat sortzen da hainbat bezerorekin"

Bezeroak irribarre batekin hartzen ditu Diego Valorrek (37 urte) eta beti dauka txantxaren bat ezpainetan. Ile-apaintzaile hasi aurretik Galeperretan, San Juanen, egin zuen lan, aitzak bezala. "Han egin nituen praktikak, txoritxoei hegalak moztzen. Txoritxo gai-xoak... bizirik lumatzen genituen...". Eibarren egin zituen ile-apaintzaile ikasketak eta 18 urte egin ditu dagoeneko San Lorentzoko ile-apaindegian. Aitak Zubietakoan jarraitzen du lanean; anaia Oscar Arrasaten dabil eta Silvia arrebak Burgosen dauka ile-apaindegia. 2 urteko seme baten aita da Diego.

Ile-apaintzaile saga bat osatzen duzue dagoeneko.

Txikitatik ezagutu dugu ofizioa, aita etxean lanean hasi zelako. Galeperretan lan egin ondoren, 32 urterekin hasi zen ile-apaintzaile, Arantxa dendaren goialdean geneukan etxean, gure logelan, hain justu. Goizean goiz alde egin beharra genuen handik... Soldadutzan ile-apaintzaile ibilitakoa zen aita eta Gasteizen ikastaro bat egin zuen lanean hasi aurretik. Eta bai, anai-arrebok bide bera hartu dugu...

Bergaran, behintzat, ile-apaindegi mordo daude. Zuen ofizioan, antza,

ez dago krisialdirik...

Bai, ile-apaindegi asko dago, baina ez Bergaran bakarrik. Krisia guztiok nabaritu dugu, baina egia da ilea mozteko oinarriko gastu bat dela eta goiz edo berandu ile-apaindegira jo beharra daukagula. Baina bai, krisia, gutxi edo asko, guztiok jasan behar izan dugu.

Pentsatzen dut uda aldean izango duzula lan handien... Bestela, jendeak badauka maniarik ilea mozteko orduan? Ilargiaren eraginaz ere berba egin izan da.

Uda aldean jende gehiago etortzen da, bai, baina baita jai bezperetan, Gabonetan, zubien aurretik-eta. Hotza hasten denean, normalean, beherakadaxoa igartzen da.

Eta ilargiaren eragina dela eta, teoria asko dago horren inguruan: batzuek ilargi betean moztu dute, beste batzuek ilgoran, ilbeheran besteek... Batez ere, nagusiek egiten dio kasu ilargiari. Baina teoria horiek jarraitzen dituztenen artean ere denetik dago: ilea dutenak eta burusoi-lak.

Ile-apaintzaileak erdi-psikologoak ere bazarete, ala? Konfesionario bihurtzen da ile-apaindegia zenbaitetan?

Bai, halako konplizitate moduko bat sortzen da zenbait bezerore-

HERRITARRAK



Diego Valor ile apaindegian lanean, atzo goizean. | E.M.

"Txikitatik ezagutu dugu ofizioa aita etxean hasi zelako ile-apaintzaile"

"Ordutegia da txarrena; aste barruan denbora libre gutxi daukat"

kin eta batzuek lasaitu ona hartzen dute gauzak kontatzean. Jendetasuna funtsezkoa da lanbide honetan. Eta hor ibiltzen gara, futbolaz, ehizaz eta halako kontuez berbetan. *¡Hola!* eta *Semana*-ko txutxu-mutxuak ez dakizkigu eta...

Gizonezkoen ile-apaintzailea da zurea...

Emakumezkoendako lizentzia ere badaukat eta neska gutxi batzuk etortzen dira, mutilen antzerako *kortea* izan nahi dutenak. Aitaren ile-apaindegira bai, hara emakumeak joaten dira.

Semeare ere moztuko zenion ilea honezkero...

Nahiko lan ematen dit! Hor ibiltzen gara emaztea eta biok umea gelditi egoteko ahaleginetan, eta ezin... Burugogorra da eta ezetz esaten duenean, akabo. Konfiantza dagoenean, badakizu, harrotu egiten dira berehala. Uste dut ezagutzen ez duen beste ile-apain-

tzaile batengana eraman beharko dudala hurrengo.

Inoiz egin dizuten eskaerarik arraroena?

Aspaldi, aitaren ile-apaindegian nengoela, neska bat etorri zitzaidan eta kaskamotz uzteko eskatu zidan, denboraldi baterako mendira joan behar zuelako. Burua garbi-garbi utzi genion eta ez zitzaion gaizki geratzen...

Laneko gauzarik txarrena?

Ordutegia, zalantzarik gabe. Aste barruan denbora libre laburra daukat eta ia ez daukat astirik etxekoekin egoteko.

Eta lanetik irtendakoa zeintzuk dira zure zaletasunak?

Arrantza eta bizikleta, baina sasoi honetan gutxi... Spinning eskolatan hasi berri naiz orain. Baina familiarekin saiatzen naiz egoten. Aurreko asteburuan Azpeitiko Trenbide Museoan izan ginen eta asko gustatu zitzaigun. Guztiz gomendagarria da.

NIRE HERRIAN

HERRI BARRUA ETA KOKAPENA

San Pedro parrokiaren ingurua eta, orokorrean, herri erdialdeko kaleak, jauregiak-eta asko gustatzen zaizkit. Herri aberatsa da Bergara alde horretatik. Bestalde, herria ezin hobeto dago kokatuta, mendiz inguratuta, eta bidegorrian eta auzoetan paseo ederrak emateko aukera daukagu bergararrok.

GOIKO ESTAZIOA

Bidegorria aipatu dut lehen, baina egia da Goiko Estazioa eta inguru hori ez dagoela batere ondo: txukundu egin beharko lukete, paraje bikaina delako, bista onak eskaintzen dituenak. Bestetik, beharbada ez da unerik onena horretarako, baina antzerkia eta bestelako kultura ekitaldietarako areto hobe baten beharra ikusten dut.

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Sagardoaren prozesua erakutsiko dute domekan San Milixanetan

- 14 artisau-postu, ehungintza tailerra, munduko gatzak eta Errioxako ardoa ere izango dira
- Autobusez joateko dei egin du Udalak; une oro ibiliko da autobusa joan-etorrian

GOIATZ ARANA | LEINTZ GATZAGA

Ondo sustraituta daude San Milixanak Leintz Gatzagan; kontrakorik esaterik ez dago aurten hemeretzigarrenez ospatuko den egun baten inguruan: "Ez da gutxi, ez, feria bat hainbeste bider jarraian egitea!", esan digu Iñaki Agirreurreta Kultura zinegotziak ere. Gatzagarrentzat urteko egunik garrantzitsuena dela esatea askotxo litzateke; ez, ordea, euren egutegian ondo azpimarratutako hitzordu bat denik baieztatzea. "Erreferentziazko eguna da guretzako, herri-mugimendu handia sortzen du eta jende askok parte hartzen du", dio Agirreurretak. Gatzagarrek ez ezik, kanpoko jendea ere erakartzen dute San Milixanek; eta krisiaren edota azokak hainbeste ugaritu izanaren ondorioz, gisa honetako hitzorduak saltzaileentzat garai batean bezain diru-iturri onak ez izan arren, Leintz Gatzagakoak bere horretan mantentzea lortu duelakoan dago Kultura zinegotzia.

14 artisau frontoian

Gasteiz, Durango, Donostia, Erreterria, Zumaia, Aduna, Bidania, Anoeta eta Lazkaoetik etorriko dira domekan artisauak, eta baita Antzuola, Elgeta eta Bergararik ere. Eskuz margotutako haurren arropa, eskuz pintatutako oihalekin egindako osagarriak, larruzko eta egurrezko artisau-lanak, bitxiak, *fusing* beira, dekorazio-gaiak... izango dira euren erakusmahaietan. Eta azokak irauten duen bitartean –10:00etatik 14:30era– zabalik egongo da frontoiaren atzeko kaleko Eskuz larrugintza-denda ere. Gainera, artisau horietako baten eskutik, Mireia Seguraren eskutik, aurten, haurrentzako ehungintza tailerra egingo da frontoian bertan.

ESANAK

"Herri mugimendu handia sortzen duen eguna da"

IÑAKI AGIRREURRETA | ZINEGOTZIA



Meta dotorea egin zuten iaz Herriko Plazan, Santa Kolunba ermitatik idi-gurdian eramandako irarekin. | GOIENA

Nobedadea: ardo-dastatzea

Gatz museoko eskaintza zabalatzeko asmoz, munduko gatzten erakustaldia egingo da Labidean, eta sagardoa nola egiten den zuzen-zuzenean ikusi ahal izango da Herriko Plazan. Baina bada hemeretzigarren edizioan lehen aldiz egingo den zerbait: ardo dastatzea. 12:30etik 14:00etara, kultura etxean, Errioxako upeltegi bateko ardoak probatu eta erosi ahal izango dira; eta zalantzak argitu, kuriositatea asetzen lagundu edo aholkuak emateko *sumiller* bat izango da.

Sorginak, talogile

Leintz Gatzagako Sorginak emakume taldeak ez du hutsik egingo aurten San Milixan ferian: talo postua jarriko dute. Arto-irinez egindako eta txorizoarekin edota hirugiharrekin betetako moka-duak salduko dituzte eta gose ez ezik egarri denari tragoa ere salduko diote, gura izanez gero. Eta domekako hitzorduari musika ipintzen trikitilariak izango dira; kalean gora eta beheara ibiliko dira, herria alaitzen, goizean zehar, lehen orduan hasi eta azoka itxi arte.

Autobusez joateko gomendioa

Leintz Gatzagako Udalak jende asko espero du domekan, eta, herrian aparkatzeko dagoen tokia nahiko mugatua dela kontuan izanik, Eskoriatzatik autobusez joateko gomendioa egin du. 10:00e-

tatik 14:30era izango da autobus zerbitzua. Bakarra ibiliko da, baina joan-etorrian, une oro; hor-taz, 15-20 minutuko maiztasuna izango du. Geldialdi bakarra egingo du Leintz Gatzagan, eta bi Eskoriatzan: Akeita taberna

aurrean bat eta Aranburuzabala kaleko geltokian bestea.

Domekako hitzordurako atzerako kontaketa hasita, jendea animatzeko dei egin du Iñaki Agirreurreta Kultura zinegotziak, "egun polita izango delako".

Sagardoa egingo dute Herriko Plazan

Urtero moduan, aurten ere herri-ekintza bat egingo dute plazan: sagardoa nola egiten den erakutsiko dute oraingoan. Bi izan dira ekintza hori aukeratzeko irizpide nagusiak: halakorik lehenago inoiz egin ez izana da bata; eta Leintz Gatzagan lauzpabost sagardo ekoizle txiki egotea, bestea. Euretako batek gidatuko du saioa, bost laguntzaile ingururekin.

Herrian bertan, Goierri auzoan, batu dituzte sagarrak, 300 bat kilo, orotara. Domekan, 10:30ean, hasiko dira horiek txikitzen; poliki-poliki prentsatu egingo dute gero; eta sagar-muhtioa aterako dute ostean. Egunean bertan dastatu ahal da hori eta asmoa da upelkada bat gutxienez gordetzea, lau edo bost hilabete barru sagardoa edateko. Aurten sagardo denboraldian, Herriko Plazan txotx egiteko moduan izango dira, beraz, gatzagarrak.



Sagar-muhtioa. | IÑAKI LEGORBURU

Gatza, jaiaren erdigunean

Domekan jende gehien kalean batuko denez, gatz museoa Labidea dendara lekualdatuko dute –nolabait esatearren–, nahiz eta betiko museoa ere zabalik egongo den. Labidean informazioa zabalduko dute, mikroskopia bidez gatz kristala nolakoa den erakutsi, gatz plastilinarekin haur jolasak egin... Munduko gatzak erakutsiko dituzte eta horiek erosteko aukera ere izango da, pote txikitari eta prezio oso onetan. 10:30etik 14:00etara bitartean egingo da ekimena.

Elizondora irteera eta bi ikastaro Abaroa elkartearen eskutik

Azaroaren 24rako Elizondora irteera antolatu du Abaroa erretiratu elkarteak. Egun osorako irteera egingo dute, eta, besteak beste, Santxotena museoa bisitatuko dute. Hilaren 16rako eman behar da izena, 10:30ean, Etxaluzen. Hiru autobus irtengo dira.

Bestalde, azaroaren 28ko mahai jokoen txapelketan izena emateko epea hilaren 17tik 24ra izango da. Koruan parte hartu gura dutenek, berriz, hilaren 17ko bilerara agertu beharko dute (17:00).

Artisautza ikastaroa egingo dute aste bukaeran gaztegunean

Gaur, bihar eta etzi, betiko txapelketa, mural eta hankapaluez gain, artisautza ikastaroak antolatu ditu Txatxilipurdik erdiguneko gaztegunean. Ikastaro txikiak izango dira, bi ordu ingurukoak, eta larrugintza eta fimo edo alambrearekin bitxiak egiten ikasiko dute.

Hain zuzen, Olatz Urkia eta Nere Uribeetxeberria artistauek bideratuko dituzte tailerrak. Izena emateko, Pablo Urangako gaztegunera joanda nahikoa da.

Goikobaluko indusketak hasi dira berriz, 1994koetan sakontzeko helburuarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Goikobalun indusketak berrabiarazi ditu Arkeolan arkeologia fundazioak, Mertxe Urteagaren gidaritzapean. Udalaren lizentzia eta Aldundiaren dirulaguntza jaso ostean, Erdi Aroko gaztelua osorik industu gura dute eta horretarako hainbat kanpaina beharko dituzte. Baliabideen araberakoa izango da lan erritmoa.

Eguaztenean hasi ziren lanak eta 1994ko apirilean ekin zitzaion gazteluaren zimendatze honda-

kinen aurkikuntza helburu zuen arkeologia jarduerari. Orduan, Santa Barbara parkeko erreforma lanak aprobetxatu ziren indusketarako arkeologikoa egiteko: Goikobaluko gotorlekuaren forma laukizuzena eta izkina bakoitzeko kuboak identifikatu ziren; horietako bi gainazalera irten-dakoak eta beste bi lurpean egonda hobeto mantendu direnak. Orduan aurkitu zen Aragoiko Alfonsito I.aren garaiko -1104-1134- txanpon bat, esaterako.



Arkeolaneko bi kide Goikobalun lanean, eguazten arratsaldean. | JON BEREZIBAR

Informazioa eta aztarnak lotzen

2011ko kanpaina 25 metro koadroko zundaketa egitea aurreikusten dute. Zelaigunea aztarnategira gerturatzeko leku egokia dela uste dute eta 5x5 metroko

laginak hartuko dituzte egitura elementuak eta elementu sedimentarioak jasotzeko. Informazio arkeologikoa aztarnekin lotu gura du Arkeolanek, zelaia ahalik eta gutxien kaltetuta.

NIRE USTEZ

HORACIO ARGARATE



Egoeraren aurrean, kantari

Udalaitz azpian bizi gare-nok aurreko egubakoitzean irudi esanguratsua eta polita ikusteko aukera izan genuen.

Arratsaldea gau bihurtzen hasten den honetan, emakumezko eta gizonezkoek, iluntasunari eta euriari aurre eginez, bildu, aterkiak zabaldu, eta eskusoi-nuaren zuzendaritzapean, kalez kale eta tabernaz taberna kantatzeari ekin zioten. Gogoan daramazkigun euskal kantak eztarri-

tik kaleetara atera zituzten, erabat desatsegina zen giroa goxatu eta alaituz.

Ekonomiaren munduan ere, ekaitzaren zurrumbiloi pairatzen ari gara: Caritaseko bulegoa gainezka dugu, gazte asko lanik gabe, lan egitera etorritako etorkinak zer egin ez dakitela... Egoera horri buelta emateko gizartearen antolaketa aldaketa egin behar dugula gauza jakina eta beharrezkoa da. Asmo horretan, txikiteoan zihoazen kantariak

eredu dira: egoeraren aurrean kirkildu ez, elkartasunaren atzekiekin bata besteak babestu, danok elkartuko gaituen soinu gidari bat sortu eta bakoitzaren dohain eta indarrak taldeari eskaini. Asteburuan jasotako euriak galera sortu du. Ekonomiaren ekaitzean pertsona ugari itotzen ari dira.

Portaloian bilduko gara? Inork eskusoinua jotzen al daki? Batera kantatzeko ordua dugu. Eta kajoi-ko Maritxuk babes gaitzala!





zenbaki

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

LAN ZERBITZUAK

ZERBITZU FISKALAK

KONTABILITATE ZERBITZUAK

ABOKATUAK






Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.es

Gaua non pasatu ez dutenendako zabalik dago neguko aterpetxea, egokitu ostean

Martxoaren 31ra arte egongo da zabalik, egunero, 19:00etatik 09:00etara

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Neguko aterpetxea azaroaren 4an ireki zuen Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Martxoaren 31ra arte egongo da zabalik, egunero, 19:00etatik 09:00etara. Hiru gradu baino gutxiago iragartzen badute, egun osoan egongo da zabalik. Aterpetxearen helburuak dira etxerik gabeko pertsonen negua pasatzeko lekua eskaintzea, beste baliabideetarako sarrera erraztea eta prest agertzen direnei bizi duten egoera sozio-pertsonala hobetzera bideratzeko beharrezkoa den interbentzioa egitea.

Gizarte Zerbitzuetara jo
Oraingoz, ez dute eskaerarik jaso. Ane Gorosabel gizarte hezitzaileak adierazi du beste urte batzuetan aterpetxea ireki eta egun berean jaso izan dituztela eskaerak. Joan den asteburuko euriarekin eskaeraren bat jasotzea espero zuten, baina ez zen hala izan. Zerbitzua erabiltzea behar dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin behar dute eskaera. Larrialdi kasuetan, baina, egun berean gaua pasatzea behar dutenek Udaltzaingoan eska dezakete giltza. Hala ere, zerbitzua jasotzen jarraitzeko eskaera formala egin behar da.



Izara eta manta garbiekin lo egiteko aukera eskaintzen du aterpetxeak. | J.B.

Behar diren egun guztietarako
Aterpetxea egokitze lanak egin dira azken asteetan; besteak beste, barne antolamendua aldatu eta hezetasunari trataera berezia eman zaio. 16 ohe ditu bi logelatan –gizon eta emakumeendako gela bana–, eta baita komuna eta egongela txiki bat ere. Gaua pasatzeko aukera emateaz gain, garbitasun zerbitzua –dutxa eta garbigailua– eta gosaria emango da. Gainera, prest agertzen dire-

nei euren egoera sozio-pertsonalean laguntzeko aukera emango diete; harrera zerbitzua, informazioa eta bestelako laguntza eskainiko diete. Erabiltzaileek negu osoa egin dezakete bertan, baina astero sarrera-txartela eguneratu beharko dute. Iaz 22 erabiltzaile izan ziren, 21 eta 57 urte arteko bost emakume eta 17 gizonezko. Urtarril amaieran elkartu zen erabiltzaile gehien: 12 lagun.

KINTADAK

1936AN JAIOTAKO EMAKUMEAK

Urte hartan jaiotako emakumeek bazkaria egingo dute batzokian azaroaren 19an. Joan gura dutenek batzokian bertan eman behar dute izena, aurrez 10 euro ordainduta.

1958AN JAIOTAKOAK

Bihar, hilak 12, egingo dute urteroko bazkaria. Interesatuak 60 euro ordaindu behar dituzte

3035 0001 59 0011144438 kontu korrante zenbakian. Izen-abizenak jarri kontzeptu moduan.

1973AN JAIOTAKOAK

Abenduaren 3an bazkaria egingo dute Sara Merenderuen. Izena emateko 45 euro ordaindu behar dira 3035 0055 12 0551053221 kontu korrante zenbakian, izena eta abizena kontzeptu moduan jarrita.

Ardo, txakolin eta gazta dastatzea eta kandelen ikastaroa Bedoñan

Bedoña Batu elkarteak Arabako Errioxako ardoa, txakolina eta Idiazabal gazta dastatzeko aukera emango du hilaren 25ean Bedoñako Laramendi elkartearen (19:00-20:30). Mikel Garaizabal adituak gidatuko du saioa. Izena emateko azken eguna hilaren 18a da (688 88 79 02). Bestalde, hilaren 26rako kandelen ikastaroa antolatu dute eskola-etxean (10:00-12:00). Izena eman behar da hilaren 19a baino lehen (688 88 79 09).

Bi ekintzetan parte hartzea mugatua da. Auzotarrek bost euro ordaindu beharko dituzte gainerakoek, hamar euro.

Boluntarioendako ikastaroa bihar, hilak 12, jarriko da martxan

Elkarteetan parte hartzen duten boluntarioei zuzendutako ikastaroa antolatu du Udaleko Prebentzio Zerbitzuak. Hiru saio egingo dituzte: lehena bihar, hilak 12, eta gainerakoak hilaren 19an eta 26an. Bost orduko saioak izango dira, 09:00etatik 14:00etara, eta saio guztiak Etxaluzen egingo dira. Izena emateko Udaleko Prebentzio Zerbitzura jo daiteke, 943 25 20 07 telefono zenbakira deitu edo prebentzioa@arrasate-mondragon.net helbidera idatzi. Gizalderen webgunean www.gizalde.com eta 943 42 80 13 zenbakian ere eman daiteke.

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia



Labe
pirolitiko
opari

IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

ZALDIBAR

EMAITZAK		
Dublin-Portaboleiros 2.0	12-5	
Lasagabaster-Fidel&Discipulos	1-2	
AT Betrayer-Abokajarro	2-3	
McAwen-Dribling	5-6	
Aldatz-Aston Birra	8-1	
Iluntz-Sonografos	1-4	
Ekaitz-Iriztu	7-3	
Iluna	Atsedena	

SAILKAPENA		
TALDEA	P	J
1 Dublin	3	1
2 Aldatz	3	1
3 Ekaitz	3	1
4 Sonografos	3	1
5 Dribling	3	1
6 Abokajarro	3	1
7 Fidel & Discipulos	3	1
8 Iluna	0	0
9 McAwen	0	1
10 AT Betrayer	0	1
11 Lasagabaster	0	1
12 Iluntz	0	1
13 Iriztu	0	1
14 Portaboleiros 2.0	0	1
15 Aston Birra	0	1

PARTIDUAK		
Azaroak 12, zapatua		
10:30	Sonografos-McAwen / Dublin	
11:30	Abokajarro-Dublin / McAwen	
12:30	Dribling-Lasagabaster / Aboka.	
16:00	Ekaitz-Iluntz / Fidel & Disc.	
17:00	Fidel & Disc.-Iluna / Ekaitz	
Azaroak 12, Zapatua		
11:30	Iriztu-Aldatz / Aston Birra	
12:30	Aston Birra-AT Betrayer / Aldatz	

Dublin, aurtengo lehenengo liderra

Lehenengo jardunaldia jokatuta Dublinek estreinatu du sailkapeneko lehenengo postua, golez betetako partiduan errepaso polita eman zion-eta Portaboleiros taldeari (12-5). Adi, baina, liga ondo hasi duten Aldatz, Ekaitz eta Sonografos taldeekin; azken hori Mondratik datozen hainbat jokalariz osatutako taldea da; ea zelan moldatzen diren Zaldibarren.

Zapatu goizean partidu txukunak

Asteburuari begira, berriz, zapatu goizeko norgehiagokak izango dira bereziki erakargarriak, nahiz eta inork ez dakien ze partiduk eman dezakeen ikus-kizun onena. Aurrez, zapatu goiz *potentea* dator.



Juventud Deportiva Mondragon taldeko infantil mailako atletak, 1971n, Santamas krosean. | JOXE ELORTZA

Atleta gazteak, duela 40 urte, Santamas krosean

Abenduaren 18an egingo dute aurtengo lasterketa

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aurtengo Santamas krosean (abenduaren 18an izango da) 40 urte beteko dira argazki hori atera zutenetik. Juventud Deportiva de Mondragon taldeko emakumezko atleten erretratua da, 1971ko abendukoak: "Taldea polita genuen orduan, leku askotara joaten ginen probetan parte hartzeraz", adierazi digu garai hartan Fernando Zufiriarekin batera entrenatzaile jarduten zuen Joxe Elortzak.

Garai hartan 12-13 urte inguru izango zituzten erretratukoek, infantil mailako atletak ziren, 1957-1958 urteetan jaiotakoak. Argazkian daude, ezkerretik hasita, goian: Mariflor Roa, Mertxe Beltran, Jasone Godoi, Garbiñe Heriz, ezezaguna, Maria Jesus Urkiola, Jaione Oyanguren, Agurtzane Ugalde, Asuncion Agiriano, Anabel Nafarrate, Anabel Martinez eta Lourdes Azkoaga.

Makurtuta daudenak, ezkerretik hasita: Mari Carmen Uribealzo, Jaione Aranburu, Mari Carmen Arconada, Ane Miren Etxeberrria, Asun Iturbe, Gema

Jauregi, Mari Carmen Lagunilla eta Amaia Larrañaga.

Gazteendako proba zen

Erretratu horrek 40 urte beteko baditu ere, gaur egun ezagutzen dugun koadrilen arteko Santamas krosa ez da oraindik urteurren horretara iritsi: "Urte batzuk geroago hasi ginen gaur egun ezagutzen dugun koadrilen arteko Santamas krosa antolatzen, eta, erretratuaren sasoian, gaztetxoendako distantzia askotarik probak antolatzen genituen".

Hala, klubak gaur egun gazteendako antolatzen duen laster-

ketaren antz handia zuen orduko proba hark. "Koadrilen artekoa eguerdian egiten dugu, baina lehenago gaztetxoak Iturriotzen eta Erdiko kalean ibiltzen dira korrika, eta orduan ere distantzia antzerakoko lasterketak egiten genituen, erretratukoak infantil mailakoak direlako. Gogoan dut Donostiara eta beste leku askotara joaten ginela korrika egitera, baina Santamas aurretik erabaki genuen herrian lasterketa bat antolatzea, eta halaxe hasi ginen".

Erretratuko atleta horiek gaur egun lantegiko langile, liburutegiko langile, irakasle, politikari eta irakaskuntza zentroetako kudeatzaile dira, besteak beste. Eta erretratuak balio du, baita ere, duela hilabete gutxi hil den Agurtzane Ugalde gogoan izateko. Baina eurekin batera ikustekoa da ingurua ere zelan aldatu den. Herriko Plazan bertan ateratako argazkian, zorua gaur egungoaren erabat ezberdina da eta atzean ikusten den Urizar tabernak egungo Kajoi tabernari egin zion lekua.

Hortik aurrerako guztian, baina, gauzak ez dira horrenbeste aldatu 40 urte hauetan, datorren abenduaren 18an Arrasate Kanpanzar taldeak antolatuko duen gaztetxoendako Santamas krosean ere hainbat neska koadrila batuko dira-eta, goiza kirol apur bat eginez pasatzeko asmoz.

Koadrilen Santamas krosa

Hala, aurtengo abenduaren 18an atletismo hitzordua izango da Arrasaten. Antolatzaileek aurreratu digute ibilbidean ez dela aldaketarik izango eta egunean bertan eman ahal izango dela izena, proba hasi baino apur bat lehenago.

"Francori lanak ematen ahaleginduko naiz gaur"

X.U. | ARRASATE

Arrasate Hiria xake txapelketa aurrera doa, eta azkenaurreko jardunaldia jokatu dute gaur, egubakoitza, Altamiran (19:00). Sailkapenari begiratuta, Alejandro Franco maisuak, eta garai-penerako faboritoak, aurreikuspenak bete ditu eta azken pausoa geratzen zaio torneoaren bereganatzeko.

Azken pauso hori, baina, Arrasateko Josu Tornay mendean hartzea da. Hori gertatuz gero, madrildarrak irabaziko du torneo, ziurrenez. Baina txapelketa polita egiten dabilen Tornayk lanak eman nahi dizkio: "Izerditu egin beharko du irabazteko", dio Tornayk, barrez: "Pena da, aurreko partidetan ondo ibili naizelako, Argandoña maisuaren kontra berdindu egin nuen eta Prieto ia mendean hartuta neukanean pare bat hanka-sartze egin nituen, eta partida galdu. Hura irabazi izan banu, torneo irabazteko aukerakin izango nintzen. Orain, baina, podiumera igotzeko borrokatuko naiz".


Aipatzekoa da, baita ere, gaurko jardunaldian jokatu ditzuten partidaren artean, laugarren taulan, Isidro Ruiz eta Juan Ruiz aita- seme arrasatearrek elkarren kontra neurtuko dituztela indarrak. Lehia horrek ere giroa du, seguru, gaur arratsaldeko lan-saioa.

Arrasate Errugbi Taldeko mutilek Irunen jokatu dute bihar

Igor Isasiren taldeak etxetik kanpora jokatu du asteburuan, Irunen. Arrasatekoek 16:00etan jokatu dute. Moja-egin, baina, oraingo asteburuan ere errugbi eskolako saioak egingo dituzte. Hala, LH3 eta LH4 mailako gaztetxoek hitzordua dute errugbiaren inguruan jolasak egiteko, 10:30ean hasita.

Ford Mugarrik Basaurin defendatuko du lidergoa

Ane Herrerok zuzentzen duen Ford Mugarri Arrasate Basauriren kantxan jokatu du domeka eguerdian (12:15). Bizkaian kantxa errazik ez dagoela jakinda, aurtengo Basauri ez dabil beste urte batzuetako sendotasunik erakusten, etxean jokatu-ko lau partidu galdu egin dituzte-eta.



Papera eta musika oinarri dituen antzerkia familia osoarendako

Enfilat's taldeak 'Plecs' ikuskizuna egingo du etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean; antzerkia eta zirkua batuko dituzte

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Kataluniako Enfilat's antzerki taldeak emanaldi berezia egingo du domekan Amaia antzokian, 19:30ean: *Plecs*. Musika eta papera batzen dituen ikuskizuna egingo dute, familia osoarendako: ume

eta nagusiendako. Antzerkia eta zirkua bateratzen dituen emanaldia izango da. Gaztelaniaz egingo dute eta sarrera 10 euro ordaindu beharko dute. Txartelak antzoki-ko leihatilan salduko dituzte emanaldia hasi aurretik.

Tramankulua agertokian
Manolo Alcantarak idatzi eta zuzentzen duen antzezlanean lau aktore igotzen dira taula gainera: Alcantara bera eta Xabi Elicagaray, Claudio Inferno eta Karl Stets. Tril egiten duten lau per-

tsonaia dira, eta paperezko agertoki batera joaten dira. Ahalegintzen dira musika, partitura jarraitzen, korda, tekla, tutu eta artazi artean.

Bat-batean, isiltasunetik, tramankulu bat erortzen da agertokira. Arrisku handiarekin kulunkatzen da oholtzan, eta lau protagonistek gainean dantza egiten dute, akrobaten antzera.

Lau protagonistak –musikaria bata eta akrobatak besteak– tramankuluari aurre egin eta orekari eusten saiatuko dira.

Ume eta helduak aho zabalik utziko dituzte.

Kritika onak eta hainbat sari
Enfilat's taldeak Arrasaten egingo duen antzerki emanaldiak oso kritika onak jaso ditu 2010ean estreinatu zutenetik. Reusen (Tarragona) egin zuten lehen emanaldia.

Sariak ere jaso dituzte: hilaren 5ean Carballon (Coruña) egiten den jaialdiko lehen saria irabazi zuten. Ikusleek emandako saria da, hain zuzen.

Enfilat's taldea 2009an sortu zuten Manolo Alcantarak eta Xavier Errak. Helburua zen antzerkia eta zirkua batzea. Premisa horrekin idatzi zuten lehen gidoia. Dena den, antzezlanak "talde-lanaren" emaitza direla diote Enfilat's taldeko kideek. Koreografia gehienak zirkuan oinarrituta daude; zirkuan egiten diren ikuskizunetan. Antzerkiaren musika Xabi Elicagarayk sortutakoa da, originala.



Enfilat's taldeko kideak akrobaziak egiten. | ENFILAT'S

Inprobisazioa lantzeko aukera musika eskolarekin

Eguaztenean 'jam session' emanaldia egin zuten Monterronen, Arrasate Musikalek antolatuta

M.B. | ARRASATE
Arrasate Musikalek antolatuta *jam session* delako emanaldia egin zuten eguaztenean Monterronen. Helburua zen inprobisazioa lantzea. Musika eskolak deialdi irekia egin zuen herritarren artean hango ikasleekin batera kontzertuan parte hartzeko. Bi lagun bakarrik agertu ziren. "Proiektu berria da, eta hasierak beti dira gogorrak. Akaso, ez dugu behar beste zabaldu deialdia, baina hurrengoeta-

rako badakigu zer egin", esan digu Arrasate Musikaleko kide Zigor Martinezek.

Guztira, 12 lagun elkartu ziren, eta emanaldi polita egin zuten. "Bikote bat hurbildu zen Monterronera, eta harrituta baina oso gustura geratu zen", esan digu Martinezek.

12 instrumentu
Musika eskolan inprobisazioa lantzen dute, eta hori kalera ate-



Arrasate Musikaleko kideak, eguaztenean, Monterronen. | ZIGOR MARTINEZ

ra zuten eguaztenean. Jazz munduko kantu ezagun batzuk jo zituzten. Tronpeta, tronboia, saxofoia, pianoa, gitarra, baxua, tuba, kongak, bateria eta bibrafonoa

erabili zituzten kontzertua egiteko.

Arrasate Musikalekoen asmoa da hilean behin halako inprobisazio saioak egitea.

Paddy Rekaldek poesia emanaldia egingo du gaur

M.B. | ARRASATE
Gaztetxeak eta AED elkarteak antolatuta, poesia errezitaldia egingo du Paddy Recaldek gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:00etan. Ordubeteko saioa izango da eta udaberrian idatzizuen *Spray* liburua aurkeztuko du. Sarreran borondatea ordaindu beharko da.

Poemak dira liburuaren oinarri eta 10-12 bat irakurriko ditu DJ Katzaren musikaz lagunduta. Rekaldek poemak irakurtzen dituen bitartean, hainbat grafitilari marrazkiak egingo dituzte. Bada, errezitaldi lasaia eta dotorea izango da.

'La Revoltosa' zarzuelarako sarrerak salgai

M.B. | ARRASATE
Izaskun Murgia elkarte liri-koak *La Revoltosa* zarzuela eskainiko du hil bukaeran. Dagoeneko salgai daude txartelak Kutxan, Internetez edo telefonoz, eta Amaia antzoki-ko leihatilan. Kutxako kutxazainetan ezin izango da sarre-
rarik erosi.

Lau emanaldi egingo dituzte: hilaren 18an, 20:00etan; eta hilaren 19an, 26an eta 27an, 19:30ean.

Martxoan hasi zituzten entseguak Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideek.

'El arbol de la vida' eta 'Mosketariak' filmak Amaia antzokian

Bi pelikula emango dituzte bihar, zapatua, Amaia antzokian: 17:00etan, umeendako, *Mosketariak* filma; eta 19:30ean, *El arbol de la vida* helduendako. Azken hori Terrence Malic-ek zuzendutako drama da. Brad Pitt, Jessica Chastain eta Sean Penn dira protagonista nagusiak.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA

edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

OHARRAK

**ELEXPURUREN HITZALDIA
ASTELEHENEAN**

Jardunek antolatuta, Juan Martin Elexpururen hitzaldia izango da astelehenean Irizar jauregian, 19:00etan. *Zer gertatzen da Iruña-Veleian?* hitzaldia egingo du Elexpuruk. Euskal Filologian doktorea, gertutik ezagutzen du gaia idazle bergararrak.

**SAN JOXEPEKOAK
LIZARRARA HILAREN 24AN**

Azaroaren 24an Lizarrara joateko irteera antolatu dute erretiratuek. Egun osoko irteera izango da eta autobusa 08:30ean aterako da bus geltokitik. Lizarran bisita gidatua egin ondoren, Irache hotelean bazkalduko dute. Izen-ematea eta argibideak erretiratuetan: 943 76 21 40.

1934AN JAIOTAKOAK

1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Frontoian batu-ko dira, 14:00etan. Izen-ematea (12 euro) Errekin.

1948AN JAIOTAKOAK

1948an jaiotakoen afaria azaroaren 19an Zabalan. Frontoitik autobusa aterako da 21:00etan. Izen-ematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

1991KOEN AFARIA

1991koen afaria azaroaren 19an Tartufon. Izen-ematea Euskadiko Kutxan.

1953AN JAIOTAKOAK

1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxa jatetxean. Izen-ematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio), azaroaren 17a baino lehen.

1945EAN JAIOTAKOAK

1945ekoan afaria azaroaren 26an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Azpeitxin bertan, 25 euro aurreratuta.

1966AN JAIOTAKOAK

1966an jaiotako bergararrek afaria egingo dute azaroaren 26an. Batzokian afalduko dute, 22:00etan. Halere, 19:30ean elkartuko dira Ariznoa tabernan. Izen-ematea Ariznoa tabernan, azaroaren 7tik 24ra. 10 euro ordaindu behar dira fidantza moduan.

Martoko eskola, umeendako aisialdi-gunea

Astelehenean zabalduko dute, guraso talde batek eskatuta

EDU MENDIBIL | BERGARA

Martokoko eskola ume eta gurasoendako zabalik izango da astelehenetik, hilaren 14tik. Guraso talde batek eskatuta, auzotarrek eta Udaleko ordezkariak batzarra egin zuten aurreko astean; 60 lagun batu ziren Jesus Elortza alkatearekin, Maren Belastegi zinegotziarekin eta Nagore Narbaiza Gazteria eta Hezkuntzako udal teknikariarekin batera. Martokon eta inguruan aisialdi-gunerik ez dagoela eta, eskola lehenbailehen zabaltzeko eskaera egin zuten gurasoek, euria eta hotza denean umeekin nora joan izan dezaten.

Hasiera baten, aisialdi-gune moduan eskola 2012an zabaltzeko asmoa zeukan Udalak, baina irekiera aurreratzea erabaki dute, nahiz eta baldintzarik egokiene-

tan ez egin. Udaleko iturrien arabera, behin zabaldu eta gero hobekuntzak egiten joango dira poliki-poliki. Izan ere, 2012ra arte itxoiteko Udalaren arrazoa horixe zen, leihoak konpondu eta bestelako lan batzuk egin behar direla.

Arratsalde zabalik

Zabalotegiko Txiki-Txokoarekin gertatzen den moduan, arratsalde zabalduko dute Martokoko eskola, 16:30etik 19:30era (Zabalotegin ordu erdi geroago ixten dute). Udaltzaingoak itxi eta zabalduko du lokala eta langile batek egingo du garbiketa.

Guraso eta umeendako 45 m2 inguruko bi gela daude Martokon; berogailua, komunak eta aterpetxo bat ere bai, umeen karroak uzteko egokia.



Guraso eta umeek astelehenetik erabili ahal izango dute aisialdi gune berria. | E.M.



JOSE ANGEL MIKEO

Hiru bailaratako kintoak elkarrekin

1927an Elgetan, Angiozarren eta Uberan jaiotakoek urteroko bazkaria egin zuten domekan. Zortzi lagun elkartu ziren. Aurten hil diren bi kintoen aldeko mezaren ostean, Elgetan bazkaldu zuten, Ostatu jatetxean. Eguraldiak ez lagundu arren, egun ederra igaro zuten lagun artean. 1927an jaiotakoak izan ziren azkenak hiru bailarok batuta ezagutzen, hurrengo urtean bereiztu ziren-eta Angiozar eta Ubera Elgetatik.



Bidekurutzeta kalea 34
Tel.: 943 76 17 41

Larunbatetan eta igandetan

10:00etatik 14:00etara

Salda

+


txorizoa

+

**sagardoa edo
errioxako ardoa**

2,25 €

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



Sei umek bazkaltzen dute egunero eskolan, Ascen Irazabalbeitia sukaldariaren eta Aitziber Alberdiren laguntzarekin. | E.M.

Jangela eta zaintza zerbitzuak jarri dituzte aurten Osintxuko eskolan

Ixteko zorian egon zen eskola eta zortzi ikaslek ekin diote ikasturteari

EDU MENDIBIL | BERGARA

Ixteko zorian egon da aurten Osintxuko eskola zaharra. Atzean geratu dira auzoko ume askok bertan ikasten zuteneko garaiak. Zortzi ikasleekin ekin zioten joan den irailean ikasturte berriari. Berrikuntzekin, gainera: jangela zerbitzua eta zaintza zerbitzua abian jarri dituzte.

Eskolan sukaldea egokitzeaz Osintxuko Herri Batzarra arduratu zen eta jangela zerbitzua Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak finantzatzan du. Auzolagun enpresako Ascen Irazabalbeitia sukaldariak prestatzen du umeendako bazkaria. Oraingoz, sei ume geratzen dira eskolan bazkaltzen. 12.30ean hasten dira bazkaltzen eta 16:30ean bueltatzen dira etxera.

Jangela eta zaintza zerbitzuko arduraduna Aitziber Alberdi osintxuarra da. Haren arabera, prozesu luze baten emaitza izan da bi zerbitzuok abian jartzea. Hain zuzen ere, San Martin eskolaren, Udalaren, Osintxuko Herri Batzarraren eta Debagoieneko Garapen Elkartearen laguntza ezinbestekoa izan da.

Zaintza zerbitzuari dagokionez, helburua haxe da: haurrak Ber-

garako haurtzaindegiren batera eraman beharrean, Osintxun bertan uztea. Ludoteka gela erabiltzen dute horretarako eta zerbitzua 07:30etik aurrera eskaintzen dute. Zaintza zerbitzuaren kasuan, gurasoek eurek ordaintzen dute aurrekontuaren zati bat.

San Martin ikastetxeko gela desplazatua da Osintxuko eskola eta 2, 3 eta 4 urteko umeak ari dira bertan. Aitziber Mugurutzaz gazte

bergararra dabil irakasle lanetan. Osintxuko zortzi ikasleetatik bost etorkinen seme-alabak dira.

Etorkinak goraka

Osintxuko egoeraren isla ere bada eskola. 400 lagun inguru bizi dira Osintxun eta etorkinen kopurua goraka doa urtetik urtera. Etorkinak %18 inguru dira, inguruko herrietan eta Gipuzkoan baino kopuru askoz handiagoa.



Eskolako umeak Aitziber Alberdirekin. | E.M.

Gaztetxeko kideek etorkizuneko erronken gainean eztabaida saioak izango dituzte asteburuan Elosuan

Elosuko Kongresua izenburupean, Gazte Asanbladako kideek egungo egoeraren eta etorkizuneko erronken gainean eztabaidatuko dute asteburuan. Kartzela Zaharreko barne egitura mahai gainean jarri eta premia eta beharren inguruan jardungo dute gaurtik domekara bitartean. Beraz, gaztetxea itxita izango da. 30 bat lagun batuko dira Elosuan eta elkarren arteko harremana sendotzea da helburuetako bat. Parte hartzeko dei egin diete herriko gazte guztiei.

Gipuzkoako kantu txapelketako finalera joateko autobusa antolatu du Musika Eskolak

Azaroaren 27an Gipuzkoako kantu txapelketako finala izango da Donostiako Printzipal antzokian eta finala ikustera joateko autobusa antolatu du Musika Eskolak. Autobusa 15:00etan irten-go da bus geltokitik. Izena Musika Eskolako idazkaritzan eman daiteke azaroaren 22a baino lehen. Eta edozein argibidetarako 943 76 57 80 telefono zenbakira jo dezakezue.



Bergaran jokotutako finalurreko irudia. | JULIO CALLEJA

El Salvadorrera dirulaguntza bidaltzeko hiru kontu ireki ditu Oscar Romero Solidaritate Batzordeak

Azken asteotako euri-jasak direla eta, El Salvadorren kalte ugari izan dituzte. Mikel Anduetza apaiz bergararrak urte mordoa darama han lanean eta laguntza jasotzeko Oscar Romero Solidaritate Batzordeak hiru kontu dituela gogoratu nahi izan digu: Kutxan (2101 0001 14 0004048278); Euskadiko Kutxan (3035 0059 81 0590021346); eta Banco Guipuzcoanon (0042 4161 31 0001037408).

'Zer gertatzen da Iruña-Veleian?' hitzaldia Juan Martin Elexpururen eskutik astelehenean Irizarren

Jardunek antolatuta, Juan Martin Elexpuruk *Zer gertatzen da Iruña-Veleian?* hitzaldia egingo du astelehenean, hilaren 14an, Irizar jauregian, 19:00etan. Iruña-Veleiako adituen batzordeak erabaki zuen aurkikuntzak faltsuak direla, baina kontu hori argitu gabe dagoela eta argitzeko eskatzen dutenen ahotsa (Elexpururena tartean) sendo entzun da aspaldian.

Euskarazko liburuen truke azokarako bilketa egiten hasi dira Jardunen; azaro bukaeran izango da

Jardunek euskarazko liburuen truke azoka antolatu du azaroaren 25erako eta 26rako, San Martin plazan. Euskarazko irakurketa bultzatzea eta liburuen berrerabilpena sustatzea dira helburuak. Azokarako liburu bilketa hilaren 24ra arte egingo dute Jardunen, kultura etxean. Argibideak bertan, 943 76 36 61 telefonoan.

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika

gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

CLINICA DENTAL

BERGARA

Bidekurutzeta 36 behea
20570 **BERGARA**
Tel.: 943 76 05 77

ZERBITZU INTEGRALA

Behar duzun espezialitatearen
araberako lantalde profesionala.

- Odontologia orokorra
- Protesiak
- Inplanteak
- Endodontzia

- Hortz-estetika
- Ortodontzia (Doako azterketa)
- Periodontzia

ESTREINATU IRRIBARREA

Inplante tratamendua:

- Azterketa eta aurrekontua doan.
- Inplante unitario osoa, gehienezko prezioa 112 €/ hilabeteko*

* Urte baterako finantzaketa

ASEGURUAK
DKV / Previa • Aegon • Mapfre • Sanitas
Adeslas / IMQ / Iquimesa • Santa Lucia
Previsora Bilbaina • Ocaso

Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetza programara

Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!

RPS 99/94

"Zailena egin ondoren ez genuen azken pausoa eman"

Soraluce BKEk gol baten aldeagatik galdu zuen; bihar zaila izango da Gasteizen etekina ateratzea

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Soraluce BKE eskubaloitako taldeak ligako talde onenetakoa den El Pilar taldearen kontra jokatu du asteburuan: "Gainera, euren kanta ilun horretan jokatu beharko dugu, kobazuloan", dio Josetxo Muniategik, umorez. "Erreferente garbi bat daukate, eta jokalar hori gertutik zaintzen asmatzen badugu gure aukerak izango ditugu, baina oso nekeza izango da".

Joan den asteko partiduen gainean berba eginda, baina, umorerako tarte txikiagoa gertatu da: "Pena izan zen, lehenengo hamabost minutu negargarri egin ostean (2-9) partiduari buelta emateko gauza izan ginelako, markagailuan parean jarrita". Soraluce BKE taldeari, baina, azken pausoa ematea falta izan zitzaion: "Bazirudien minutu txar horiek gairuditu ostean eurek behera egingo zutela eta guk gora egingo genuela poliki-poliki. Baina ez ginen markagailuan behin ere aurretik jartzeko kapaz izan.



Romoren kontrako partiduko irudia. | X.U.

Guretako erreferente diren bi jokalar falta zitzaizkigun, jokalariek nekatuta zeuden... Pena da, garaipena gertu izan genuelako".

Derbia saskibaloian

Bestetik, Soraluce BKE taldeak, saskibaloioak, derbia jokatu du gaur, egubakoitza, Arrasateko

MU taldearen kontra (20:00, Iturri). Kategoriaz igo berri diren Jon Beistegiren mutilek tarte txikiagatik galdu zuten joan den astean etxean (60-62), sailkapenean bosgarren dagoen Santo Tomas Lizeoaren kontra eta puntu bakoitzeko aldea duten arrasatearren kantzana nahi dute ligako laugarren garaipena lortu.



Shotokaneko karatekak, Azkoitian egindako txapelketan. | SHOTOKAN

Shotokan taldekoak Euskadiko txapelketarako sailkatu dira

X.U. | BERGARA

Joan den asteburuan Azkoitian egin zuten Gipuzkoako karate txapelketa, kadete, gazte eta 21 urtez azpikoen kategorietan, eta txapelketak balio zuen oraingo asteburuan Gasteizen egingo duten Euskadikarako sailkatzeko.

Gipuzkoako txapeldunak

Shotokaneko hainbat karateka izan ziren txapelketan, eta lau ordezkari sailkatu dira Euskadiko txapelketarako; eta ez dira edozein modutan sailkatu, lau ordezkarietako bi Gipuzkoako txapeldun izan dira-eta.

Gizonezkoetan, Josu Zalakainek 70 kilotik gorako mailan hartu zuen parte eta lehena izan zen. Emaizta bera lortu zuen Andoni Muxika taldekideak, urrezko domina, 52 urtez azpikoen kategorian. Eta maila berean Jon Barragan bigarren sailkatu zen, zilarrezko domina irabazita.

Bada, Euskadiko txapelketan Shotokanek emakumezkoen mailan ere izango du ordezkari, Azkoitian 54 kilo baino gehiagoko mailan Irati Rodriguez podiumera igo zen-eta, hirugarren eginda. Domekan izango dute hurrengo hitzordua, Gasteizen, 10:00etan.

Gazte mailako taldeak lider jarraitzen du

Zortzi jardunalditan jarraian irabazi eta gero -eta gol bakarra jaso- ohorezko gazte mailako Bergarak duela 15 egun erakutsi zuen haragizkoa dela eta partidu bat gal dezakeela. Eta behin galtzen hasita, hori ere ondo egin zuten, Amaiak Bat taldeak 3-0 menderatu zuen-eta Manu Diazen taldea. Baina mahoneroak berehala erreuperatu dira, eta, Deban gertatutakoa despistetxoa izan zela erakusteko, joan den asteburuan 2-0 irabazi zioten Aurrerari. Lider jarraitzen dute, 6 puntuko aldearekin, eta asteburuan Euskalduna izango dute aurrean.

Madrilgo mendietatik Bizkai aldera

Domu Santuko zubian Madrilgo mendietan ibili ziren Pol-Poleko lagunak: Navacerrada, Abantos, Guadarrama, El Escorial, Peñalara... Ondo aprobetxatutako egunak izan ziren. Azaroaren 20an, berriz, urteko azken irteera egingo dute, Bizkaira. Balmasedan hasiko dute mendi zeharkaldia eta Karrantzan bazkalduko dute.



JUAN MARI SASIGAIN

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

'Gaztañatan azaroa' programaren barruan Mikel Urdangarin gaur

Osintxuko bizilagunek hil osoko egitaraua prestatu dute: domekan, esaterako, pailazoak egongo dira

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA
Mikel Urdangarin bakarlariak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean, Txuringon. Osintxuko auzotarrek antolatutako *Gaztañatan azaroa* egitarauaren barruan antolatu dute emanaldia.

Euskal kantagintzak azken urteotan eman duen izenik garrantzitsuenetakoa dugu zornotzarra.

'Zubia' azken lana

Urdangarinek *Zubia* azken lana aurkeztuko du gaur gauean. Hamar abestiz osatutako lana da, eta, besteak beste, Unai Iturriaga, Karmele Jaio eta Kirmen Uribe lagunen laguntza izan du letrak eta musikak idazteko.

Haitzetan Urdangarinaren estreinako lana izan zen, gitarraz eta txeloz jantzitako doinuak, ahotsa ardatz zela. Ordutik hona, beste



Mikel Urdangarin zornotzarra. | GOIENA

bederatzi lan argitaratu ditu *–Zubia* diskoa barne.

Domekan pailazoak

Bestalde, haurrendako ikuskizuna eskainiko dute Poxpolo eta Konpainiak etzi, domeka, 17:30ean.

Lan berria estreinatuko dute; frontoian izango da emanaldia.

Hil osorako egitaraua prestatu dute Osintxun. Datorren astean zinema emanaldia eta Arimen Eguna ospatuko dute: gaztaina-jana eta sagardoa.

Dantzaldi irekia egingo dute etzi, domekan, Zabalotegi aretoan, Patxi Monteroren eskutik

Herrixa dantzan dantzaldi irekia egingo dute berriro ere etzi, domekan. Betiko moduan, Patxi Monteroren gidaritzapean egingo dute dantza, arratsaldeko seietan hasita, Zabalotegin, eta sarrera debalde izango da. Hain zuzen ere, 18:00etan haur eta gurasoendako dantzak egingo dituzte eta 19:00etan, helduendako dantzak, batez ere.

Musika Bandak Santa Zezilia eguna ospatuko du etzi, domekan, meza, kalejira eta kontzertua eginda

Santa Zezilia eguna azaroaren 22an bada ere, etzi, domeka, ospatuko dute Bergarako Udal Musika Bandakoek. 09:00etan meza izango dute, moja zaharren elizan; 10:30ean kalejira eta 12:30ean kontzertua: *Kalez kale musikaz*, *El lago de los cisnes*, *Kyrill*, *Vivo per lei*, *Dixieland bash* eta *Begin the beguine* lanak eskainiko dituzte. Gero, bazkari goxoa izango dute.

'Come, reza, ama' filma eskainiko dute datorren eguaztenean, hilaren 16an, 20:30ean, zineklubean

2010ean Ryan Murphyk zuzendutako filma da *Come, reza, ama*. Julia Roberts eta Javier Bardem dira protagonistak. Emakume baten istorioa kontatzen du filmak, dibortziatu ondoren Italia, India, Bali eta Indonesiara egiten duen bidaia oinarri hartuta. Elizabeth Gilbert idazlearen liburuan oinarrituta dago lana. Zinekluba hilaren 16an izango da, 20:30ean, Zabalotegin.

Luis Laskurainek azken 10 urteotako lana jarri du ikusgai Aroztegi aretoan, 22 margolan erakutsita

Joan den egubakoitzean ireki zuten erakusketa eta hilaren 27ra arte egongo da ikusgai. Luis Laskurainek 22 olio jarri ditu Aroztegin, azken 10 urteotako lana erakusten duten margolanak. Gainera, margolan bakoitzak Andoni Salmeronen testu idatzi bat dauka, ikusleak gogoetara bideratzeko asmoz.

GAZTAINERRE

egun!!!

"Gaztainerre eguna"
Azaroaren 11n ospatuko dugu Eskolan

16:00etan
ikasle eta irakasleok patioan elkartuko gara gaztainak jateko.

16:30ean, gure senitartekoek
ere izango dute aukera gurekin gaztainak jateko.

Alpinismoa eta muturreko eskia mendi hamabostaldian

Aloña Mendi elkarteak antolatuta hilaren 15etik 23ra egingo dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi elkarteak indartsu hasi du azaroa. Mendi hamabostaldia egingo dute hilaren 15etik 23ra: lau ikus-entzunezko eta, zineklub emanaldian, Danny Boyleren *127 horas* pelikula eskainiko dituzte (ikus beheko taula). Guztiak kultura etxeko zinema-aretoan egingo dituzte.

Aurten muturreko eskia, alpinismoa eta eskalada izango dira protagonistak, besteak beste. Edo, hobe esanda, kirol horiek egiten dituzten pertsonak: Alex Txikon, Fidel Mendia, Antxon Iturritza eta Mikel Saez.

Txikon eta Mendia

Mendi hamabostaldia Alex Txikon hasiko du hilaren 15ean. *Al filo de lo imposible* telebistako saioan kameralari lanak egin eta Edurne Pasabanekin *14x8.000* proiektuan parte hartu ondoren, ibilbide propioa hasi du. Oñatin egingo duen emanaldian Makaluko ertzetik egindako igoerak eta Gashembrun Iera egindako saiakerak erakutsiko ditu.

Bigarren protagonista Fidel Mendia izango da, hilaren 16an. Yosemite, Alpeetan, Kaukason eta Himalaian eskalatu izan du, baina azken urteotan muturreko eskian espezialdu da. Gainera, argazkilari trebea da. Egin dituen jaitsierak erakutsiko ditu eta arriskutsuak diren jaitsierak berme osoz egin ahal izateko aholkuak emango ditu.

Alpeak eta eskalada

Antxon Iturritza kazetariak Alpeen inguruko ikus-entzunezkoa egingo du hilaren 22an. Europako natura-erreserba horren gaineko sekretuak kontatuko ditu. Alpeak "denondako" leku aproposak direla azalduko du.

Azkenik, hilaren 23an, Mikel Saiz ordiziarrek eta Ivan Urtzelai oñatiarrak Kanadako Mount Hunterren eta Pirinioetan egindako eskalada saioak erakutsiko dituzte.



Mikel Saez ordiziarra paretan eskalada egiten. *Negu giroko eskalada* delako ikus-entzunezkoa eskainiko du. | IVAN URTZELAI

IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDIK

AZAROAK 15

19:30 Alex Txikon.

Makaluko ertza eta Gl neguan

AZAROAK 16

19:30 Fidel Mendia.

Muturreko eskia Pirinioetan

AZAROAK 22

19:30 Antxon Iturritza.

Alpeak denontzat

AZAROAK 23

19:30 Mikel Saez.

Negu giroko eskalada

ZINEKLUB EMANALDIA

AZAROAK 17

20:00 *127 horas*.



lazio sarituetako bat: *Desindustrializazioa* argazkia. | JOKIN ASTIGARRAGA

Mendia eta Natura argazki lehiaketa

Aloña Mendiko mendi sailak VIII. Mendia eta Natura argazki lehiaketaren deialdia egin du. Interesatuak hilaren 20a baino lehen aurkeztu behar dituzte lanak. Informazio gehiago www.concursosdigitales.com atarian dago. Epaimahaiak 44 erretratu aukeratuko ditu eta horien artean erabakiko dituzte irabazleak: *Mendia eta natura* ataleko onena, *Salaketa* ataleko onena, bi atal horietan oñatiarrek egindako onenak eta mendiko aktibitatea islatzen duen onena. Saridunak abenduaren 9an jakinaraziko dituzte.

Hausnarketarako tailerrak egingo ditu herriko Zero Zabor taldeak

M.B. | OÑATI

Oñatiko Zero Zabor taldeak hainbat ikastaro-tailer egingo ditu aurrerantzean: *Economía circular* hilaren 16an eta *Consumo en la era capitalista*, *Principios de Sostenibilidad* eta *Libre comercio y sostenibilidad* aurrerago. Roberto Bermejo ekonomialariaren liburuetan oinarritu dituzte.

Ikastaro-tailerrak irekiak dira eta interesa duen edonork parte har dezake, kultura etxean, 18:30ean.

Erabiliko duten metodologia haxe izango da: Roberto Bermejoren liburuaren pasarte batzuk ozen irakurriko dituzte; parrafo bakoitza irakurri ondoren iritzia emateko aukera izango du ira-

kurleak. Segidan, guztien artean eztabaidatuko dute. "Helburu nagusia ikastea da. Guztion artean kontzeptu eta datu batzuk barneratu gurako genituzke eta irten daitezkeen interpretazioak elkarrekin kontrastatu, eztabaida sanoa eginda", diote Zero Zabor taldeko kideek.

Irakurri eta hausnartu

Parte-hartzaileak mahaiaren bueltan jarriko dira eta guztiek izango dute pasarteak irakurtzeko aukera eta iritzia emateko esku-

bidea. Dena den, irakurri edo iritzia eman gura ez dutenak ere onartuko dituzte ikastaro-tailerraren. Testuak gaztelaniaz irakurriko dituzte, baina iritzia eta hausnarketa euskaraz egingo dituzte.

EHuko irakaslea

Roberto Bermejo EHuko irakaslea da eta Bakeaz elkartearen ekonomia iraunkor saileko kidea. Hainbat liburu idatzi ditu eta horiek hartuko dituzte oinarri moduan Oñatin.

194 herritar 'Aurrekontuak herri-jorran' egitasmoan

M.B. | OÑATI

Aurrekontuak herri-jorran egitasmoan 11 bilera ireki egin ditu Udal Gobernuak, batzorde bakoitzeko bat. Guztira, 194 lagunek parte hartu dute 2012ko aurrekontuak prestatzen laguntzeko egindako batzarretan.

Herritar gehien batu dituen batzarra Auzoak batzordeak egindakoa da: 30 lagun egon ziren. Atzetik geratu dira: Gaztedia 27rekin, Euskara, Ingurumena eta Kultura 22arekin eta Kirola 20rekin. Ongizate batzarrean 14 lagun egon ziren, Sozioekonomian, Berdintasunean eta Parte-hartzean hamarna eta Hirigintzan zazpi.

Gustura daude udal ordezkariak: "Halako prozesua martxan ipintzen dugun lehen aldia izanda, oso gustura gaude herritarrek emandako erantzunarekin".

Aurrekontuak hilaren 24an

Egitasmoan parte hartu duten herritarrek eta EAJk asteon jaso dute batzarretan landu zutenaren laburpena eta sail bakoitzaren aurrekontu proposamena. Bestalde, www.herri-jorran.info atarian ipini dute informazio gehiago.

Hilaren 18ra arte zirriborroei zuzenketak egiteko aukera izango dute. Udalbatzaren asmoa da hilaren 24an egingo duten osokoan 2012rako aurrekontuak onartzea.

OHARRAK

DEIALDIA

1967ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 12an Soraluze hotelean. 19:00etan elkartuko dira plazan, eta, poteoa egin ondoren, afaltzera joango dira elkarrekin. Interesatuak azaroaren 11 baino lehen eman behar dute izena. 35 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0005 35 0051045540 zenbakian.

DEIALDIA

Odol-ateratzea egingo dute gaur Txantxiku Ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Urteko azken ateratzea abenduaren 9an egingo dute.

HITZALDIK

Joku kooperatiboak familian delako hitzaldia egingo dute Elkar Hezi ikastetxean hilaren 17an eta abenduaren 1ean, 18:30ean. Bestalde, hilaren 24an *Seme-alaben harremanak: arriskuak eta joerak* hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonsok, 18:30ean.

Komikigintzaren trikimailuak Pernan Goñirekin

M.B. | OÑATI
Pernan Goñi oñatiarrak komigintzari buruzko tailerra egingo du haur liburutegian gaur, 18:00etan, 8 urtetik gorako umeendako. "Marraztu eta ondo pasatzeko asmoa daukat herriko neska-mutikoekin", esan digu Pernan Goñik.
Bi orduko tailerra izango da, praktikoa. Parte-hartzaileek duten adinaren arabera askotariko marrazkiak egingo dituzte. Oinarrizko marrazkiekin hasiko dira; adibidez, aurpegiak marrazten, eta poliki-poliki marrazkia osatzen joango dira. Parte-hartzaileek foliotan marraztuko dute eta Goñik arbelean. "Tailer trinkoa izango da. Eten-gabe marrazten egongo gara. Nire asmoa da umeak nekatzea", dio Goñik.

Zirriborroetatik hasita
Komigintzaren trikimailuak azalduko dizkie umeei. "Marrazkigintza ez da marrazki onak egitea bakarrik. Marrazki guztiak zirriborroetatik hasten ditugu. Zirriborroak marrazkiak dira. Marrazkilari trebeek bakarrik egiten dute bidea. Besteak estimulatu gura ditut".



Arratoitxo pinpirina eta bere lagunak dantzan. | GLU-GLU

Soinekoak eta zapatak maite dituen arratoitxoaren abenturak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Udaleko Kultura Sailak antolatuta antzerkia egingo du Glu-Glu taldeak domekan Santa Ana antzokian: *Arratoitxo pinpirina*. Galder Perezek idatzi eta zuzendu duen lana 3-9 urte arteko umeendako da.
Sarrerak salgai daude bi lekutan, 3,5 eurotan: kultura etxean eros daitezke gaur arratsaldean (16:30-20:30) eta bihar goizean (10:00-13:30) eta Santa Anako lehiatilan, domekan.

Urrezko txanponari esker...
Arratoitxo pinpirina antzezlan musikatua da. Alegia, dantzak,

kantuak eta komedia uztartzen ditu. Soinekoak eta zapatak maite dituen arratoitxoaren istorioa kontatzen dute. Hori horrela, urrezko txanpona topatzen duenean, amets guztiak beteko ditu: koloretako zapata eta soineko pila erosiko ditu diruarekin. Baina txanponak bere alde txarra ere izango du: izaki maltzurak erakarriko ditu. Lan handia izango dute arratoitxo pinpirinak eta bere bi lagunek izaki maltzurak garaitzen.
Leire Ucha, Ugaitz Alegria eta Gabriel Ocina aktoreak igoko dira taula gainera.

BETERANUAK

EMAITZAK "A" TALDEA

Nandrolona-Etxaizat	0-1
Txarrixak-Albok	1-6

SAILKAPENA "A" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Albok	6	2
2 Etxaizat	4	1
3 Kalafiatasaray	3	1
4 Txarrixak	3	2
5 Dollygans	1	1
6 Txuskos	0	0
7 Lozoromo	0	1
8 Paketinaikos	0	1
9 Nandrolona	0	2

SAILKAPENA "B" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Joxely	3	1
2 Bundeswehr	3	1
3 Indar 85	1	1
4 Sasquatch	1	1
5 Zorrobero	0	1
6 Ankarteko	0	1
7 The Gibel Boys	-	-
8 Xaguxar	-	-

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

2. JARDUNALDIA

Zaputia 13:00 Zorrobero-The Gibel Boys

Zaputia 14:30 Joxely-Xaguxar

Zaputia 16:00 Ankarteko-Indar 85

Zaputia 17:30 Bundeswehr-Sasquatch

Zaputia 19:00 Dollygans-Kalafiatasaray

Zaputia 20:30 Lozoromo-Txuskos

Napoka Iria bikotearen kontzertua gaur Antton tabernan

Napoka Iria bikoteak kontzertua egingo du domekan Antton tabernan 19:30ean. Ander Muxikak eta Miren Narbaitzak osatzen dute taldea; *Lehertarazi edifizioak* diskoa aurkeztuko dute.

Bergarako Zabalotegi aretoan zuzenean grabatu zuten diskoa eta hango hamar kantu eskainiko dituzte gaurko zuzenekoan. Gitarra elektriko bat, gitarra akustiko bat eta ahotsa erabiliko dituzte entzu-leengana heltzeko.

Debara irteera: izen-ematea hilaren 16ra arte topalekuan

Debara egun osoko irteera antolatu du topalekuak hilaren 25erako: goizean Debako trenbide zaharrean ibilalditxoa egingo dute eta arratsaldean Lasturrera joango dira *paintball*-ean egitera. Interesatuak izena eman behar dute gaztelekuan hilaren 16a baino lehen. Gurasoen edo ardura-dunaren baimena erakutsi beharko dute.

Irteeran parte hartzen dutenek aldatzeko arropak eta botak eta bazkaria eroan beharko dituzte.



41
urte
elkarrekin
1970-2011

LIKIDAZIOA!

Likidazioa lekualdaketagatik

SANTA MARINA 3

- Sukaldeko eta bainuko altzariak
- Sanitarioak
- Sukaldeko eta bainuko osagarriak

Likidazioa obragatik

EUSKADI ETORBIDEA 3

- Etxeko altzariak eta lagungarriak
- Argiztapena
- Oparitzeko gauzak

Anima zaitetz!

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Aretxabaleta Abesbatzako kideak iaz Arkupen, 30. urteurreneko ekitaldian. | M.A.

Abesbatza Madrilera doa gaur Otañoren omenezko kontzertua eskaintzera

Arte Ederretako San Fernando errege-akademiako aretoan da kontzertua

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gaur, hilak 11, kontzertua eskainiko du Aretxabaleta Abesbatzak Madrilgo Arte Ederretako San Fernando errege-akademiako aretoan. Nemesio Otaño (Azkoitia, 1880-Donostia, 1956) jesuitaren omenezko kontzertua da, erakunde horretako akademiko izan zelako musikari azkoitiarra.

Hirugarren euskal abesbatza

Abesbatzako kideek jakinarazi dute Euskal Herriko hirugarren korua izango dela abesbatza aretxabaletarra akademia horretan "parte hartzeko ohorea" izango duena, Donostiako Orfeoiaren eta Bilboko Koral Elkartearen atzetik: "Eta hori harro egoteko modukoa da, ez Aretxabaleta Abesbatza-arentzat bakarrik, baita gure herri osoarentzat ere".

Nemesio Otañoren omenezko ekitaldia 19:30ean hasiko da gaur. Ismael Fernandez de la Cuesta, Alfonso Rodriguez Gutierrez de Ceballos eta Ramon Gonzalez de Amezua akademikoek hartuko

dute parte, eta, bukatzeko, Aretxabaleta Abesbatzak Otañoren hainbat lan interpretatuko ditu; besteak beste, *Velum templi*; *Lagun Zaiguzu*; *O Sacrum Convivium*; eta *Ave Maria*. Angel Barandiaranek zuzenduko du abesbatza, ohi legez; bakarlaria Mariatzen Urkia izango da eta organo-jotzailea, Jose Luis Franzesena azpeitiarra.

Ekitaldiaren ostean, Aretxabaleta Abesbatzako lehendakari Javier Zalañak oroigarria eman dio akademiako lehendakariari, Antonio Bonet Correari.

Zeresan handiko musikaria

Iaz grabatu zuen diskoa abesbatzak Otañoren abestiekin. Loiolako jesuitekin elkarlanean Azkoitiko organo-jotzaile eta konposatzaile handia omendu gura izan zuten *Nemesio Otañoren omenez* diskoarekin.

Zeresan handia izan zuen musikan Otañok: batetik, musika sakratuaren erreformatzaile izan zen 1907 eta 1919 artean; bestetik, Madrilgo musika kontserbatorio-ko erreformatzaile eta musika ikasketen berrantolatzaile, 1939 eta 1950 artean.

Sabino Arana sarietarako hautagai

Bestalde, Aretxabaleta Abesbatza Sabino Arana Fundazioak banatuko dituen 2011ko sarietarako hautagai da, beste 40ekin batera. "Jakin badakigu zaila izango dela gu aukeratzea, baina hautagaien zerrendan egote hutsa harro egoteko modukoa iruditzen zaigu Aretxabaleta Abesbatzako kide guztioi, eta abesbatzen zeregin zail bezain aberasgarrian are gogotsuago lanean jarraitzea bultzatzen gaitu", jakinarazi dute zuzendaritza batzordeko kideek.

Argindar kablea lapurtu zuten joan den astean futbol zelaian

M.A. | ARETXABALETA

Joan den eguenetik egubakoitzera bitartean lapurtu zuten kablea Ibarra, eta, ondorioz, futbol zelaia alde bat argi barik geratu zen. Hori horrela, Aretxabaleta Kirol Elkartek aste bukaerako hainbat partidu aurreratzea erabaki zuen.

Aretxabaleta Kirol Elkarteko arduradunen buruhaustea izan da futbol zelaia zelan argiztatu asteko entrenamendu saioetarako. Izan ere, 17:00etan hasi eta 21:00ak inguru arte izaten dira egunero entrenamenduak, eta orain goiz iluntzen du. Hori horrela, Bergarako enpresa batekin harremanetan jarri zen astelehenean UDA, eta argindar

sorgailua errentan hartu zuen futbol zelaia ondo argiztatu ahal izateko.

Konpontzea erabaki

Ibarra futbol zelaia Aretxabaletako Udalarena da eta astelehenean egindako Gobernu Batzordean erabaki zuten kable berria jartzea. Onartutako aurrekontua 4.000 euro pasatxo da, baina, aseguru polizak lapurretarik estaltzen ez duenez, bere gain hartuko du gastua Udalak.

Domekarako konponduta egotea gurako lukete bai Udalak, bai UDAk; hala izan ezean, aldatetako egingo dituzte asteburuko partiduen ordutegietan.

Abenduan zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko izen-ematea zabalik dago

Abendua eta Gabonak gertu daudela jakinik, adinekoak zaharren egoitzetara aldi baterako eroateko izen-ematea zabaldu dute. Udaleko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi dute abenduko lehen hamabostaldirako eta hilabete osorako egonaldirako eskaera epea azaroaren 18an bukatuko dela. Abenduko bigarren hamabostaldirako eskaera epea, oster, hilaren 28an bukatuko da.

Eskaera kopurua plaza kopurua baino handiagoa izanez gero, lehentasuna emango diete urtean zehar egonaldirik egin ez dutenei. Argibide gehiagorako eta eskaerak egiteko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegora jo behar da.

OHARRAK

MAITE FRANKOREN IPUIN KONTAKETA

Bizar urdin eta beste gaiztotxo batzuen hamaika ipuin kontaketa egingo du Frankok 4 urtetik aurrerako umeendako bihar, liburutegian (11:30). Sarrera debalde da.

URTEAN HILDAKOEN ALDEKO MEZA

Astelehenean, hilak 14, aurten hildako aretxabaletarren aldeko meza esango dute parrokiaren (19:00).

METAL KONTZERTUA

Leizarra musika eskolako metal-instrumentuen ikasleek emandakoa egingo dute hilaren 15ean, martitzena, Arkupen (18:00).

ZINE KLUBA

En un mundo mejor filma eman dute hilaren 17an Arkupen (19:30). Sarrera 4 euro da.

SMS LEHIAKETA

12 eta 18 urte arteko edozeinek har dezake parte eta maitasuneko mezu bat bidali beharko da poltsikoko telefonoarekin: MAITASUNA (tarte) maitasun mezua, 215800 zenbakira. Azken eguna hilaren 17a da. Saria: HTC Wildfire telefonoa.

MURRUKIXOREN DEIA

Murrukixo MEk jakinarazi du federatze kontuetan aldaketak egiteko epea zabalik dagoela. Martitzenetan (19:00-20:00) egoitzan (943 79 93 74) edo murrukixo@euskalerrria.org helbidean.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79



Udal ordezkariak, hainbat erabilera izango dituen kiroldegiko aretoan. | M.A.

Kiroldegiaren gaineko parte-hartze saioa bihar

Arkupen da eta herritar guztiei dago zabalik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kiroldegi berriaren nondik nora-koen berri eman eta herritarren iritzia jasotzen dabil egunotan Udala. Bihar, zapatua, parte-hartze saioa egingo dute Arkupen (11:00-13:00), kiroldegiaren gaineko iritzia eta iradokizunak jasotzeko asmoarekin.

Kuota "ez hain garestia"

Martitzenean argitu zituen kiroldegiaren gaineko kontuak Ana Bolinaga alkateak, Arkupen. 15 bat lagun elkartu ziren eta galderak egiteko tartea ere izan zuten. Kiroldegiaren kudeaketa enpresa baten eskuetan utziko dutela argitu zuen, kostu ekono-

mikoa ez dutelako "gehiago handitu gura". Kuoten gainean esan zuen Eskoriatzakoak eta Arrasatekoak baino garestiagoak izango direla, "baina ez herritarren artean esaten dabilzan bezain garestiak". Trukean beste kiroldegi batzuk eskaintzen ez dituzten zerbitzuak izango dituela gaineratu zuen, eta "kiroldegi erosoak eta instalazio modernoak" dituen izango dela.

Era berean, urtarril bukararako zabaldu gurako luketela berretsi zuen.

Kirol elkarteetako ordezkariak

Bihar, zapatua, parte-hartze saioa egingo dute. Herriko kirol elkarteetako ordezkariak daude deituta, eta gura duten kirol zale eta herritarrak ere joan ahal izango dira Arkupera. Lehenengo, kiroldegiaren gaineko inkestatxo bat beteko dute saiora doazenek, eta ondoren, taldeetan banatuta iritzia eman eta iradokizunak egingo dituzte.

Bestalde, gaur bukatuko da kiroldegiaren izena hautatzeko lehiaketa. Proposamenak udaltxera edo Arkupera bideratu behar dira. Saria 50 euroko bonua da M5 kirol-dendan erabiltzeko.

TXALOAK ETA TXISTUAK



MIRARI ALTUBE

Edukiontzia leku txarrean jarrita



Murubide auzoko bizilagun batek jakinarazi du zaborraren edukiontzia ez dagoela batere ondo kokatuta "garajeetatik ateratzen diren autoetako gidarien ikuspena eragozten duelako". Eta gaineratu du: "Automobil eta autobusen zirkulazioak gora egin du inguru honetan zaharren egoitza eta etxe berrien eraginez, eta atzera aurrera handia egoten da. Hortaz, horren ardura duenak alda dezala edukiontzia lekuz guztion hobe beharrez".

Guraso elkarteak sortu gura dute "hazkuntzarako topaleku" izateko

Lehen bilera domekan egingo dute, udaletxe zaharrean 17:00etan; nornahiri irekia da

M.A. | ARETXABALETA

Elkarte berria sortzekotan dabilta ume txikiak dituzten herriko hainbat guraso. Etzi, hilak 13, egingo dute lehenengo bilera elkarrekin harremanetan jarri eta nondik jo adosteko; udaletxe zaharreko lehen solairuan da hitzordua (17:00). Bilera irekia izango da eta interesa duen edonor joan ahal izango da.

Umeekin joateko lokala

"Haurren hazkuntza eta hezkuntzari lotutako gogoetak eta kezak elkartrukatzeko bilgune izatea" da guraso elkarte horren helburua, hazkuntzarako topaleku bat, hain zuzen.

Domekako bileran zehaztuko dituzte elkartearen nondik norakoak, baina dei egin dutenek dagoeneko hainbat proposamen dituzte: batetik, ume txikiekin joan daitekeen lokal

bat izatea gurako lukete; eta bestetik, biltegi bat. Gauzak gordetzeko erabiliko lukete lokal hori, eta, gero, mailegu zerbitzua eskaini bertatik: liburuak, sehaskak, arropak, aulkiak...

Denboraren bankua ere antolatu gurako lukete; hau da, haurra zaintzeko denbora trukatzeko elkarren artean.

Formazio ekintzak

Hazkuntza taldea sortzea ere helburuen artean dute. Bi talde osatzea aipatu dute: 0 eta 3 urte arteko umeak dituzten gurasoena eta 3 eta 6 artekoak dituztenena. "Guraso talde horiek hilean behin elkartuko dira dinamizatzailer edo hezitzaile batekin, eta hainbat gai landuko dituzte", diote. Hala, hitzaldiak eta tailerrak antolatzea da asmoa; baita gurasoek haurrekin batera egitekoak diren ekintzak ere.

NIRE USTEZ

NURIA FERNANDEZ DE ARROIA BE



Gure berbetan lotsatu barik

Apur bat ernegau eragiten dust honek gaixonek, behin baiño gehixagotan ikutu nauelako.

Bertako euskertia moldez ibiltten dakixien umiai lotsia emuten dotsie, sarritan, etxetik daruen berbeta jatorra ebaltia, lagunak barre egitten dotsielako edo helduren batek, hoba biherrez segurutik, zuzendu egitten dittelako.

Adibidez, alaba zaharrena, umiagua zala eta artien gaztien berbeta hibridua ebaltzen ez auela, etorri jaten behin esaten, lagunak tripak botaten zittuie-la berak "baita zea be" eta halako esakunak ibiltten zittuenien. Badakitzue, gaur egunien,

"no flipes" eta parekuak ebaltten dittue (helduek be bai), eta, gaitzerdi, bestelakuoi barrerik egingo ez balutsie.

Beste behin, ume batek hola-ko zeezer esan eutsen beste bati: "Lehen ulixek esan dust lurrien jarteko. Ez daki, itxuria, lurrien eseri esan biher dala". Hala-kuetan, dudarik barik, maisu-maistrok mesede edo kalte ikeragarria egin zeinkie, daukutzen jokabidia zein dan.


Horrekin lotuta, zela arraixo esan geinke bentania, eskribidu, bakaziño eta halako berbak, sekulako erderakadak badie (askori entzun izen dotsietenez)? Ba... ez jauna, ez die erderakadak, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuen bertan be jasota dauz eta.

Bestelako jokera bat be somau dot. Hemengo berbetia zakarregixa danez, itxuria, berba barriak asmetan dittugu: gehiau, adibidez, gipuzkerako gehio fiñagora gerturatu guran edo.

Lagunok, geure aittajaun-amandrak erregalautako berbetia ibilli daigun lotsatu barik.

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKI^{GRAF}
inprimategia

jai egitaruak
kartelak
gonbidapenak
tarjetak
aldizkariak
inpresoak
errekordatorioak
liburuxkak

Parte-hartze ekitaldi zabala egingo dute bihar

Ekimena 10:00etan hasiko da, eta 13:00etan amaitu

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Eskohitza ekimenaren barruan herri osoari begira egingo den batzar orokor bakarra bihar izango da, 10:00etan, kiroldegian. Orain arteko bileretan egondako parte-hartzea ikusita, azken hitzordu horretara ere herritar "asko" joango direla aurreratu du Beñat Herce alkateak.

Alorrez alor herrian hobetu, aldatu edota sor daitezkeen proiektuak proposatu eta eztabaidatu eta gero, bihar guztia bateratuko da. Guztira, bost bilera egin dira orain arte eta bilera bakoitzean alor bat jorratu dute herritarrek, Udaleko agintariekin batera.

Azaroaren 22an egingo den bilera kenduta, gainerakoak egin da daude. "Ondorioz, bihar aha-

lik eta alor gehienak jorratzen saiatuko gara".

Horretarako, bilera egiteko, *world coffe* metodologian oinarritu da Udala. "Izatez, metodologia hau datza askotariko gaiak jorratuko dituzten hainbat mahaitan herritarren iritzia biltzean. Guk herritar guztiak mahairik mahai ibiltzea zail ikusten genuen,

eta, ondorioz, hainbat mahaitan ahalik eta gai gehien jorratzearen alde egin dugu", dio Hercek.

Funtsean, bileran hiru galdera planteatuko dira: zer dago ondo herrian? Zer hobetu behar da? Eta zer falta da? "Lehenengo galderaren helburua ondo dagoen eta aldatu nahi ez den eta, ondorioz, mantendu egin behar dugun hori identifikatzea da. Beste galderen erantzuna begi bistakoa da".

Erantzunarekin "pozik"

Eskohitza ekimenaren helburua guztien artean urte berriari begira herriak behar duen proiektu bat gauzatzea da. "Guk datorren urteari begira zer edo zer pentsatuta eta prestatuta daukagu, baina herritarren iritzia zein den asko interesatzen zitzaigun, eta



Herritarrek, aurreko egunetan egindako bileretako baten. | ESKORIATZAKO UDALA

horregatik antolatu genuen ekimen hau".

Orain artekoak ikusita, Udala "oso pozik" dagoela dio alkateak. "Bilera guztietan egon dira herritarrek, eta asko, gainera. Horrekin, parte-hartzearekin, oso pozik gaude".

Biharko ekimenean parte hartzeko ere aurretik eman beharra dago izena. "Herritarrek kultura etxera deitu (943 71 46 88) edo komunikazioa@eskoriatza.

net helbidera idatzi beharko dute ekintzan parte hartzeko".

Oraingoz, biharko ekimenean parte hartzeko asmoa erakutsi duten herritarrek ez direla gutxi dio alkateak. Beraz, ekimen zabal hori ere arrakastatsua izango dela jakin eragin du Udalak.

Behin bilera guztiak amaituta, herritarrengandik jasotako iritzia bildu eta herrira begira ondorio orokorrak aterako ditu Udalak.

Orain arteko bileretan parte-hartzea handia izan dela dio Udalak



ASIER ALKORTA

Erretiratuen taberna, zabalik

Denbora batez itxita egon eta gero, atzo zabaldu zuten erretiratuen taberna. Azkenean, prozedura irekiaz esleitzeko prozesuak luze jo dezakeela ikusita, aldi baterako adjudikazioa egin du Udalak. "Gure ustez, urtarilera arte egongo da horrela. Gero, prozedura irekiaren arabera esleitu da". Bada, atzo bingo eta pintxo-poteo eguna izanik, herritar asko joan ziren tabernara.



ESKORIATZAKO UDALA

Ludotekako ekintzak arrakasta ari dira izaten

Joan den astean merienda egin zuten Eskoriatzako ludotekan eta ekintza "arrakastatsua" izan zela esan dute ludotekako arduradunek. Ekintza bazkide direnentzat eta ez direnentzat egin zen. Eta gaur jinkana egingo dute, 18:00etan; hura ere herriko ume guztiendako da. "Orain arteko ekintzak oso ondo ari dira iritien, eta horixe da gure helburua; izan ere, ludoteka guztiarentzat erakargarri egin nahi dugu".



Nagusiendako aldi baterako egonaldietan izena emateko epea zabaldu dute

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Urtero moduan, aurturten ere abendurako eta Gabonetarako aldi baterako egonaldiak antolatu ditu Udalak, nagusiendako. Izena emateko epeak zabalik daude.

Hamabost eguneko egonaldiak izango dira biak. Lehenengo hamabostaldian parte hartzeko, izena emateko epea zabalik dago hilaren 18ra arte. Bigarren hamabostaldi-

ra joateko, aldiz, azaroaren 28a da izena emateko azken eguna. Horretarako, interesatuak Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute, aurretik txanda hartuta.

Epez kanpoko eskaerak

Epez kanpo jasotzen diren eskaerei, berriz, leku libreak geratzen diren heinean emango zaie plaza.

Kontsumoari buruzko hitzaldia astelehenean Ibarraundin

Gabonak datozela eta, Ibarraundi museoak kontsumoari buruzko hitzaldia antolatu du astelehenerako. 18:30ean izango da, museoan bertan. Kontsumobideak egingo du hitzaldia, euskaraz. Iraupena ere zehaztu du museoak: 90 minutu. Parte hartzeko museora deitu edo idatzi behar da.

Aste bukaeraro ekintzak herriko gazte txokoan maiatzera bitartean

Izen-ematea zabalik dago eta liburutegian eman daiteke; 45 euro ordaindu behar da urteko kuota

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
Joan den zapatuan hasi zuten ikasturtea Antzuolako gazte txokoan eta gaztetxo ugari izan ziren bertan. Kanpoan egoteko baino barrurako eguraldi hobea egiten zuenez, adin askotariko neska-mutiko ugari batu ziren aste bukaeran. Irekiera arrakasta izan zela esan digu Idoia Ramirez de Okarizek, gazte txokoko koordinatzaileak.

Negu partean jende asko joaten dela esan digu Ramirez de Okarizek, baina, eguraldiak hobera egiten duenean, udaberri aldera, jende gutxiago joaten dela: "Eguraldia hobetzen hasten denean, martxo-apiril aldean, jendea gero eta gutxiago etortzen da".

Ekintzak asteburu guztietan
Iaz asteburu batzuk huts xamar gelditzen zirela eta, aurten aste bukaeraro ekintzak egingo dituzte: "Aprobetxatuz sukaldea dagoe la eta eskulanetan ere oso gustura ibiltzen direla, aste bukaera guztietarako antolatuko dugu zerbait. Horrez gain, gustatzen zaigu herrian egiten diren ekintzetan parte hartzea", esan digu Ramirez de Okarizek.

Bada, abenduaren 3an, adibidez, herrian egingo diren Euskararen Eguneko ospakizunetan parte hartuko dute. Zenbait pintxo egiteko asmoa dute herritarrei eskaintzeko, eta trikiti doinuekin alaituko dute herria. Gabonetan, berriz, Olenzero eta Mari Domingiri egiten



Gazte txokoko lau begirale eta koordinatzailea. | USOA AGIRRE

zaion ongietorrian parte hartuko dute.

Ekintzak begiraleen eta gaztetxoen artean antolatzen dituzte: "Zerbait egin behar denean gazteei kontsultatzen zaie, edo euren proposamenen artean aukeratzen da zer egin. Alde horretatik esan beharra dugu nahiko ekintzaileak direla. Aurreko aste bukaeran, adibidez, egin zituzten proposamenak", azaldu digu.

Izen-ematea zabalik
Izan ere, eguraldiaren eta antolatutako ekintzen arabera jende

gehiago edo gutxiago joaten da gazte txokora. Gaur egun 31 gaztetxo daude izena emanda eta aste bukaera guztietan 20 bat biltzen dira. Izen-ematea, baina, zabalik dago oraindik ere 12 eta 15 urte bitarteko gazteendako –DBHko 1. mailatik 3.era–; 45 euro da urteko kuota. Ramirez de Okarizek esan digunez, datozen bi asteetan emango dute izena falta direnek: "Hasieran jarri genuen epea izena emateko, baina oraindik ere eman daiteke; irekia da. Datozen pare bat asteetan izena emango dute falta diren gaztetxo guztiek.

Herritarren argazki lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna da gaur, egubakoitza

Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake lehiaketan eta gaur, egubakoitza, da lanak aurkezteko azken eguna. Gaia librea da eta argazkiak koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke. Hiru maila daude eta guztira 505 euro banatuko dira saritan. Azaroaren 26tik 27ra egingo da argazkien erakusketa Olanan; herritarrek onena aukeratu ahal izango dute.

Auzolanean etxe aurreko elurra kentzeko dei egin du Udalak; izen-ematea gaur arte dago zabalik

Joan den astean, elurteei aurre egiteko planaren inguruko bile-rak egin ziren udaletxean, eta Udaleko ordezkariak dei egin zuten elurra egiten duenean auzolanean garbi dezatela atari bakoitzeko bizilagunek atari aurrea. Horretarako materiala eskuratu behar du Udalak eta jakin nahi du zenbat atari dauden prest; gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna, udaletxean.

OHARRAK

FUTBOLA
Erregional preferente mailako taldeak bihar, zapatua, 16:00etan jokatu du Legazpin Ilintxa SDren kontra. Joan den astean 2-0 irabazi zion Antzuolako taldeak Soraluzeri eta orain bigarren dago sailkapenean, 17 punturekin. Lehen mailako kadeteek, berriz, atsedena dute 9. jardunaldian eta, horrenbestez, ez dute partidurik jokatu aste bukaera honetan. Joan den astean 0-4 galdu zuten etxean

Aloña Mendiren kontra eta orain azken-aurrekoak dira antzuolarrak.

ERRETIRATUEN LOTERIA
Bestalde, erretiratuen elkar-teak aurten ere Gabonetako Loteriako txartelak salduko ditu. Hain zuzen ere, datorren asteko eguaztenean eta egue-nean, azaroaren 16an eta 17an, salduko dituzte elkartean bertan, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Salgai daude Independentzia Eguneko bazkarirako txartelak

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
Azaroaren 19an, zapatua, ospatuko da Antzuolak Bergaratik independentzia lortu zueneko eguna. Urte askoan ospatu barik egon ostean iaz antolatu zuen berriz ere Independentzia Eguna Antzuolako Gazte Asanbladak, eta, aurten ere, ohiturari eutsi eta jaiegun aldarrikatzaila antolatzea pentsatu dute.

Independentzia Egunerako egun osoko egitaraua antolatu du Gazte Asanbladak: goizean, iazko tortilla lehiaketaren ordeztu pintxo lehiaketa egingo da eta *trikimonopatin poteua* egongo da ondoren, Antzuolako trikitilariarekin batera. Bazkariaren ostean jolasak egongo dira, txarangarekin alaituta. Gauean, berriz, kontzertuak izango dira: Enkore musika taldearena lehenengo eta erro-meria ondoren.

Bazkarirako txartelak
Bada, Independentzia Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude herriko hiru lekutan: Mox, Arin eta gaztetxean. Domeka, azaroaren 13a, izango da bazkarirako txartelak erosteko azken eguna.

Gazte Asanbladak dei egin du egunean bertan baserritar jantz daitezen Independentzia Eguneko ekintzetan parte hartzen dutenak.



Independentzia Eguna, iaz. | GOIENA



40 bat lagun Interneten gaineko hitzaldian

Pertsona nagusien artean Interneten erabilera normalizatzeko eta sareak eskaintzen dituen baliabideak erakusteko hitzaldia egin zuten eguaztenean erretiratuen elkartean. 40 bat lagun bildu ziren bertan eta adi-adi jarraitu zituzten Juan Ramon Zurututza hizlariaren azalpenak.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Bi herritarren lana hartuta, omenaldia protagonistei

Herriko ipuin eta kondairak azaldu dituzten aramaioarrak omenduko dituzte bihar

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Divina Arriolabengoak eta Arantza Ozaetak Aramaioko ipuin eta kondairen bilketa lan bi egin dituzte herriko zaharrenen baserrietara jo eta istorioak jasota.

Herriko ahozko literaturaren gordailu lanak egin dituzten edadetu aramaioar horietako asko apenas irten dira euren auzotik, eta, horregatik, ipuin eta legendek askotariko ezaugarriak dituzte. Lehen bilketan, 2000. urtean, Udalak emandako bekaren bidez errolda hartu eta 80 urtetik gorakoak elkarriketatu zituzten, parrokoaren gomendioei jarraiki. 2010eko bilketan, berriz, Eusko Ikaskuntzaren beka zutela –Jose Maria Velez de Mendizabali oso interesgarria iruditu zitzaizkion lana– senari eta herritarren gomendioei jarraitu zieten elkarriketak egiteko. Horrez gain, eurek ezagutzen zituzten gertuko adinekoekin ere egon ziren. Azken bilketa horretan 17 elkarriketa egin dituzte. 2000. urteko galdegiak prestatzeko Joxemiel Barandiaranek egindako etnografia lanetan ipuin eta kondairei zegozkien galderetan oinarritu ziren,



Divina Arriolabengoak eta Arantza Ozaeta, Aramaion, eguaztenean. | J.B.

eta CD baten jaso zuten lana –audioa bakarrik.

Iaz, aldiz, elkarriketatu gehienak ez ziren gai ipuinak hasieratik amaierara kontatzeko eta eguneroko bizitza, jolasak eta gerra garaiko bizipenak jaso zituzten, besteak beste.

Bihar, kultura etxean (12:00)

Berandu izan aurretik omenaldia egingo diete protagonistei: "Eske-rrak emateko gogoa genuen,

gizartean izan behar duten lekua aldarrikatu", azaldu du Arriolabengoak.

Udalak antolatu du omenaldia; bihar izango da, 12:00etan, kultura etxean. Arriolabengoak eta Ozaetak egindako elkarriketak jasoko dituzte opari protagonistek, eta luncha ere egongo da. Sorpresarik ere ez da faltako. Udalak nabarmendu du ekitaldi irekia dela eta aramaioar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera.

Batzar orokorra egingo du gaur Alaiak erretiratu elkarteak

Alaiak erretiratu elkarteak batzar orokorra egingo du gaur kultur etxeko aretoan. Bi deialdi daude, 16:30ean eta 17:00etan. Batzarrean, diru kontuak aztertu, zuzendaritza berria aukeratu, kuota eguneratu eta 2011-2012 ikasturterako plana zehaztuko dira, besteak beste.

Ibarrarako auzo-alkateak aukeratuko dira domekan, bozketaz eta iradokizunei zabalik

J.B. | ARRASATE

Ibarra auzorako bi alkate berri aukeratuko dira domekan: bate-tik, Ibargoia, Aita Gabriel Jaur-regi, Bizente Goikoetxea plaza eta Iturrizuri kaleetako alkatea; eta, bestetik, Nardeaga, Pedro Ignacio Barrutia eta Santakruz abadearen plazatzorako alkatea. Esandako moduan, hilaren 13an

egingo da bozketa, osoko bilkuren aretoan, 12:00etatik 14:00etara. Gune bakoitzerako hautestontzi bana eta beste hautestontzi bat jarriko dute.

Azken ontzi horretan bizilagunen iradokizunak jasoko dira; hau da, ordezkari berriaren zereginak zein izan behar duen galdetuko diete herritarrei.

San Martin eguna gaur: partxisa, trikitia eta jatekoa

J.B. | ARAMAIO

San Martin izanik jaieguna da gaur Aramaion. Eta, urtero moduan, Txirritola euskara elkarteak eta trikiti taldeak egitarau xume bezain interesgarria antolatu dute. 16:30ean hasita partxis txapelketa izango da, 17:00etan herriko trikitilarietara kalejira, 18:00etatik aurrera buzkantzak, txorizoa eta ardoa dastatzeko aukera eta 19:30ean, San Martinetako txartelen zozketa.

Partxis lehiaketan, bi maila

Txirritolak antolatutako X. Txirripartxis lehiaketan bi maila bereiztuko dira: 6 eta 14 urte

artekoak eta 15 urtetik gorakoak. Lehenak 16:30ean lehiatuko dira eta bigarrenak, 17:30ean. Udal-letxeko osoko bilkuren aretoan izango da eta lehiaketa hasi baino 15 minutu lehenago eman daiteke izena –izena eta jaiotza-urtea zehaztu behar dira-. Ohiko arauetara jokatu da, bana-ka.

Sariak honakoak izango dira: haurren artean lehen hirurek 60, 45 eta 30 euroko bonu bana jasoko dute Elkarreko edozein dendatan euskarazko materialarekin trukatzeko. Gaztetxo eta helduen artean, berriz, bonuak izango dira 75, 60 eta 45 eurokoak.



Dorletako Ama taldeko txirrindulariak aurtengo proba baten. | GOIENA

Dorletako Amako txirrindulariek parte hartuko dute Gantzagako jaietako proban

J.B. | ARAMAIO

Aste bukaeran San Melixenak ospatuko dituzte Gantzaga auzoan. Gaur hasi eta domekara arte egitarau zabala prestatu dute. Gaur 20:30ean iragarriko dute jaien hasiera eta kantu afaria egingo da elkartean (21:00). Bihar, berriz, egun osorako ekintzak antolatu dituzte: meza nagusia elizan Aretxabaletako koroarekin (12:00), txapel poteoa (13:00), mus txapelketa (17:00), patata tortilla lehiaketa (17:30), umeendako jolasak (17:30), txapel eta tortilla lehiaketen sari banaketa (19:30) elkartean eta, amaitzeko, erromeria Jon Ostolaza eta Txapartegiren eskutik (23:00) elkartean atarian.

laza eta Txapartegiren eskutik (23:00) elkartean atarian.

31. Gantzaga Saria

Jaietako nobedade nagusia da Dorletako Ama txirrindulari taldeak parte hartuko duela domekako 31. Gantzaga Saria txirrindularitza proban (12:30). Aspaldiko proba berreskuratu gura dute eta txirrindularitza gustuko duten guztiak parte hartzera animatzen dituzte: "Proba herrikoia da, parte hartu. Amaieran lunch eder bat egongo da". Jaiak amaitzeko, bermut-dantza (13:00) eta tute txapelketa egingo dira (17:00).

Gaur Kanpezun egingo den saioan estreinatuko da Paula Amilburu Bertxokon, "urduri" baina gogotsu

Gaur izango da Bertxoko sariketaren bigarren kanporaketa, Kanpezuko Ibernalo etxean –afaria 20:30ean eta saioa 22:30ean-. Lehen aldia da parte hartzen duena, eta, urduri egongo dela aitortu arren, ahalik eta mailarik onena ematera joango da: "Lehen aldia da sariketa serio baten; zaila izango da eta urduri egongo naiz, baina ondo pasatzera noa eta ahalik eta ondoen egitera. Badakit ez naizela finalera pasako, bertsolari onak daude-eta. Sariketa ezagutzera noa". Umiltasunik ez zaio falta, behintzat.

Nekazaritza birsortzaileak ikusmina piztu zuen

Ikusmina piztu zuen eguazteneko nekazaritza birsortzailearen gaineko jardunaldiak. Bertakoez gain, Debagoieneko eta Arabako nekazariak izan ziren Ana Digonen azalpenak entzuten. Digon Darren Doherty Australiako permakultore ospetsuaren laguntzailea da. Lurra berritu eta emankor egiteko hainbat adibide eman zituen.



JOKIN BEREZIARTUA

ELGETA

Gas faktura potoloak espero dira aurten ere

Gasaren auziak zabalik jarraitzen du eta, gainera, konponbide zaila du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Laster izango dugu etxeak bero-tzeko beharra, eta, orduan, iazko gas fakturak etorriko zaizkigu burura. Jakin beharra dago egoerak berdin jarraitzen duela eta irtenbide iluneko gaia dela diote, gainera, Udaletik.

70 bat urterako hitzarmena
Oxel Erostarbe alkatearen esanetan, egoera zaila da herriko sarearen jabetza Repsolena delako. "Udalak lotuta dauzka eskuak; izan ere, hori jasotzen duen hitzarmena 70 bat urterako da eta ez du etete-klausularik jasotzen. Repsol Gaseko arduradunekin hainbat batzar izan ditugu eta hitzarmena betetzen ari direla erantzun digute. Baita prezioak Estatuak zehazten dituela ere", azaldu du Erostarbek.

Naturgasekin harremanetan
Bada, iaz jasotako kekak bideratu egin direla argitu du alkateak. Eta erantzunak izan dira Repsol Gas indarrean dagoen hitzarmena betetzen ari dela, prezioa Estatuak jartzen duela eta Repsol kalitatezko gasa banatzen ari dela. Azken datu hori Jaurilaritzak Repsoli ezustean egindako neurketa baten ondorioa da. Hala, herritarrendako egoera injustua



Repsol Gas enpresak Pagatzen dituen gas deposituak. | L.Z.

bada ere, ez dago kontratua etetea justifikatzen duen arrazoirik. Dena den, Udalak egoera bideratzeko ahaleginean jarraitzen duela azaldu du Erostarbek. "Etxeko lanak eginda dauzkagu; gas naturala Uberatik Elgetara igotzeko proiektua idatzita utzi genuen aurreko agintaldian, eta Naturgaseko ardu-

radunak prest agertu ziren lanen finantziazioan parte hartzeko". Merkatuan dauden aukeren artean azterketa bat egiten ari direla gaineratu du alkateak, eta aurreratu du herriko sarea Repsoli erostea ez dela, oraingoz, bideragarria. Neguan, beraz, gas kontsumoa neurtu beharko da.



ANTONIA ARANTZABAL

"Iaz 500 euroko faktura bat jaso nuen, eta 600 euro kobratzen ditut hilean, atera kontuak! Aurten zer? Hotzak ezingo gara ba egon! Oraindik ez dugu berogailua ipini, baina hotz egiten badu ipini egin beharko dugu. Zer bestela?".



ASIER MORALES

"Faktura potoloak iritsi ziren bai iaz, eta aurten kalefakzioa gutxiago ipini beharko dugu. Dena den, komertzial nabil eta jakin badakit Asteasun eta Albizturren, esaterako, gasa Elgetan baino merkeago ordaintzen dutela".



LOREA IBEAS

"Iaz 300 euroko faktura bat jaso genuen, eta aurten berogailu elektriko txiki bat erosi dut. Akaso, gogor egin beharko genuke; batu, kontsumitzailearen bulegora jo... Izan ere, hemen ez dago beste konpainiarik".

LEINTZ GATZAGA

Udal eraikinak garbitzeko lehiaketa deia egin dute egunotan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Urriaren 28an egindako osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak Udal eraikinak garbitzeko lehiaketaren oinarriak. Azaroaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen deialdia eta oinarri horiek, eta Udalaren webgunean ere ikusgai daude *www.leintzgatzaga.com*-en. Azaroaren

23a bitartean, eguaztena, izango dute epea interesatuek eskaera orriak eta eskatutako agiri guztiak Gatzagako udaletxera bideratzeko. Aurkeztutako eskaera guztiak aztertuko ditu gero Gobernu Batzordeko kideek, eta erabakiaren berri udaletxeko iragarki oholean jarriko dute *data* oraindik zehaztu barik.

Bi urterako kontratua
Garbitu beharreko Udal eraikinen artean daude udaletxea eta herri eskola. Eta Udalak finkatutako aurrekontua da 15.183 euro urtean (BEZa barne). Lehiaketara aurkeztu diren enpresek diru kopuru hori hobetu beharko dute. Esleipena bi urterako izango da eta bi aldeak gustura egonez gero kontratua beste bi urtez luzatzeko aukera izango dute. Azken urteotan Eskoriatzako Hemen Garbiketaren enpresak egin ditu garbitasun lan horiek.

VIII. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Pello Larrea - Mikel Elgoro / Asier Morales - Koldo Goenaga	22-18
Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	21-22
Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre / Satur Ramos - Mikel Arkarazo	22-11
Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua / Iker Irazabal - Diego Cantabrana	22-18
Iban Retolaza - Xabier Larrañaga / Antxoka Etxabe - Igor Irazabal	22-11
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola	22-10
Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	22-21
Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Iban Retolaza - Xabier Larrañaga	04-22

BARIKUKO PARTIDUAK 20:00ETAN

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	
Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi	

DOMEKAKO PARTIDUAK 11:30EAN

Iban Retolaza - Xabier Larrañaga / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola	
---	--

Domeka eguerdirako argazki lehiaketa deitu dute; pintxo eskaintza eta trikitilariak ere egongo dira

Argazkigintza gustuko dutenek hitzordua dute domeka eguerdian Elgetan. 12:00etan abiaraziko du Udalak argazki rally lehiaketa. Gai bat proposatuko dute eta parte-hartzaileek bina argazki aurkezteko aukera izango dute. Eta gogoratu beharra dago azaroan pintxo-domekak ditugula herrian. Hala, trikitilariak ibiliko dira tabernaz taberna eta ostalariak aurreko aste bukaeran egindako pintxo lehiaketara aurkeztutako pintxoak eskainiko dituzte euro baten truke. Maialde hoteleko Jesus Kalboetxeagak irabazi du aurten lehiaketa. Taberna bakoitzak lehiaketara aurkeztutako pintxo onena izan du salgai.

Elgetako hainbat eragilek deialdiak egin dituzte datozen egunotarako

Biharko, zapatua, Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko dei egin du Udalak. Eguraldi txarragatik aurreko deialdia bertan behera geratu zen. Herriko Plazan egin dute hitzordua, 08:30erako. Astelehenean, azaroak 14, Elgetako KZgunean izango da dinamizatzailea, 16:00etatik 20:00etara; eta martitzenerako, azaroak 15, Udalak eskola inguruan hastekoak diren lanen gaineko batzarra deitu du, 19:00etan, udaletxean. Azkenik, erretiratuek egunean, azaroak 17, izango dute podologo zerbitzua zabalik. Aurrez hartu behar da txanda.

Debagoieneko Mankomunitaterako hiru ordezkariak izendatu ditu Elgetako Udalak

Aho batez onartu zituzten izendapenok aurreko asteko osoko bilkuran. Mankomunitateak hiru batzorde izango ditu agintaldi honetan: Pertsonal batzordea, Ingurumen batzordea eta Turismo batzordea. Lehenengo bi batzordeen jarraipena Oxel Erostarbek egingo du eta Turismo batzordera Patxi Basauri joango da. Izendapenak egiteko Elgetako Udaleko batzorde banaketa hartu dute kontuan. Erostarbe da Elgetan Pertsonaleko batzordeburua eta hark eramaten ditu ingurumenarekin lotutako gaiak. Bestetik, Patxi Basauri da Elgetako Turismo batzordeburua.

Ur eta estolderia tasak ordaintzeko epea zabalik dago

Zabalik dago 2011ko hirugarren hiruhilabeteko etxeko kontsumoko urari eta estolderiari dagozkion tasak ordaintzeko epea. Ordainagiria helbideratuta dutenei kontu korrontean egingo diete kargua. Helbideratu barik dutenek, berriz, abenduaren 23a arte izango dute udaletxera jo eta ordaintzeko.

San Milixan feriara joateko autobusa egongo da

Etzi, hilak 13, ospatuko den San Milixan feriara joateko autobusa jarriko dute Eskoriatzatik, urtero legez, eta joan-etorrian ibiliko da uneoro. Hala, ahal den neurrian autobusa erabiltzeko gomendatu dute, "herrian ez dagoelako auto askorendako lekurik", eta zirkulazio arazorik ez sortzeko.



Orobengoatarren Seat Ibiza Cupra TDI autoa, box-etan; argazki txikian, Igor, pilotua. | TRT RACING TEAM

AUTOMOBILISMOA

TRT Racing taldea lider da Nafarroako Openean

Domekan korrituko dute, bi txandatan, Openeko azkenaurreko proba

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Garagartzako Orobengoatar anaiek –Igor eta Iker– eta euren lagunarteak osatzen dute TRT Racing Team taldea, eta denboraldi biribila egiten dabilta,

Nafarroako Opena irabazteko azken pausoa geratzen zaielako. Lider dira sailkapenean, eta asteburuan izango dute hitzordu erabakigarria, Nafarroako zirkuituan (Los Arcos). Openean

lider joatearekin batera, Nafarroako eta Alcañizko zirkuituek batera antolatzen duten Abiadurazko Txapelketan ere lehenengo doaz orobengoatarrek. Berez Openeko azken lasterketa izan behar

zen domekakoa, baina eguraldi txarra tarteko azaroaren 28ra atzeratu dute azken lasterketa.

Hainbat proba Los Arcosen

Hitzorduz betetako asteburua izango da Los Arcosen, bihar eta etzi erresistentziako Espainiako Kopa, Clio kopa, Espainiako prototipoen txapelketa eta Nafarroako Opena jokoan egongo direlako. Hain zuzen, azken txapelketa horretan lider dira arrasatearrak, euren kategorian (3 klasea), eta lidergo hori defendatzen ahaleginduko dira asteburuan –bali-teke ibarreko pilotu gehiago egotea, nahiz eta sailkapenean ez duten ezer jokoan. Bihar, zapatua, entrenamendu saioak izango dituzte (08:30), eta domekako lasterketak bi txanda izango ditu. Lehenengoa 12:30ean hasiko dute, eta bigarrena 16:50ean.

Errepidetik zirkuitura

Hainbat urtez Euskal Herriko igoera eta ralliesprintetan esku hartzen ibili eta gero azken urteotan zirkuitu itxietan dabilta buru-belarri. Duela urte batzuk ausartak izan ziren TDI motordun Ibiza batekin igoerataraz aurkeztu hasi eta lasterketa txukunak egiten hasi zirenean. Orain, Seat Sport etxeak Montmeloko 24 orduak egiteko prestatu zuen autoaz dabilzalako lehian.

Txapelketa irabaztea lagun-garri izango litzateke datozen denboraldiko proiektuetan laguntzeko beharrezkoak diren babesleak erakartzeko, duda barik.

ZIKLO-KROSA

Arrikrutz Oñatiko Kobak emaitzak batzen hasi da

X.U. | ARRASATE

Oñatiko ziklo-kros talde Arrikrutz Oñatiko Kobakeko ziklistak hasi dira denboraldiko lehen fruituak jasotzen. Talde moduan lehiatzen diren lehen urtea da hau, baina gazteak izan arren ez dira ziklo-krosara iritsi berriak, eta erre-pidea utzi eta lokatz gainean hastearekin batera igarri da hori.

Orain arte Burgosko eta Bizkaiko bost lasterketetan izan dira. Kadete mailan, eta nahiz eta eguraldiak ez zuen batere lagundu –Ermuako lasterketan ohiko bilakatu da oso eguraldi txarrarekin korritu behar izatea– Iker Alberdik bigarren egin zuen, eta Xabier Aiausti zortzigarren izan zen. Gazte mailan Iker Arkauz hamaikagarren sailkatu zen, eta Aitor Umerez bederatzigarren.

Hurrengoa, domekan

Oñatiko txirrindulariek oraingo asteburuan ere Bizkaian izango dute hitzordua, Amorebietan antolatuko dutelako hurrengo lasterketa, domekan.



Txirrindulariak iaz, Oñatiko martxan. | GOIENA

MENDIKO BIZIKLETA

Azaroaren 27an egingo dute Oñatin martxa, Iban Altubereren omenez

X.U. | ARRASATE

Aurtengo Debagoieneko mendi bizikleta zirkuituan Oñatik ez du martxarik izan, eta Debagoieneko mendi bizikleta zaleek ondo igarri dute hutsune hori. Oñatiko ibarreko martxa klasikoetako bat izan delako. Hala, bazirudien Oñatin urtea martxa barik agurtuko zutela, baina azken orduan bizikletaz maiteminduta zegoen Iban Altube zenaren hainbat lagun elkartu dira, eta haren omenez bizikleta martxa antolatu dute azaroaren 27rako: "Berandu samar ari gara, badakigu hori, baina penagarria izango litzateke Oñatiko mendi bizikleta martxa galtzea. Horrekin batera, Iban Altuberi

omenaldia egin nahi genion, eta horretarako hitzordu aproposa da", adierazi digu ziklismo denboraldia amaitu eta beste lagun batzuekin batera martxa antolatzen buru-belarri dabilen Markel Irizarrek.

Mendi bizikleta martxa 09:30ean hasiko dute (plazan), eta 42 kilometroko ibilbidea prestatu dute Oñati inguruko basoetan. Luntxa Altubereren baserri ondoan egingo dute, eta amaieran omenalditxoak izango da: "Goizean, baina, gazetxoendako irteera bat ere egingo dugu, Oñatiko kaleetan zehar, bost kilometro ingurukoa izango dena. Gazteak bizikletara erakartzea da asmoetako bat".

PILOTA

Mendizabalek gaur gaintitu behar du finalean egoteko azken koska

X.U. | ARRASATE

Azaroaren 26an jokatuiko dute Lau t'erdiko Promozio Txapelketako finala, edo ezagunago den moduan, Bigarren mailako finala. Eta orain momentuan Aitor Mendizabal antzuolarra da finalean egoteko aukera gehien duen pilotaria, finaleko ligaxkan jokatuiko bi partiduetatik biak irabazi dituelako.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan hasita Ataungo pilotalekuan jokatuiko dute Mendizabalek eta Albisuk. Eta kontuak garbi daude: Antzuolako pilotariak partidua irabazten badu finalean izango da, baina baita partidua galdu arren 17 tantotara iristen

bada ere. Kontrara, Albisu finalean egoteko ez da nahikoa Mendizabali irabaztea; 16 tantotan utzi beharko du Antzuolako. Hala, egoera horrek ez du kalkulagailuaz kantxaratzeko aukerarik ematen, hil ala bizi kantxaratuko dira biak.

Azkena, ondo sufrututa

Beste partiduan ia aukerarik ez duen Ongayk Lemunoren kontra jokatuiko du. Hain zuzen, Antzuolakoak gogotik sufrutu zuen joan den egubakoitzean, etxean bertan, Lemunoren kontra. 11-21ekoaz bazirudien Lemunok amore emango zuela, baina 21-21 egon ziren (21-22).



Mendizabal profesionalek saltoa egin berri. | ARGAZKIPRESS

PILOTA

Gaur eta bihar Gipuzkoako txapelketa jokoan

X.U. | ARRASATE

Gipuzkoako eskupilota txapelketa barruan pilota partidua jokatuiko dituzte asteburuan Debagoieneko pilotariak. Gaur, egubakoitza, partidua izango dira Bergaran (19:00etan hasita, sei partidua), Eskoriatzan (19:00etan hasita, partidua bat), eta Arrasaten (20:30etan hasita, bi partidua).

Bihar, zapatua, Arrasateko Uarkape pilotalekuan alebin mailako pilotarien hiru norgehiagoka jokatuiko dituzte, 18:00etan hasita.

PILOTA

Santo Tomas Torneo hasiko dute gaur Arrasateko pilotariak

Arrasate Pilota Taldeko (AGT) pilotariak Santo Tomas torneo (Lau t'erdiko barruan) hasiko dute gaur, egubakoitza. Kanporaketa fasearekin emango diote hasiera torneoari, Uarkapen, 19:00etan hasita. Kanporaketak abendu hiru garren astera arte jokatuiko dituzte, orduan egingo dituztelako finalak.



Imanol Molinero iaz Bulebarrera iristen. | TRT RACING TEAM

ATLETISMOA

Alonso eta Molineroren pausoen atzetik, etzi

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Domekan egingo dute Behobia-Donostia lasterketa, eta aurtengo lasterketako albisteetako batek eragin txikia izango gu gure korrikalarien artean, Gipuzkoako lasterketa jendetsuena federazioaren egutegitik kanpo geratu izana, alegia –behingoz ez dugu errepikaturiko geroago eta parte-hartze handiagoa duela lasterketak.
Antolatzaileek Espainiako Atletismo Federazioak izan duen jarrera salatu dute, eta federazioak dirua batzeko asmoz egindako proposamenak baztertu dituzte. Horrek ekarri du egutegitik kanpo geratu izana,

baina horrek esan nahi du federazioaren babespean dauden atletak ez direla Donostian egongo, alegia, urtero-urtero lasterketa irabazteko borrokan ibiltzen direnak.
Alonso eta Molinero
Aurreratu moduan, horrek eragin txikia izango du gure korrikalarien artean. Iaz Imanol Molinero oñatiarra (1:08) eta Rakel Alonso arrasatearra (1:30) izan ziren azkarrenak. Eta beste datu esanguratsu bi ere utzi zituen probak, 464 debagoien-darrek amaitu zutelako proba, eta emakumezkoen parte-hartzea hazi egin zelako.

FUTBOLA

Aretxabaletak lider dagoen Anaitasuna hartuko du Ibarran

Ohorezko erregional mailan Aretxabaletak, Bergarak eta Mondrak etxean jokatu dute asteburuan. Kontrario gogorrena, baina, Aretxabaletak izango du, lehenengo postuan dagoen Anaitasunaren bisita izango dute-eta Juanan Cruzen mutilek (Domeka, 16:30).
Zapatuan, Mondrak Pasaia-ren kontra jokatu du (16:30), eta Bergarak Behobiaren kontra (15:30). Aloña Mendik, berriz, seigarren postuan dagoen Urolaren zelaira egingo du bidaia (zapatua, 16:00).

SASKIBALOIA

Aloña Mendiko mutilek Kantabriara bidaia egingo dute asteburuan

Aloña Mendik Kantabrian jokatu du asteburuan, sailkapenaren erdian dagoen Torrelavegaren kontra jokatzeraz (Domeka, 11:30). Kantabriarrek oñatiarren emaitzak batu dituzte orain arte, bi partidu irabazita.
Joan den astean Santurtziren kontra garaipen oso garrantzitsua eskuratu eta gero –talde osoaren moralala altxatzen duen garaipena– Josu Larreategiaren mutilek Lizuan.com izango dute bihar kontrario, Azpeitian (18:30).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	ARETO FUTBOLA	SASKIBALOIA
EMAKUM. BIG. MAILA AD. Berrio Otxoa-Mondra Domeka. 12:00. Ibarsusi.	EUSKADIKO TXAPELKETA Goierri-Eskoriatza Zapatua. 18:00. Urretxu.	EBA Torrelavega-Aloña Mendi Domeka. 11:30. Torrelavega.
GAZTEEN EUSKAL LIGA Antiguoko B-Aretxabaleta Zapatua. 15:30. Berio.	BIGARREN MAILA Irudek-Aretxabaleta Zapatua. 16:30. Tolosa.	LEHEN NAZIONAL MAILA Lizuan.com-MU Zapatua. 18:30. Azpeitia.
OHOREZKO ERREGIONALA Bergara-Behobia Zapatua. 15:30. Agorrosin. Mondra-Pasaia Zapatua. 16:30. Mojaitegi. Urola-Aloña Mendi Zapatua. 16:00. Argixao. Aretxabaleta-Anaitasuna Domeka. 16:30. Ibarra.	KADETE MUTILAK Arizmendi-Samaniego Zapatua. 11:15. Almen.	MAILA AUTONOMIKOA Autoescuela Lagunak-MU Zapatua. 11:00. Azkoitia.
ERREGIONAL PREFERENTEA Ilintxa-Antzuola Zapatua. 16:00. Legazpi. Zumaia-Aretxabaleta B Zapatua. 16:15. Aita Mari.	ESKUBALOIA EUSKADIKO TXAPELKETA Basauri-Ford Mugari Arrasate Domeka. 12:15. Basauri. El Pilar-Soraluce BKE Domeka. 12:30. Marianistas.	LEHEN SENIOR GIZONEZK. MU-Soraluce BKE Gaur. 20:00. Iturripe.
LEHEN ERREGIONALA Aretxabaleta C-Soraluce B Zapatua. 16:00. Ibarra. Gazteak-Mondra Zapatua. 16:00. Unbe.	EMAKUMEZKOAK PREF. Aloña Mendi-Ereintza Zapatua. 17:30. Zubikoa.	BIG. SENIORRAK Aloña Mendi-Orioko Zapatua. 16:00. Zubikoa.
GAZTEEN OHOREZKO MAILA Billabona-Mondra Zapatua. 15:30. Arratzain. Euskalduna-Bergara Zapatua. 15:30. Ubitarte Aurrera-Aloña Mendi Zapatua. 16:30. Zaldube.	LEHEN SENIOR GIZONEZK. Izarraitz Aloña-Ordizia Zapatua. 16:00. Zubikoa.	EMAKUMEZKOAK Cafes Aitona-Eskoriatza Zapatua. 20:00. Altza.
EMAKUMEZKOEN LIGA Arizmendi-Anaitasuna Zapatua. 18:00. Ibarra.	BIG. SENIOR GIZONEZK. Arrasate-Amenabar Domeka. 12:00. Musakola.	PILOTA BIGARREN MAILAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA Albisu-Mendizabal III.a. Egubakoitza. 18:00. Ataun.
	GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK Usurbil-Talleres Chapime Ar. Zapatua. 16:30. Usurbil. La Bacaladera-Aloña Mendi Domeka. 10:00. Hondarribia. Bergara (Atsedena).	ZIKLISMOA GANTZAGAKO 31. IGOERA Gantzagako jaietako lasterketa. Edonork har dezake parte. 11:30ean Gantzagatik irtengo dira denak. Aramaia iritsita, gaztetxoak irtengo dira, eta nagusiak 5 minutu geroago.
	GAZTE MAILA, EMAKUMEAK Aloña Mendi (Atsedena).	

30 min
+10 te
+10 gia

6. JARDUNALDIA

IMH, Elgoibar

2011/11/17

8:45-16:30

Inskripzioa (beharrezkoa)
www.imh.es - imh@imh.es
Telefonoa 943 74 41 32
IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

30+10 mintegia
hizkuntza-kudeaketa
enpresan

Antolatzailea

Makina Erremintaren Institutua

Kolaboratzaileak

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Ahize-AEK

8 hitzaldi + 2 mahai inguru + KEKAKO (networking)
... aukera itzazu zureak!

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA GIPUZKOAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA ELGOIBARKO UDALA
Mintegiaren sarrera

ANBOTO GROUP. Xabier Uribe-Etxebarria

THINK TANK. Responsabilitat Global. Josep Maria Canyelles

GIPUZKOAKO TXINERA INSTITUTUA. Miren Gabilondo

EMUN Enpresen sareko hizkuntzak, MU-Enpresagintzako irizpide proposamena

ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA. Idazlagun

MAHAI INGURUA “Hizkuntza kudeaketa eta enpresa ekintzaileak”. **Parte hartzaileak:**

- Jon Peli Uriguen Berrikuntza Diputatua.
- Nuria Lopez de Gereñu **CONFEBASK**
- Miren Gabilondo
- Xabier Uribe-Etxebarria
- Josep Maria Canyelles

Moderatzailea: Mikel Urdangarin (Ahize-AEK)

MAHAI INGURUA: "Lidergoa, autozentratzea eta asertibitatearen ekarpenak hizkuntzen kudeaketari". **Parte hartzaileak:**

- Topagunea
- Artez
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun
- Ahize-AEK

Moderatzailea: Nekane Goikoetxea (Huhezi)

Informazio gehiago: www.imh.es

BADATOR...



***Azaroaren 12 eta 13an
Aretxabaletan izango gara!
Etorri zuen lagunak animatzera.***

Aretxabaleta eta
Eskoriatzako partaideok,
eman azken errepasoa
abestiari eta koreografiari!

Abestien letrak eta koreografiaren bideoak
<http://zugaz.com/blog/>

943 25 05 05

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

KULTURA



Osintxuko Musirakan dantza taldeko kideak, Osintxun bertan hartutako irudian. | CANTERO

ESANAK

"Gure emanaldiek argazkia onartzen dute"

AMAIA AGIRRE | DANTZARIA

"Oso argazki ezberdinak ikusiko ditugu ikuskizunean"

BENITO CANTERO | ARGAZKILARIA

"Betiko udazkenetik haratago joan nahi izan dut"

UXUE AGIRRE | OLERKARIA

Ikusi, entzun... udazkena

- 'Udazkena oinetan' ikuskizuna aurkeztuko dute bihar, 22:30ean
- Dantza, argazkilaritza eta olerkia batuko ditu ikuskizunak
- Udazkena ardatz hartuta egindako emanaldi berritzailea izango da



Uxue Agirre. | CANTERO

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA
Ikuskizun berezia antolatu dute Osintxuko Musiraka dantza taldeak, Arizondo argazkizale elkar-
teak eta Uxue Agirre olerkariak. Hiru generoak batuko dituen ikuskizuna izango da, berezia eta berritzailea.

Argazkia sartzeko aukera
Dantza taldekoen ideia izan zen halako ikuskizun bat egitea: "Ikus-
ten genuen gure ekitaldi batzuek argazkia sartzea onartzen zutela. Hala, erabaki genuen pausoa ematea, ideia hor zegoen-eta. Behin dantzak aukeratuta, Beni-
to Canterorengana joan ginen eta ea parte hartzeko prest zegoen galdetu genion", azaldu du Amaia Agirrek, Musiraka dantza talde-
ko kideak.

Uxue Agirrek ere uda partean jaso zuen olerkiak idazteko gonbidapena: "Aukera ona zen, eta, noski, pozik hartu nuen gonbidapena!". Proposamena onartu bezain azkar, dantzek izango zituzten izenak eta era-
biliko zituzten musika piezak pasatu zizkioten, eta, gutxi gorabehera, horretan oinarritu ditu olerkiak Agirrek: "Udaz-
kenarekin lotuta daude, baina saiatu naiz denok ezagutzen

dugun naturarekin lotuta dagoen udazken horretatik haratago joaten, urtaro hau ikusteko beste modu bat topatzen, esan dezagun", dio.

300 argazki 11 saiotan
11 saiotan banatuko dute zapa-
tuko ikuskizuna. 300 argazki inguru erakutsiko dituzte argaz-
kilariek. Argazkilari hauek par-
te hartuko dute: Agustin Gurrutxaga, Imanol Mondragon, Pedro Mari Arregi, Juan Jose Lopez Azurmendi, Joseba Leturia eta

Benito Canterok. "Udazkena da argazkien oinarria, baina oso argazki ezberdinak daude: basoak, elurra, herriak...", dio Cante-
rok.

Agirrek zortzi olerki errezi-
tuko ditu, batzuk musikaz lagun-
duta eta beste batzuk bakarka.

Euskal dantza tradizionala
Argazkiak saio guztian proiektatuko dituzte, bai Musiraka taldea dantzan dabilenean eta baita Agirrek olerkiak errezitatzan dituen ere. "Uxuek gure dan-



Basoa, udazkenean. | JOSEBA LETURIA

EGITARAUA

Udazken koloretan

Benito Lertxundi

Poesia Saioa

Uxue Agirre

Gure bazterrak

Mikel Laboa

Orekaren soka

Tirri Tarra

Haizearekin olgetan

Yann Tiersen

Ufadan

Anabela

Negua ate joka

Yann Tiersen

Firinfaran

Yann Tiersen

Tantanak tantan

Yann Tiersen

Bat eta bat bi

Tirri Tarra

Horitu, ihartu... airera

Tirri Tarra

tza bakoitzeko aipamen txiki bat egingo du", azaldu du Agirrek, dantza taldeko kideak.

12 dantzarik, sei argazkilarik eta Uxue Agirrek parte hartuko dute ordubete inguru iraungo duen ikuskizunean. Lehenengo aldia da dantza taldeak horrela-
ko ekitaldi bat egingo duena: "2009an dantza taldearen ikuski-
zuna egin genuen Zabalotegin; iaz, Ramon Arantzabalen *Muni-
beko gau magikoak* ikuskizunean parte hartu genuen; eta guk anto-
latutako ikuskizuna egingo dugu orain", dio Agirrek.

Euskal dantza tradizionalean oinarritzen da Musiraka dantza taldea, baina dantza garaikidea ere sartzten dute emanaldietan. "Gure berezko dantzak fandangoa eta arin-arina izaten dira, baina poliki-poliki saiatu gara zer edo zer originala eta ezberdina egiten", dio Agirrek. Gaineratu du dan-
tzari beste ikuspuntu batetik begiratzen asko lagundu dutela Jon Maia eta Edu Muruamendia-
ratz dantzariak.

Udazkena ikusteko eta entzu-
teko beste modu bat erakutsiko dute, bihar, zapatua, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Udazkena oinetan dugula sentitzeko auke-
ra izango da.

Ruper Ordorika | Musikaria

"Grabatzera koan kantuek arnasa hori eskertzen dute, landuegiak ez izate hori"

- 'Hodeien azpian' lana argitaratu berri du oñatiarrak
- 11 abestiz osatutako diskoa da, Elkarrek argitaratua

M. ARREGI/A. EZKIBEL | OÑATI

Hodeien azpian Ruperren lan berria eskuetan hartuta, musikari oñatiarrarekin izan gara. Azken lanekin egin izan duen moduan, New Yorken grabatu du diskoa. Sasien gainean eta hodeien azpian dagoenaz diharduela azaldu du Ruperrek.

Beste behin ere New Yorkera joan zara diskoa grabatzera. Zer topatzen duzu han?

Kasu honetan, ia-ia arrazoi teknikoengatik joan nintzen. Badauk han estudio bat teknikaria ezagutzen dudana, azkeneko sei edo zazpi diskoetako musikariak han bizi dira... Gehienbat, estudioagatik joan naiz. Gauzak oso nahasiak daude musika munduan eta han lan interesgarria egin nuen azkeneko lanean. Musikaren kontu horietan ahal den ondoen edo momentuan momentuko gauzak aprobetxatzen ditut. Arrazoi askorengatik joan nintzen New Yorkera; bestela, musikariak hona etorri behar zuten. Gainera, hango estudioak duen tresneria zaharra asko gustatzen zait.

Produktua, baina, Euskal Herrian bukatu duzu.

Bai; Elkarrek badu estudio bat Donostian, eta gero, nire anaiak egiten du masterra deitzen dena. Beste teknologia bat eta beste ukitu batzuk... lan handia egin du, nire sentsazioa hori da, lan handia egin duela. Kontrakoa ematen duen arren, oso disko gardena zentzu batean, baina lan handia darama.

Grabatu zuzenean moduan grabatu duzu. Zure modua hori da?

Nire ustez, kantuek eskertu egiten dute arnasa hori. Landuegiak ez izatea. Hor badago benetakotasun bat, badago zerbait musikariak batera grabatzen dutenean. Eta badakizu, diskoak dena onartzen du, disko handiak egiten dira atalka edo poliki-poliki. Baina nik aspaldi erabiltzen dut modu hori, denek batera grabatzea, eta nik

uste dut kantuek eskertu egiten dutela; beste mugimendu bat, beste energia bat dago.

Oraingoan, Ben Monder gitarra jolea gonbidatu gisa dago. Aldaketa dakar horrek soinuari?

Nik uste dut diskoak baduela lotura handia aurrekoekin. Baina ez da gauza bera, uste dut gitarra jolea aldatzeak zeresan handia daukala. Baina zuzenean beste musikari batzuekin ibiltzen naiz, eta, azkenean, beti kantuak nagusitzen dira.

Ben Monderrek asko janzten ditu abestiak, harmonikoki oso kantu sendoak egiten ditu, oihartzun handikoak. Eta Ulrich askoz ere zehatzagoa da, eta kantuak biluziagoak dira zentzu horretan. Nik uste dut eskertzen dela.

Badago gai nagusirik diskoan?

Ez dut uste gai bat dagoenik. Kantuak jorratzen dituzten gai nagusiak betikoak dira, maitasuna, gorrotoa, ahanztura, oroitzapenak, alaitasuna... kantuaren gai arketipikoak horiek dira. Edozein gauza trata daiteke kantuan eta oso gutxitan esaten dut aurretik: "Honetaz egin behar dut...". Dato-

"Ulrich Monder baino zehatzagoa da, kantuak biluziagoak dira"



Ruper Ordorika, Oñatiko Unibertsitateko klaustroan. | MIREN ARREGI

ren bezala, gehienetan melodiak agintzen du nora joan behar duan. Baina ez beti, badira salbuespenak. Gehienetan, hariari jarraitu eta gaira moldatzen naiz, barruan ditudanak, eta kanpoan, hodeien azpian.

"Ez dago gai konkretu bat, melodiak agintzen du nora joan"

Zergatik aukeratu duzu Hodeien azpian izena?

Hori lehen kantuan dago, *Nirekin geratu* errepika da. Pentsatu nuen izenburu horretan euskal jendearen artean oso esaera ezaguna delako, *Sasi guztien gainetik hodei guztien azpitik...* sorginen konju-ruen bezala. Gauza bitxia da, nik beti pentsatu izan dut zer ote den sasien gainetik eta hodeien azpitik... eta uste dut diskoa horretaz doala, hor dagoenaz, munduaz, zutaz, nitaz... Hori pentsatu nuen eta horregatik jarri nion titulu hori diskoari.



Lazkano, Gartzia, Bastarrika eta Aguado, inaugurazio egunean. | PHOTOGUNE

Debagoieneko etorkizuneko argazkilarien lanak

'Starker' erakusketa hilaren 18ra arte egongo da zabalik Egia auzoko Aldakonea 6an (behea)

A.E. | ARRASATE

Debagoieneko lau argazkilariaren lanak ikusgai daude Donostiako Photogune tailer-laborategian zabaldu duten *Starker* erakus-

ketan. Hain zuzen ere, Bergarako Nekane Lazkano eta Dani Gartzia, Oñatiko Itziar Bastarrika eta Eskoriatzako Irati Aguado dira argazkilariak. Era-

kusketak Gipuzkoako hamar artistaren lanak jasotzen ditu, denak ere belaunaldi berriko artistak. Izan ere, ez dute gairik adostu, sormen lanak dira, etorkizuneko euskal argazkilarien lanak. Hilaren 18ra arte egongo da zabalik erakusketa, Donostian, Aldakonea 6an (Egia).

Jose Cabezudo, maisua

Photogune espazio berriaren bueltan elkartu diren hamar argazkilari gipuzkoarrek zabaldu dute erakusketa. Horren guztiaren atzean, baina, Jose C. Urrutia argazkilari handia dago; Alberto Shomer, Cristina Gartzia Rodero eta Alberto Gartzia argazkilariekin urte askoan lan egin du proiektu horren sortzaileak.

Argazki laborategiko teknikari gisa 35 urteko ibilbidea dauka Urrutiak. Urte hauetan guztietan hark sortu eta liburu eta publizitate kanpainetan agertu izan diren irudiak asko eta asko dira. Madrildik Donostia-
ra etorri da argazkilaria, eta, hala, Donostian Photogune tailerra zabaldu du. Donostian berritzailea da espazio hori.

Aitor Luna aktore bergararra saritu dute

'Gran Reserva' telesaileko lanagatik bigarren mailako aktore onena izendatu dute

A.E. | BERGARA

Espainiako Aktoreen Elkargoak eman dio saria Aitor Luna bergararrari Raul Kortazar pertsonaia antzezteagatik. Elkar-goaren XX. edizioa izan da aurtengoa.

'Gran Reserva' lana

Hain justu ere, gizonezko bigarren mailako aktore onenaren saria eman diote, TVE1eko *Gran Reserva* telesailean egin duen Raul Kortazarren paperarengatik. Saio horretan, haren anaia Jon Gonzalezek ere hartzen du parte. Telebistako lanen artean, Javier Albalak eta Adriana Ozoresek irabazi dituzte aktore onenen sari nagusiak.

Aitor Lunak ETBko *Goenkale* telesailean hasi zuen aktore ibilbidea. Danel pertsonaia



Aitor Luna. | AITOR-LUNA.ES

antzeztu zuen orduan, 2004an. Gero, Madrilera salto egin zuen: *Los hombres de Paco* eta *Gran Reserva* telesailetan parte hartu du eta dagoeneko grabatuta dauka laster Tele5n emitituko duten 2055 telesaia. Lan onaren emaitza jaso du bergararrak.

Abian da Jokin Zaitegi beka eskuratzeko deialdi irekia

AEDk eta Elkarrek egiten dute sariketa: Tomas Tranströmerren lana itzuli behar da aurten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Jokin Zaitegi idazle arrasatearra gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, Jokin Zaitegi sariketa antolatzen dute AEDk eta Elkar argitaletxeak Kutxaren laguntzarekin. Aurten goa 25. sariketa izango da eta Literaturako Nobel saridun Tomas Tranströmer suediarren poema bilduma itzuli beharko da.

Idazle suediarren lanaren lagin bat itzuli behar dute beka eskuratu gura dutenek; gero, epaimahaiak erabakiko du nor den irabazlea. Itzuli beharreko zatia antolatzaileek parte-hartzaile

leen esku jarri dute www.elkar-argitaletxea.com/jokinzaitegi atarian.

Abenduaren 31 baino lehen

Liburu hori itzultzeko gogoia eta gaitasuna duen edonork har dezake parte lehiaketan eta egindako lana AED elkartera bidali beharko da 2011ko abenduaren 31 baino lehen, aed@aedelkarrea.com helbidera.

Luigi Anselmik, Santi Leonek eta Joseba Ossak osatutako epaimahaiak jasotako itzulpenak aztertu eta irabazlea izendatu beharko du 2012ko urtarrilaren amaiera baino lehen.



Tomas Tranströmer suediarrek irabazi du Literaturako Nobel saria aurten. | REUTERS

DATUA

5.000

EURO

Irabazleak diru kantitate hori jasoko du beka moduan. Erdia itzultzen hasi aurretik jasoko du eta beste erdia lana amaitzean.

Itzuli beharreko poema jatorrizko hizkuntzan dago, eta baita ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz ere. Irabazleak 5.000 euroko saria irabaziko du Tranströmerren poemak itzultzeko. Lana, amaituta, 2012ko urriaren 30a baino lehen entregatu beharko du irabazleak Elkar argitaletxean.

2010eko bekaren irabazlea Santi Leone izan zen. Mario Vargas Llosaren *Pantaleón y las visi-*

tadoras itzuli behar izan du. Lana argitaratzeko dago oraindik.

Artiumerako sarrerak

Bestetik, AEDk Artiumerako sarrerak zozketatzen ditu bazkideen artean astero. Bi pertsonarendako sarrerak izaten dira. Astelehenean egin zuten zozketa eta sariduna Nahiara Odriozola Lopez izan da. Bi lagunendako sarrerak irabazi ditu hark Artium museoa bisitatzeko.

Hau guztia txartel bakarrean

- ✓ Asteleheneko Goiena Papera etxean jaso.
- ✓ Beherapenez gozatu (eskela eta sailkatuetan deskontuak).
- ✓ Zozketa eta promozioetan parte hartu.
- ✓ Asteleheneko Goienaren edizio digitala Goiena.net-en.

Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

Rafa Ruedak 'Enaren geometria' diskoa aurkeztuko du hilaren 17an Arrasaten

'Kooltur ostegunak' ekimenak ekarriko du mungiarra Arrasateko gaztetxera

A.E. | ARRASATE

Aurreko lanek baino pop-rock akustikoagoa du Rafa Ruedaren lan berriak. *Enaren geometria* azaroan aurkeztu berri du Ruedak, eta, hain zuzen, lan berria eskutian duela etorriko da mungiarra Arrasateko gaztetxera.

Kooltur ostegunak ekimenaren barruan antolatutako saioa izango da hilaren 16an, 22:00etan. Sarrera 5 euro da.

Kantuen epelera itzuli da

Habiara itzuli da Rueda, hegoaldera, kantuen epelera, musikari izateko autua egin zueneko garairra. PiLT taldean hasi zuen musika ibilbidea, baina, azkenaldian, bakarrik dihardu. 2003an kaleratu zuen *Kea* bakarkako lehen diskoa; *Saredun eskua* bigarrena izan zen eta *Zuhaitz okerretan* ondorengoa. Orain, 11 abestiz osatutako diskoarekin dator.



Rafa Rueda mungiarra zuzenekoan. | 123PEOPLE.ES

Aurreko hiru diskoetatik ikasitakoak ditu lanak, baina soinu berriak ere sartu ditu Ruedak.

Azaroko egitaraua amaitzeko, azaroaren 24an Split 77 bilbotarrak etorriko dira Arrasatera. Baina Kooltur Ekintza taldea dagoene-

ko lanean dabil abenduari begira. Arrasateko gaztetxera etorriko diren hurrengo taldeak Zea Mays, NCC, Makala... izango dira. Kontzertuak 22:00 hasten dira eta ordubete inguru irauten dute.

Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalerako sarrerak eros daitezke dagoeneko

A.E. | ARRASATE

Abenduaren 18an Donostiako Illunbe zezen-plazan jokatu den final handirako sarrerak salgai jarri ditu Gipuzkoako Bertsozale Elkartek.

Hiru aukera daude sarrerak erosteko: Internet bidez www.gpuntua.com gunean; herrietako ohiko saltokietan –hala ere, saltoki horietan sarrera arruntak soilik salduko dituzte–. Gurean: Antzuolan Surpe tabernan, Aretxabaletan Loramendin,

Arrasaten Irati eta Monte tabernetan, Bergaran Jardunen eta Oñatin kultura etxean; eta azaroaren 26tik abenduaren 4ra jokatu diren finalaurrekoetan ere eros daitezke; tartean, Arrasateko saioan.

Sarreraren prezioak

Hiru sarrera mota jarri dituzte: arruntak 18 euro –ohiko saltokietan horiek bakarrik egongo dira–; bazkideak 12 euro; eta gaztetxoak 8 euro.

Argazkia eta diseinua batzen dituen erakusketa zabalduko du gaur, barikua, Xabi Oterok Kulturaten

Oihan hegalean da erakusketaren izena. Xabi Otero nafarrak azken 40 urteetan egin dituen argazkiak eta diseinu lanak erakutsiko ditu. "18 urterekin hasi nintzen argazkilaritzan", dio. 80 argazki erakutsiko ditu, erdiak Euskal Herrian hartutako irudiak izango dira eta gainerakoak, Kanadan, Londresen, Saharan... Bestalde, 30 irudi erakutsiko ditu eta Oterok berak egin dituen logotipo eta kartelak izango dira. Kulturaten egongo da erakusketa gaur hasi eta abenduaren 11ra arte, martitzenetik domekara.



Paula Amilburu | Bertsolaria

Paula Amilburu, bertsolaria artean dabilen aramaiarra.

"Momentuan sortzeak ematen duen zirraragatik, askoz gusturago aritzen naiz bat-batekoetan"

TXOMIN MADINA | ARAMAIO

Oraindik batxilergoko azken maila bukatzeko duen arren, etorkizunean bere burua laborategi baten ikusten du 94ko aramaiar honek. Oraingo, baina, agertoki gainean ikustea erreza goa izango da, dela bertsotan, dela dantzan.

Betidanik erakarri izan zaituzte bertsosak?

Egia esan behar badut, ez; hasieran, nahiz eta bertsosko eskolan egon, ez nintzen bertsos saio asko ikustera joaten. Baina orain dela urte pare bat piztu zitzaidan benetako interesa eta bertsos saioekin benetan disfrutatzen hasi nitzen. Akaso, kontua izan da bertsolaritzari buruz ikasterakoan beste bertsolariekin identifikatu ahal izan naizela, beste bertsolarien

bertsoen bukaerak imajinatu ahal izan ditudala...

Zer-nolako giroa duzue Aramaioko bertsos eskolan?

Giro itzela dago bertan. Bost bertsolari, bi gai-jartzaile eta bi irakasle gaude eta gure arteko giroa lagunartekoa da. Horregatik, bertsotan aritzerakoan beti ari gara besteei adarra jotzen, eta, norbait pikatzen bada, badaki dena brometan dela. Disfrutatu egiten dugu denok.

Bertsos-paperean edo bat-batekoan, non gusturen?

Askoz gusturago ibiltzen naiz bat-batean, batez ere momentuan sortzeak ematen duen zirraragatik. Bertsos-paperean perfekzioa bilatzen da gehiago; ezin da hankamotzik edo hankaluzerik sartu eta ez dauka horrenbesteko

graziarik. Bat-batekoan, berriz, gaia entzun eta denbora laburra dago dena pentsatzeko; ahalik eta azkarren azkena pentsatu, errimak lortu eta *suizidatu* egiten da bat. Beharbada, ez da ondo irtengo edo zuri gera zaitezke, baina sentsazioak merezi du.

Eta gai serioen edo umoretsuagoen artean aukeratu beharko bazenu?

Umoretsuak aukeratu nituzke; batez ere, ikus-entzuleek askoz gehiago disfrutatzen dutelako. Bertsolari bat beste bertsolaria-ekin sartu eta haren erreakzioa ikusita barre asko egiten du jendeak. Hala ere, niretzat gai serioak errazagoak dir; izan ere, ideiak ez ditut horrenbeste pentsatu eta garatu behar. Gai umoretsu baten, aldiz, ez bada ideia ondo moldatzen, akaso ez du grazia-rik egin-

go eta gaizki gera zaitezke. Baina gai serioak ere asko gustatzen zaizkit, nire pentsatzeko modua hobeto erakusten dutelako.

Lehiaketetan ere aritzen zara. Nola ikusten duzu zure burua horrela-koetan?

Batez ere, urduri, beti jartzen naiz oso txarto saioaren aurretik. Baina lagunak eta bertsos eskolakoak beti daude ondoan lasaitzeko, edo horretan saiatzeko. Baina tira, hasierakoa pasata nahiko ondo ikusten dut nire burua; akaso, ez daukat bertsolari askok duten mailarik, baina gustura sentitzen naiz kantutuan.

Zer ematen dizu bertsolaritzak?

Bertsolaritza nire bizitzaren zati garrantzitsu bat da; ez saioak bakarrik, mundu horretako jendeak ere eragin handia dauka nigan. Jende berri asko ezagutu dut bertsolaritzagatik, eta, ez dakit horregatik izan den edo ez,

baina konfiantza handiagoa daukat nigan eta jendaurrean gero eta erosoago hitz egiten dut.

Egungo bertsolaritzako izen handietatik zein duzu begikoen?

Bertsolari asko gustatzen zaizkit; nola ez, Maialen Lujanbio, Euskal Herriko bertsolari txapelketa irabazi duen lehenengo emakumea delako. Beste asko ere badaude: Manex Agirre, nola ez, Jon Maia, Julio Soto, Alaia Martin... Eta bertsotan egiteko gai den edozein.

Bertsotan ez ezik, dantzan ere aritzen zara...

Bai; 5 urte nituenetik nabil euskal dantzetan, eta, egia esan, txikitan dantzak nahiko eskas irteten zitzaizkidanez, barregarri geratzea zer den erakutsi dit. Izan ere, pausoz nahastu eta beste gauza bat dantzatzaren hasten nintzen. Orain, hobetu egin dut, eta eskerrak, baina beti dago pausoz nahasteko aukera.

PERTSONALA

Aramaioko txoko maiteena: Andramari.

Aramaioren biziko ez bazina, non? Gasteizen.

Gosari bat: Laranja-zukua, txokolatea eta txurroak.

Bidaia bat: Indiara.

Pelikula bat: *La vida de Brian*.

Kantu bat: Sirokaren *Bihotzetatik zintzilik*.

Agertoki gainean mania bat: Ur asko edatea; saioa 1,5 litro.

Eguna goibeltzen dizute: Azterketek.

Eta alaitu: Lagunekin egoteak.

TXOMIN MADINA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. 90 metro koadroko etxebizitza salgai, Ibargoia kalean. Hiru logela eta komun bi. Dena kanpoaldera begira. Ganbara eta garaje itxia. Interesatuok deitu: 652 72 83 60 edo 945 44 53 52

Arrasate. Etxebizitza salgai Erquin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta bainugela. 606 86 71 97

Arrasate. Etxebizitza salgai Sailuente plazan, Musakolan. Guztiz berritua. Sotoarekin. Egoera paregabean. 143.000 euro. 666 53 95 39

Arrasate. Uriburu kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berogailua. Barrutik eta kanpotik berritua. Ikuspegi ederra. Unibertsitatetik gertu. 153.000 euro. 615 71 86 84 edo 645 00 89 97

Bergara. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Ederren. Terraza handia. Bi logela, egongela, bainugela handia eta komuna. Igogailua eta berokuntza zentrala. Seigarren solairuan. 670 55 07 41

Oñati. 72 metro koadroko etxebizitza salgai Kalebarrian. Sukaldea, egongela handia, bainugela eta bi logela. Dena guztiz jantzia. Patio erabilgarria eta trastelekua ere baditu. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 665 71 77 98

Oñati. Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Trastelekua eta garaje itxia. Errementari plazan. 653 73 08 04

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela eta egongela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 07 97 56

Aramaio. Etxebizitza errentan eman edo saltzen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Bi logelakoa. Garaje eta ganbarearekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 664749023 (Naiara) edo 679 45 57 62 (Ruben)

Arrasate. Musakolan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Prezio interesgarria. 645 72 53 51

Bergara. Apartamentu bat, duplex bat eta etxebizitza bat ematen dira errentan. Berriak. Deitu 9etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. 943 76 11 21

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea errentan hartuko nuke. 663 28 75 10

Arrasate. Etxebizitzabehar dut errentan erdigunean edo San Andresen. 610 82 02 17

Bergara. Bertako bikoteak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 675 62 30 03 edo 651 56 55 30

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Baserri batean logela ematen da errentan, sukalde eta abarrak erabiltzeko aukarekin. Errentaz gain ez da beste ezer ordaindu beharko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 34 00 45

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen. Erosoa eta handia. Deitu 61798 78 67 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Mutila bada, hobeto. Deitu 688 69 64 90 telefono zenbakira

Eskoriatza. Erdigunean, pisua konpartitzeko bi pertsona behar dira. Etxe guztiz eraberritua. 685 73 60 57

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia, 47 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Zerkaostetan. 943 77 03 38

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Harane Erreka edo Bolu kaleetan garajea errentan hartuko nuke. Arratsadez deitu mesedez. 943 76 59 94

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. Lokal komertzial bat errentan eman edo saltzen da San Lorenzo kalean. Deitu 607 93 73 15 telefono zenbakira.

305. BESTELAKOAK

Oñati. Erdigunean, bulegoa lanetan jarduteko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Egun soltetan erabiltzeko aukera ere bai. 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, goizean eta arratsaldean. Esperientzia izatea eskertzen da. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 678 32 90 62

Oñati

Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko.
654 61 25 88
675 70 62 10

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. Deitu 659 37 41 95 telefonora.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Deitu 672 88 01 01 telefono zenbakira.

Arrasate. 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 88 94 14

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako lanetarako, orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

Arrasate. Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketan, nagusiak zaintzen eta abar. Marta. 671 15 96 97

Arrasate. Haur Hezkuntza ikasi duen neska euskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasatekoa naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 73 10 08

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37

Bergara. Bergarako emakumea etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu dago. Deitu 696 84 19 51 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. 636 60 90 24

